



ELHUYAR
edizioak

IKASLEAREN LIBURUA

SALEROSKETEN KUDEAKETA



Xabier Egaña
Arantza Goenaga

**HEZIKETA-
-ZIKLOAK**



ELHUYAR
edizioak

SALEROSKETEN KUDEAKETA

Egileak: Xabier Egaña

Arantza Goenaga

Koordinazioa: Lurdes Ansa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia: 2002-03-27

Hizkuntz zuzenketak: Xabier Aranburu

Azalaren diseinua eta maketa: M. Karmen Urdangarin

© Edizio honena: ELHUYAR Fundazioa. Asteasuain 14. 20170 USURBIL (Gip.) (2003)
h.el.: elhuyar@elhuyar.com - <http://www.elhuyar.org>

© Xabier Egaña, Arantza Goenaga

Aurkibidea

1. MERKATUA ETA HORNITZAILEAK	7
SARRERA	8
1.1. MERKATUA	8
1.2. HORNITZAILEAK	9
1.3. HORNITZAILEEN AUKERAKETA.....	9
1.3.1. Eskaintza-eskaerak	10
1.3.2. Eskaintzak aztertzea	14
1.4. HORNITZAILEEN ERREGISTROA	15
 2. ZENBAIT SALEROSKETA-AGIRI	 18
2.1. ESKABIDEA	19
Sarrera	19
2.1.1. Eskabidearen definizioa	20
2.1.2. Eskabide-motak	20
2.1.2.1. Baldintzatutako eskabidea eta behin betiko eskabidea	20
2.1.2.2. Eskabidea egiteko erak	20
2.1.3. Eskabidearen kontrola	28
2.2. ALBARANA (ENTREGA-ORRIA).....	30
Sarrera	30
2.2.1. Garraioa	30
2.2.2. Salgaiekin batera doan dokumentazioa	32
2.2.2.1. Albarana edo entrega-orria.....	32
2.2.2.2. Albaran-motak	36
2.2.3. Salgaiak jasotzea eta egiaztatzea.....	36
2.2.4. Sarrera-erregistroa	37
2.3. FAKTURA	41



Sarrera	41
2.3.1. Faktura-motak	42
2.3.2. Fakturak igortzea eta zaintzea	46
2.3.2.1. Igortzea.....	46
2.3.2.2. Zaintzea	46
2.3.3. Fakturan egin beharreko kalkuluak	46
2.3.3.1. Zenbateko gordina.....	46
2.3.3.2. Faktura barruko deskontuak.....	47
2.3.3.3. Faktura barruko gastuak.....	47
2.3.3.4. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa).....	49
2.3.4. Fakturen zuzenketa	51

3. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA..... 57

3.1. BEZaren EZAUGARRIAK, FUNTZIONAMENDUA ETA KALKULUA	58
Sarrera	58
3.1.1. BEZaren definizioa	59
3.1.2. Aplikazio-eremua	59
3.1.3. Zergapeturiko eragiketak	59
3.1.3.1. Zergaren mugapena	59
3.1.4. Zergarik gabeko eragiketak	60
3.1.5. Subjektu pasiboa	61
3.1.6. Zergaren sortzapena	61
3.1.7. Bildutako BEZa eta Jasandako BEZa	62
3.1.8. Nola kalkulatzen da BEZa?	62
3.1.8.1. Zerga-oinarria	62
3.1.8.2. Zerga-oinarriaren aldaketa	63
3.1.8.3. Zerga-tasak.....	63
3.2. BEZaren KUDEAKETA	66
Sarrera	66
3.2.1. Eragiketa salbuetsiak	67
3.2.1.1. Salbuespen mugatuak.....	67
3.2.1.2. Erabateko salbuespena	67
3.2.2. Kuota-kenketak	68
3.2.2.1. Ezaugarriak eta baldintzak	68
3.2.2.2. Kenketa-eskubidearen jatorria.....	69
3.2.3. BEZaren likidazioa	69
3.2.3.1. Zein inprimakitan eta epetan egin behar da aitorten-likidazioa?..	70
3.2.3.2. Likidazioaren emaitza	70
3.2.4. Betebehar formalak	74
3.2.4.1. BEZaren erregistro-liburuak	74
3.2.5. Erregimen bereziak	75
3.2.5.1. Erregimen sinplifikatua	75
3.2.5.2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia.....	75
3.2.5.3. Erabilitako ondasunen, artelanen, antzinako gauzen eta bildumagaien erregimen berezia	76



3.2.5.4. Bidaia-agentzien erregimen berezia.....	76
3.2.5.5. Txikizkako merkatarien erregimen bereziak.....	76

4. SALEROSKETEN ORDAINKETA 93

SARRERA 94

4.1. ORDAINKETA-ERAK 94

4.1.1. Zer dela-eta horrenbeste ordainketa-mota?..... 95

4.1.2. Ordainketa 95

4.1.3. Dirua 96

4.2. ESKURAKO ORDAINKETA 96

4.2.1. Ordainagiria 96

4.2.2. Txekea 99

4.2.2.1. Kontzeptua..... 99

4.2.2.2. Txekean ager daitezkeen pertsonak 100

4.2.2.3. Igortzeko moduak 101

4.2.2.4. Txekearen edukia 101

4.2.2.5. Txekearen zirkulazioa. Endosua 103

4.2.2.6. Txekearen abala 104

4.2.2.7. Txekea ordaintzea 105

4.2.2.8. Txekea ez ordaintzea 105

4.2.2.9. Txekea bereziak 107

4.2.3. Banku-transferentzia 111

4.2.4. Banku-txartelak 113

4.3. ORDAINKETA GERORATUA..... 114

4.3.1. Kanbio-letra 114

4.3.1.1. Funtzio ekonomikoa 116

4.3.1.2. Igortzeko moduak 116

4.3.1.3. Kanbio-letraren edukia 116

4.3.1.4. Kanbio-letraren endosua 121

4.3.1.5. Kanbio-letrak abalatzea 122

4.3.1.6. Onespena 122

4.3.1.7. Kanbio-letra ordaintzea 123

4.3.1.8. Efektu-negoiazioa 124

4.3.1.8.1. Interesa 125

4.3.1.8.2. Negoiazio-faktura 126

4.3.2. Ordaindukua 128

5. BILTEGIA 133

SARRERA 134

5.1. BILTEGIA ZER DEN 135

5.2. IZAKIN-MOTAK 135

5.3. IZAKINEN BALORAZIOA..... 136



5.4. BALORAZIO-METODOAK	138
5.4.1. Batez besteko Prezio Haztatuaren metodoa (BPH)	139
5.4.2. FIFO	139
5.4.3. LIFO	140
5.5. BILTEGIKO FITXAK	140
5.6. IZAKINEN KUDEAKETA	151
5.6.1. Stocka kudeatzearen helburuak	152
5.6.2. Izakinen kostuak	152
5.6.3. Stock-motak	153
5.6.4. Izakinen maila	153
5.6.4.1. Gutxieneko stocka	153
5.6.4.2. Gehieneko stocka	153
5.6.4.3. Segurtasun-stocka	153
5.6.5. Stockaren haustura	154
5.6.6. Stocken errotazioa	155
5.6.7. Birjarpen-mailak	156
5.6.7.1. Eskaera-puntua	156
5.6.7.2. Eskaera Lote Ekonomikoa	157
5.6.8. Inbentarioa	158
5.6.9. ABC sailkapena	158
5.7. KOSTU-PREZIOAREN KALKULUA	161
5.8. SALMENTA-PREZIOAREN KALKULUA	162



1 ***Merkatua eta hornitzaileak***

SARRERA

1.1. MERKATUA

1.2. HORNITZAILEAK

1.3. HORNITZAILEEN AUKERAKETA

1.3.1. Eskaintza-eskaerak

1.3.2. Eskaintzak aztertzea

1.4. HORNITZAILEEN ERREGISTROA



SARRERA

Salerosketaren kudeaketako zeregin garrantzitsuenetako bat honako hau dugu: erosketa egin baino lehen hornitzaile egokiena bilatzea.

Erosketa Sailari dagokio lan horren ardura.

Eginkizun nagusiak honako hauek dira: hornitzaileak bilatzea; produktuen informazioa eskatzea (batez ere prezioak, kalitateak, deskontuak eta abar), baloratzea; txertatzea eta hornitzailea aukeratzea.

Hornitzaileak aukeratzeko, argi izan behar ditugu aldez aurretik ebaluatzeko irizpideak.

1.1. MERKATUA

Normalean, saltzaileak (produktuak edo zerbitzuak eskaintzen dituzte) eta erosleak (produktuak eskatzen dituzte) osatzen dute merkatua.

Eskaintzaileak: merkatu batean produktu bera eskaintzen dutenak.

Eskatzaileak: merkatu batean produktu bera eskatzen dutenak.

Merkatuak trukaketa-erlazioak erraztu egiten ditu eta, eskatzaileak eta eskaintzaileak prezioan eta kantitatean ados jartzen badira, salerosketa gauzatu egiten da.

Saltzaile- eta erosle-kopuruaren arabera, honako sailkapen hau egin daiteke:

SALTZAILEAK				
EROSLEAK	ASKO	ASKO	GUTXI	BAT
		LEHIA HOBEZINA	Eskaintzaren OLIGOPOLIOA	Eskaintzaren MONOPOLIOA
		LEHIA MONOPOLISTA		
	GUTXI	Eskariaren OLIGOPOLIOA	Bi aldeetako OLIGOPOLIOA	MONOPOLIO ahula
	BAT	Eskariaren MONOPOLIOA	OLIGOPOLIOA	Bi aldeetako MONOPOLIOA

Monopolioa: eskaintzaile bakarra dagoen merkatua. Adibidez, Microsoft enpresak monopolioa du sistema eragileen merkatuan (Windows).

Oligopolioa: erosle asko eta oso saltzaile gutxi dagoen merkatua. Adibidez, Espainian, Endesak eta Iberdrolak eta beste gutxi batzuek ekoizten dute energia elektriko ia guztia.



Lehia hobeina: merkatu gardena, produktu homogeneoa, saltzaile- eta erosle-kopuru handia (fruta eta barazkien merkatua, adibidez).

Lehia monopolista: saltzaileen eta erosleen kopurua handia da, baina produktu bakoitza besteetatik bereizi egin nahi izaten da, bakoitzak bere esparru propioa monopolizatzeko (janzkien merkatua, adibidez).

Ariketa osagarria

- a) Aipa itzazu lau merkatu-mota horietan (oligopolioa, monopolioa, lehia hobeina eta lehia monopolista) ari diren enpresen izenak.
 - b) Enpresaren ikuspegitik, zein da bezeroaren eta hornitzailearen arteko aldea?
-

1.2. HORNITZAILEAK

Enpresak behar dituen produktuez hornitzeko beste zenbait enpresa behar izaten dira, produktu horiek ekoizten dituztenak hain justu: hornitzaileak, alegia.

Hornitzaileen merkatuaren ikerketa egin behar dugu honako datu hauek jakiteko: zenbat hornitzailek fabrika dezaketen guk behar dugun produktua, produktuaren ezaugarriak, entrega-epea, ordaintzeko baldintzak...

Gehienetan, enpresek produktu bakoitzeko hornitzaile bat baino gehiago eduki ohi dute, arriskuak saihestu ahal izateko (grebak, enpresen ixteak...).

Bestalde, hornitzaile bakar batekin lan egiteak beste abantaila batzuk izan ohi ditu: prezio hobeak eta deskontuak (rappelak), besteak beste.

1.3. HORNITZAILEEN AUKERAKETA

Produktuak saldu aurretik, ekoitzi edo erosi egin behar izaten dira. Enpresa konturatzen denean material jakin batzuk behar dituela, Erosketa Sailak aukeratu behar du hornitzaile egokiena.

Aukeratze-prozedura desberdina izaten da erosi behar den produktua lehendik ere erosi izan bada (ohiko produktua) edo lehenengo aldia baldin bada (produktu berria):

a) **PRODUKTU BERRIA**

Enpresak produktu berria erosi behar badu –hau da, inoiz erosi ez duena– lehenengo lana hornitzaileak bilatzea da.

Aukeraketaren aurreneko pausoa hornitzaileen zerrenda egitea da.

Informazio hori honako iturrietatik lor daiteke:

- Feriak eta erakusketak
- Telefono-gidak



- Erakunde publikoak (udalak, autonomia-erkidegoak).
- Merkataritza-ganberak
- Prentsa

b) OHIKO PRODUKTUA

Produktu bat maiz erosten bada, hornitzaileak, prezioak eta kalitateak ezagunak izaten zaizkio enpresari.

Kasu batean zein bestean (produktu berria edo ohiko produktua) eskaintza hoberenari begiratu behar zaio hornitzailea aukeratzeko.

Ariketa osagarria

Egin honako merkatu hauetako lau hornitzailearen zerrenda, QDQ edo orrialde horiak erabiliz: automobilak, ile-apaindegiak, ogia.

1.3.1. Eskaintza-eskaerak

Hasteko, hautatuak izan daitezkeen hornitzaileen zerrenda egin behar da.

Bigarren pausoa hautagai horiei eskaintza-eskaera bat bidaltzea da (hiru eta hamar enpresa bitarteko kopurua gomendatzen da). Eskaera hori merkataritza-gutun baten bidez egin daiteke, edo egoera horri dagokion inprimaki berezi batez.

Eskaeran jarri behar diren datuak:

- Izena eta helbidea (enpresa eroslearena eta kudeaketaz arduratzen den sailarena); telefono- eta fax-zenbakiak.
- Hornitzailearen izena eta helbidea.
- Data.
- Produktuaren deskribapena.
- Entrega-eguna.
- Entrega-helbidea.
- Ordaintzeko era eta epeak.

Eskaerak jaso bezain laster txosten bat egin behar da. Eskaera bakoitzaren informazioa idatzi behar da txostenean, elkarrekin konparatu eta enpresari gehien komeni zaiona aukeratzeko.



BULEGOPLUS S.A.

Danborrada kalea, 14-2.
20013 DONOSTIA - Tel.: 943.434343
- Faxa: 943.434344

RONEO S.KOOP.
Resusta kalea, z.g.

Donostia, 2001eko urriaren 13a

Jaun/andere agurgarriok:

Dakizuenez, gure enpresaren jarduera bulegorako altzari, ekipamendu eta artikuluak saltzea da.

Salmenta-katalogoak handitu nahi genituzke; horrexegatik jo dugu zuengana, zuen produktuak ezagutu nahi baititugu; bulegoko mahaiak eta agiri-kutxak batez ere.

Eskertuko genizueke horien ezaugarriei buruzko informazioa bidaltzea (kalitateak, gamak, entrega-epeak, prezioak, ordaintzeko erak...).

Zuen berrien zain.

Juantxo Elustondo
Erosketa Saila

–Eskaintza-eskaera egiteko gutuna–



RONEO S.KOOP.

Resusta kalea, z.g.

20020 Arrasate (Gipuzkoa).Tel.: 943.791010 -Faxa: 943.791011

EGUR-ZENTER S.A.

Angel Fernandez kalea, 25

12120 GASTEIZ

Arrasaten, 2001eko urriaren 3an

Jaun/andere agurgarriok:

Bulegoko altzariak eta beste zenbait artikulu egiten ditugure enpresak Espainia osorako.

Hiru materia-mota erabiltzen dugu: zura, plastikoa eta burdina. Horrexegatik interesatzen zaizkigu zuek ekoizten dituzuen zur-plantxak eta beste zenbait produktu.

Besterik gabe, zuen berrien zain gaituzue.

Adeitasunez,

Markos Aldalur
EROSKETABURUA



ESKaintza-ESKAERA	
ENPRESA EROSLEAREN IZENA	
RONEO S. KOOP. Resusta kalea, z.g. 20020 Arrasate (Gipuzkoa)	Tel.: 943.791010 Faxe: 943.791011 Saila: EROSKETA-SAILA
HORNITZAILEAREN IZENA ETA HELBIDEA: BULEGOPLUS, S.A. Danborrada kalea, 14-2. 20013 DONOSTIA	Zk.: 10100 Data: 2001eko urriaren 18a
SALGAIEN DESKRIBAPENA	
KOPURUA	PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA
200	Bulego-aulkia, BA-350
BALDINTZAK	
Entrega-epea:	Sinadura:
Berehala	
Entrega-helbidea:	
Goian aipaturiko helbidean	
Ordaintzeko era:	Sinadura:
Eskura eta esku-diruz	



1.3.2. Eskaintzak aztertzea

Eskaintzak konparatuz gero hobeto aukeratzen da hornitzailea. Horretarako, koadro edo inprimaki normalizatu bat erabili behar da. Aukeraketa-irizpide batzuen arabera agertzen da informazioa inprimaki horietan.

Prezioa da irizpide garrantzitsuenetarikoa bat, baina ez dira ahantzi behar kalitatea, zerbitzua, entrega-epea eta abar.

Askotan, enpresei interesatzen zaien eskaintza ez da merkeena izaten, baizik eta entrega-epea azkarrena edo saldu osteko zerbitzu hoberena duena.

Honako hauek izan daitezke eskaintzak baloratzeko irizpideak :

- * Prezioa (merkeena kalitate berdinekoen artean).
- * Kalitatea (laginen azterketak, fitxa teknikoak).
- * Zerbitzuaren kalitatea (laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua).
- * Entrega-epeak (entrega azkarra izatea baloratu egin behar da).
- * Beste zenbait irizpide (hornitzailearen prestigioa...).

Aukeraketarako hornitzaileari eskaera-orria bidaltzea da aukeraketa-prozesuaren azken urratsa.

Ariketa osagarria

Bulegoko aulkiak –BA-350 modeloa, 200 unitate– eskatu ditugu. Honako eskaintza hauek –ikus koadroa– jaso ditugu gure eskaeren erantzun gisara

Irizpide hauen arabera baloratzeko ditugu, eta ordena honetan:

- a) Entrega azkar egiten den
- b) Prezioa
- c) Kalitatea

Jasotako eskaintzak:

Y HORNITZAILEA	X HORNITZAILEA	Z HORNITZAILEA
Erosketa-kostua: 16.000 € Entrega-epea: 10 egun Ordaintzeko era: 60 egun Kalitatea: onargarria	Erosketa-kostua: 12.000 € Entrega-epea: 20 egun Ordaintzeko era: 30 egun Kalitatea: eskasa	Erosketa-kostua: 15.000 € Entrega-epea: 18 egun Ordaintzeko era: 30 egun Kalitatea: onargarria



HORNITZAILEAK	UNITATEAK	EROSKETA-KOSTUA	KALITATEA	ENTREGA-EPEA	ORDAINTZEKO ERA
X	200	12.000 €	Eskasa	20 egun	30 egun
Y	200	16.000 €	Onargarria	10 egun	60 egun
Z	200	15.000 €	Onargarria	18 egun	30 egun



Jardueraren azalpena:

- 1) Ordainketari dagokionez, hirurak egokitzen zaizkie jarritako baldintzei.
- 2) X hornitzaileak du prezio merkeena; aldiz, entrega-epe luzeena ere harena da, baita produktuaren kalitate eskasena ere.
- 3) Y hornitzaileak dauka entrega-epe motzena; kalitatea, berriz, onargarria; prezioa, altuena.
- 4) Z hornitzaileak entrega-epe ertaina; kalitatea, onargarria; prezioa, berriz, bitartekoa.

Hori guztia kontuan harturik, Y HORNITZAILEA da gure aukera.

1.4. HORNITZAILEEN ERREGISTROA

Komenigarria izaten da hornitzaileen erregistroa edukitzea, ohikoena bederen. Fitxa bidez egin daiteke hori: fitxa horietan hornitzaileen datuak jarri behar dira, eskaintza- eta produktu-eskaerak ahalik eta azkarren egin ahal izateko.

Erregistro hori hornitzaile bakoitzaren fitxako datuekin bete behar da: izena, helbidea, telefonoa, faxa, salmenta-baldintzak..., hornitzaileen izenen arabera sailkatuta.

Produktuen fitxa ere erabiltzen da horretarako: hornitzailearen izena jarri behar da. Kodearen edo produktu-izenaren arabera sailkatu behar dira fitxak.

IZENA: HELBIDEA: HERRIA: PROBINTZIA:	Hornitzailearen kodea:
	Tel.: Faxa:
ARTIKULUAK	
BALDINTZAK	
Deskontuak:	
Ordaintzeko era:	
Entrega-epea:	
OHARRAK:	

–Ohiko hornitzaileen fitxa–



<u>ARTIKULUA:</u>		<u>KODEA:</u>	
HORNITZAILEAK			
KODEA	IZENA		
OHARRAK:			

–Produktuaren fitxa–

Trakasteko eta ikasteko araketak

- 1) Bulegoko aulkiak (EP-210 modelo, 50 unitate) eskatu ditugu. Honako eskaintza hauek jaso ditugu gure eskaeren erantzun gisara:

X hornitzailea:

Erosketaren kostua: 1.800 €.

Entrega-epea : 30 egun

Ordaintzeko era: 60 egun

Laginen kalitatea: arrunta

Y hornitzailea:

Erosketaren kostua: 2.000 €

Entrega-epea: 18 egun

Ordaintzeko era: 30 eta 60 egun

Laginen kalitatea: ona

Z hornitzailea:

Erosketaren kostua: 1.900 €

Entrega-epea : 24 egun

Ordaintzeko era: 30 egun

Laginen kalitatea: oso ona



Aukera ezazu hornitzailea, ondoko irizpideen arabera, ordena honetan:

- Laginen kalitatea.
- Prezioa.
- Entrega-epea: berehalakoa
- Ordaintzeko era: geroratua.

- 2) Esan zer pauso eman behar diren hornitzaileak aukeratzeko (produktu berri bat erosteko, adibidez).
- 3) Bilatu ordenagailuak ekoizten edota saltzen dituzten hiru enpresaren inguruko informazioa eta egin eskaintza-eskaera bat, honako datuok jarritz:

Eskaeraren zenbakia: 12354b-89
Artikulua: ordenagailuak, 2000/HT modelo
Kantitatea: 200 unitate
Ordaintzeko era: eskura
Entrega-helbidea: gure biltegia
Entrega-epea: berehala

- 4) Zein da eskaintzaren monopolioaren eta eskariaren monopolioaren arteko diferentzia?
 - 5) Aipatu produktu jakin baten hornitzaileak bilatzeko zenbait informazio-iturri.
 - 6) Esan zein irizpide dauden hornitzaileen eskaintza bat aukeratzeko.
 - 7) Baserriko barazkiak plazako merkatuan saltzen dira. Zer merkatu-mota da, erosle- eta saltzaile-kopuruaren arabera? Eta automobil-kontzesionarioak?
 - 8) Sortu artxibo bat sei ordenagailu-hornitzaileekin. Prezioak eta erosketa-baldintzak eskatu.
 - 9) Bildu musika entzuteko CD-en inguruko informazioa zure auzoko hiru dendatan. Eskatu prezioak, deskontuak eta entrega-epeak. Datu horiekin, eskaintzak baloratu.
-



2 *Zenbait salerosketa-agiri*

2.1. ESKABIDEA

Sarrera

2.1.1. Eskabidearen definizioa

2.1.2. Eskabide-motak

2.1.3. Eskabidearen kontrola

2.2. ALBARANA (ENTREGA-ORRIA)

Sarrera

2.2.1. Garraioa

2.2.2. Salgaiekin batera doan dokumentazioa

2.2.3. Salgaiak jasotzea eta egiaztatzea

2.2.4. Sarrera-erregistroa

2.3. FAKTURA

Sarrera

2.3.1. Faktura-motak

2.3.2. Fakturak igortzea eta zaintzea

2.3.3. Fakturan egin beharreko kalkuluak

2.3.4. Fakturen zuzenketa




2.1. ESKABIDEA

SARRERA

Ondasun edo produktu jakin bat erosi behar du halako enpresak. Produktu-eskaintzak eskatu dizkie zenbait hornitzaileari eta, jaso dituenak aztertu ondoren, bere beharrei hobekien egokitzen zaizkien hornitzaileak aukeratu ditu. Beraz, eskabidea egiteko momentua heldu da.

Eskabidea gauzatzen (hainbat erataria egin daiteke, gerora ikusiko dugunez) eta saltzailearen onespina jasotzen denean, bi alde kontratatzaileek zenbait erantzukizun bereganatzen dituzte. Besteak beste, halako prezioa duten salgai jakin batzuk bi aldeek hitzartutako baldintzen arabera entregatzea.



2.1.1. Eskabidearen definizioa

Eskabidea: bezero, kontsumitzaile edo merkatariak produktu edo zerbitzu bat erosteko idatziz edo ahoz egiten duen eske-adierazpena, epe jakin batean eta aurrez finkatutako baldintzen arabera (prezioa, kalitatea...) betiere.

Erosketa Sailari dagokio eskabidea egiteko ardura. Biltegiak edo Ekoizpen Sailak egindako erosketa-eskaera bat erabiltzen da eskabidearen oinarritzat.

Erosketa Saila arduratzen da, eskabidea egiteaz gain, eskatutako salgaiak biltegian jaso arte kontrolatzeaz eta kudeatzeaz.

Eskabidea egiteko, garrantzizko salerosketa-baldintza guztiak zehatz-mehatz adierazi behar dira, inongo zalantzarik egon ez dadin: deskontuak, ordaintzeko era, entregatzeko epea eta lekua, prezioak, kopuruak, kalitatea, garraio- eta aseguru-gastuak, bilgarriak...



Era berean, ongi zehaztu behar da zein motatako produktua nahi den, ez baita gauza bera 'mailuak' eskatzea edo 'B-180 modeloko mailuak' eskatzea. 'Mailuak' besterik ez bada adierazten, baliteke nahi ez den modeloren bat jasotzea. Horrek ondorio larriak sor litzake, berriro eskatu beharko bailitzateke produktua. Halaber, hornikuntzaren atzerapena ere balekarke, baita –agian– bezeroak galtzea ere, salgaiak garaiz eta momentu egokian eskura ez izateagatik.

Gainerako baldintzak ez dira horren garrantzitsuak, baldin eta hornitzaile horrekin sarritan egiten badugu lan eta askotan eskatzen dizkiogun salgaiak badira.

2.1.2. Eskabide-motak

2.1.2.1. Baldintzatutako eskabidea eta behin betiko eskabidea

Eskabidea zein erataraino egin daitekeen ikusi aurretik, komeni da azaltzea *baldintzatutako eskabidearen* eta *behin betiko eskabidearen* arteko desberdintasuna.

Baldintzatutako eskabidea: eroslearen eta saltzailearen arteko konpromisoa egonkorra izan dadin zenbait baldintza bete behar dira. Honako kasu hauei, adibidez, *baldintzatutako eskabidea* deitzen zaie:

- Enpresa hornitzailearen saltzaileak seguru ez baldin badaki eskabidea asetzeko nahiko izakin izango duen. Horrelakoetan, erosleak baldintzatu egiten du erosketa saltzaileak izakinak egiaztatu arte: behar adina izanez gero, behin betiko eskabidea egiten du; ez badago, berriz, ezeztatu egiten du eskabidea.
- Enpresa erosleak salmentak igotzea espero badu eta, badaezpada, behar adina izakin ziurtatu nahi izanez gero, *baldintzatutako eskabidea* egin dezake: igoera hori benetan gertatzen bada, berretsi egiten du eskabidea; ez bada gertatzen, berriz, bertan behera uzten du.

Behin betiko eskabidea: normalean egin ohi dena. Eskabidea baldintzatzen duten egoera eta zehaztasun guztiak ezagunak direnean egiten da. Eroslearen eta saltzailearen arteko konpromiso tinkoa sortzen du.

2.1.2.2. Eskabidea egiteko erak

Hona hemen eskabidea egiteko ohiko erak:

- A) Eroslearen inprimakiaren bidez
- B) Merkataritza-gutunaren bidez
- C) Telefonoz
- D) Saltzailearen inprimakiaren bidez (eskabide-proposamena)

A) EROSLEAREN INPRIMAKIAREN BIDEZ

Enpresa asko hazten bada eta eskabideak sarritan egiten baditu, inprimaki jakin batzuk izaten ditu horretarako (hurrengo orriko irudiaren antzekoak).

Eskabide-inprimakiak honako datuok izan behar ditu:

- 1) Igorlea: izen-abizenak (pertsona fisikoa bada) edo enpresaren izena (pertsona juridikoa bada), helbidea, herria, posta-kodea eta IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea).
- 2) Hornitzailea: enpresa saltzailea identifikatzeko datuak. Honako hauek: izen-abizenak edo enpresa-izena, helbidea, herria, posta-kodea eta IFK.



- 3) Eskabidearen zenbakia: zenbaki korrelatiboa.
- 4) Igortze-eguna eta -lekua: eskabidea egiten den eguna, hilabetea eta urtea.
- 5) Entrega-epea: eskabidea egiten denetik salgaiak eroslearen biltegian jaso arte pasatzen den egun-kopurua.
- 6) Garraioa: salgaiak bidaltzeko erabiltzen den garraiobidea edo garraio-agentziaren izena.
- 7) Salgaien entrega-helbidea: salgaiak entregatu behar diren lekua, baliteke-eta igorlearen helbide berbera ez izatea.
- 8) Ordaintzeko era: eroslearen eta saltzailearen artean adostutako ordainketa-baldintzak.
- 9) Beste zenbait baldintza: adibidez, noren kontura izango den garraio-gastua, bilgarriak zein motatakoak diren, aseguru-gastuak eta beste zenbait.
- 10) Kodea: salgaiak identifikatzeko kode alfabetikoa edo alfanumerikoa.
- 11) Kopurua: unitate-kopurua.
- 12) Deskribapena: salgaien izenen zehaztapena.
- 13) Prezioa: unitate bakoitzeko prezioa.
- 14) Zenbatekoa: kopurua bider prezioa.
- 15) Eskabide-zenbatekoa: salgaien zenbateko guztien batura.
- 16) Sinadura: enpresa eroslearen Erosketa Saileko arduradunarena edo eskabide-arduradunarena.



(1)	ESKABIDE-ZK.: (3)															
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="padding: 5px;">Entrega-epea: (5)</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">Garraioa: (6)</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">Entrega-helbidea: (7)</td> </tr> </table>	Entrega-epea: (5)	Garraioa: (6)	Entrega-helbidea: (7)	<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="padding: 5px;"> HORNITZAILEA (2) </td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;"> IFK </td> </tr> </table>	HORNITZAILEA (2)	IFK										
Entrega-epea: (5)																
Garraioa: (6)																
Entrega-helbidea: (7)																
HORNITZAILEA (2)																
IFK																
DATA.....(4).....																
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse; text-align: center;"> <thead> <tr style="background-color: #cccccc;"> <th style="width: 15%;">KODEA</th> <th style="width: 15%;">KOPURUA</th> <th style="width: 40%;">DESKRIBAPENA</th> <th style="width: 15%;">PREZIOA</th> <th style="width: 15%;">ZENBATEKOA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr style="height: 150px;"> <td style="vertical-align: middle;">(10)</td> <td style="vertical-align: middle;">(11)</td> <td style="vertical-align: middle;">(12)</td> <td style="vertical-align: middle;">(13)</td> <td style="vertical-align: middle;">(14)</td> </tr> <tr> <td colspan="4" style="text-align: right; padding-right: 20px;">ESKABIDE-ZENBATEKOA</td> <td style="vertical-align: middle;">(15)</td> </tr> </tbody> </table>		KODEA	KOPURUA	DESKRIBAPENA	PREZIOA	ZENBATEKOA	(10)	(11)	(12)	(13)	(14)	ESKABIDE-ZENBATEKOA				(15)
KODEA	KOPURUA	DESKRIBAPENA	PREZIOA	ZENBATEKOA												
(10)	(11)	(12)	(13)	(14)												
ESKABIDE-ZENBATEKOA				(15)												
ORDAINTZEKO ERA: (8)																
BESTE ZENBAIT BALDINTZA: (9)																
Sinadura: (16)																



Atriketa

CONFECCIONES DEL NORTE, S.A.

Kale Nagusia, 10
LASARTE

IFK: 45/382143-A

ESKABIDE-ZK.: 01

Entrega-epea:

berehala

Garraioa:

PESA garraioak. 30 €

Entrega-helbidea:

Kale Nagusia, 10

HORNITZAILEA

PANTEXTIL, S.L.

Puig kalea, z.g.
TERRASSA

IFK: 48/324020-A

DATA...2002ko urtarrilaren 2a.....

KODEA	KOPURUA	DESKRIBAPENA	PREZIOA	ZENBATEKOA
	500 m	Koadrodun oihala	3,6 €	1.800 €
	300 m	Loredun oihala	4,5 €	1.350 €
	600 m	Oihal gorria	5 €	3.000 €
	750 m	Oihal beltza	3,2 €	2.400 €
ESKABIDEAREN ZENBATEKOA				8.550 €

ORDAINTZEKO ERA: 90 egun barru

BESTE ZENBAIT BALDINTZA: merkataritza- deskontua: % 5

Sinadura:



B) MERKATARITZA-GUTUNAREN BIDEZ

Gehienetan aipatu eskabide-inprimakia erabiltzen bada ere, batzuetan merkataritza-gutuna ere erabili ohi da.

Bigarren aukera hautatuz gero, kontuan izan merkataritza-gutunak ere inprimakian ageri diren datu guztiak jarri behar dituela.

Eskabide-gutunak arreta handiz idatzi behar dira, nahasketak eta interpretazio ezegokiak saihesteko, idazten duen une beretik ari baita konpromisoa hartzen eroslea.

Eskabide-gutun bat idazteko kontuan izan beharreko lehenengo gauza honakoa da: sarrera edo hitzaurre egokia asmatzea.

Tankera honetako esaldiak erabili behar dira sarrera gisa:

“Gure izakinak berritu beharra daukagunez, honako produktuok bidaltzea eskertuko genizuke”:

“Eskertuko nizuke honako produktuok ahalik eta azkarren bidaliko bazenizkit”:

“Maiatzaren 20ko zuen eskaintza aztertu ondoren, honako eskabidea egitea erabaki dugu”:

“Maiatzaren 20ko zuen eskaintza oso interesgarria iruditu zaigunez, atseginez egiten dizuegu honako eskabidea”:

Ondoren, eskabidea zertan datzan adierazi behar da zehatz-mehatz: salgaiei buruzko azalpen guztiak (kopurua, salgaien deskribapena, prezioa...) eta salmenta-baldintzak (entrega-epea, garraibidea, deskontuak, ordaintzeko era,...).

Bukatzeko, agurra idatzi behar da. Hona hemen adibide batzuk:

“Zure bidalketaren zain gaituzu; adeitasunez”.

“Zure arreta eskertzen dugu. Har ezazu agur bero bat”.

“Zuen onespeneraren zain gaituzue. Adeitasun osoz agurtzen zaituztegu”.

“Ziur gara adostutako baldintzetan jasoko ditugula produktuak. Bide batez, har ezazue gure agurrik beroena”.



Ariketa

TEXTILES GOITI, S.A.

KALE NAGUSIA, 25-26
----- 20560 OÑATI-----

ALMACENES CUESTA

Urbietakalea, 35
DONOSTIA

Oñatin, 2002ko urtarrilaren 2an

Jaun/andere agurgarriok:

Gure izakinak berritu beharrean garenaz, honako salgaiok ahalik eta azkarren bidaltzea eskertuko genizueke:

500 m oihal gorri, ZG-208,..... 1,5 €/unitatea

1000 m loredun oihal, LE-400,..... 2,4 €/unitatea

1000 m koadrodun oihal, KO-300,..... 2,1 €/unitatea

BALDINTZAK: Garraio-gastua, zeuen kargu. Azkar enpresak egingo du garraioa. Entrega orri honen goialdean ageri den helbidean egin behar da.

ENTREGA-EPEA: 10 egun

ORDAINKETA: eskura; deskontua, % 2

Zuen berrien zain gaituzue. Har ezazue gure agurrik beroena.


Adeitasunez,

Izpta.: Andoni Oiarbide

EROSKETABURUA



C) TELEFONOAREN, FAXAREN EDO POSTA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ



Gerta liteke salgaiak berritzeko premia handia izatea. Horrelakoetan telefonoa eta posta elektronikoa dira eskabidea egiteko biderik azkarrenak. Dena den, ez ahaztu idatziz ere jaso behar dela eskabidea; beraz, lasaiago ibiltzeko modua dagoenean gutuna edo inprimakia erabili behar dira.

Enpresa ia guztiek daukate gaur egun faxa eta posta elektronikoa. Baliabide azkarrak izateaz gain "idatziz jasota geratu behar" hori ere bete egiten dute, aldi berean. Kasu horietan, inprimakia bete edo gutuna idatzi eta faxaren nahiz posta elektronikoaren bidez bidali behar dira.

D) SALTZAILEAREN INPRIMAKIAREN BIDEZ: ESKABIDE-PROPOSAMENA.

Zenbait enpresak salmenta-ordezkarien bidez egiten dituzte salmentak. Horretarako, eskabide-inprimakien taloitegi bat izaten dute ordezkariak, bezeroen eskaerak hor jasotzeko.

'Eskabide-proposamena' deitzen zaie inprimaki horiei. Izenak berak adierazten duenez, horrela egindako eskabideak ez dira behin betikotzat jotzen harik eta hornitzaileak onartu arte.

Bezerotzat txikizkako establezimenduak dituzten enpresek erabiltzen dute batik bat salmenta-mota hori.

Eskabide-proposamenaren edukia eskabide arruntarenaren antzekoa da. Desberdintasun bakarra: salmenta-ordezkariaren izena ere agertzen dela.

Eskabide-proposamenak hiru aletan egin behar dira: eroslearentzat bat, eta bana enpresa saltzailearentzat eta salmenta-ordezkariarentzat. Jatorrizkoa, erosleak sinaturikoa, da saltzaileari bidali beharrekoa.



	ESKABIDE-ZK.:										
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="padding: 2px;">Entrega-epea:</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">Garraioa:</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">Entrega-helbidea:</td> </tr> </table>	Entrega-epea:	Garraioa:	Entrega-helbidea:	<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="padding: 2px;">HORNITZAILEA</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px; height: 40px;">IFK</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">Salmenta-ordezkarria:</td> </tr> </table>	HORNITZAILEA	IFK	Salmenta-ordezkarria:				
Entrega-epea:											
Garraioa:											
Entrega-helbidea:											
HORNITZAILEA											
IFK											
Salmenta-ordezkarria:											
DATA.....											
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #cccccc;"> <th style="width: 10%;">KODEA</th> <th style="width: 10%;">KOPURUA</th> <th style="width: 40%;">DESKRIBAPENA</th> <th style="width: 15%;">PREZIOA</th> <th style="width: 25%;">ZENBATEKOA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="height: 150px;"></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>		KODEA	KOPURUA	DESKRIBAPENA	PREZIOA	ZENBATEKOA					
KODEA	KOPURUA	DESKRIBAPENA	PREZIOA	ZENBATEKOA							
ESKABIDEAREN ZENBATEKOA											
ORDAINTZEKO ERA: BESTE ZENBAIT BALDINTZA: Sinadura:											



2.1.3. Eskabidearen kontrola

Eskabidea igorri eta merkantziak biltegian jaso bitartean jarraipena egin behar zaio eskabideari, batez ere entrega-epeak kontrolatu ahal izateko. Ez da ahanzi behar, noski, kalitatea, kopurua, prezioa eta abar ere kontrolatzea.

Komenigarria litzateke, entrega-epeak kontrolpean izateko, honako inprimaki honen antzekoren bat izatea:

IGORPEN-DATA	ESKABIDE-ZK.	HORNITZAILEAREN IFK	HORNITZAILEA	TELEFONO-ZK.	ESKABIDEAREN ZENBAT.	ENTREGA-EPEA	JASOTZE-DATA
(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)

- (1) Igorpen-data: eskabidea egin zen eguna, hilabetea eta urtea.
- (2) Eskabide-zenbakia: eskabideari atxikitako zenbaki korrelatiboa.
- (3) Hornitzailearen IFK edo, ahal bada, hornitzailea identifikatzeko sortutako kode informatikoa.
- (4) Hornitzailearen izena edo enpresa-izena
- (5) Telefono-zenbakia: hornitzailearena.
- (6) Eskabidearen zenbatekoa
- (7) Entrega-epea: salgaiak entregatzeko adostutako epea edo eguna.
- (8) Jasotze-data: salgaiak biltegira heltzen diren eguna.

Horrelako kontrol-inprimakien bidez jakin daiteke entrega-epeak betetzen diren ala ez, entrega-eguna eta jasotze-eguna elkarrekin konparatuta. Beteko ez balira, erreklamazioa egin daiteke, edo hurrengo eskabidea egiteko kontuan hartu. Beste hau ere gerta liteke: hornitzailearen bati gehiago ez erostea, sarritan epeak ez dituelako betetzen.



Trakasteko eta ikasteko ariketak

- 1) Enpresa eroslea: LINPEC, S.A. - (Tarrasa kalea, z/g.) MADRIL - IFK: 28/457629-AB

Enpresa saltzailea: SAN VICENTE DEL RASPEIG – Carretera de Agost, km 1,5
ALACANT – IFK: 33/258431-A

Eskaera: 2001eko abenduaren 13an egin zen, 408. zenbakia zuelarik.

Eskatutakoa: 1.500 kg hur	5,0 €/kg
2.000 kg intxaur	1,5 €/kg
5.000 kg azukre	0,4 €/kg

Baldintzak:

Deskontua: % 6
Ordaintzeko era: erdia taloi baten bidez eta gainerakoa 60 egun barru
Entrega-epea: 10 egun
Garraioa: LINPECen kontura. Enpresa: PESA. Kostua: 360 €

- 2) Enpresa eroslea: INDUSTRIAS MECÁNICAS, S.A. – Nafarroa Hiribidea, 64-
EIBAR – IFK: 38/082409-A

A enpresa saltzailea: BERGARA TAILERRAK, EM – Bidebieta kalea, 14 -
DONOSTIA – IFK: 40/382451-B

Eskaera-data: 2002ko urtarrilaren 5a. Zk.: 1008-A

Eskatutakoa: 500 pedal	1,8 €/unitate
750 aihotz	1,2 €/unitate

Baldintzak:

Deskontua: berehala ordaintzeagatik, 50 €
Ordaintzeko era: eskura eta esku-dirutan
Entrega-epea: berehala
Garraioa: BERGARA TAILERRAKen kontura. Enpresa: AZKAR. Kostua: 120 €

B enpresa saltzailea: INDUSTRIAS PASCUAL – Salaberria kalea, 2 – HERNANI –
IFK: 40/020891-B

Eskaera-data: 2002ko urtarrilaren 10a. Zk: 1009-A

Eskatutakoa: 500 kate	1,2 €/unitate
1.500 gurpil	3,6 €/unitate

Baldintzak:

Deskontua: ez dago
Ordaintzeko era: taloi zeharkatu baten bidez.
Entrega-epea: berehala
Garraioa: INDUSTRIAS MECÁNICAS, S.A.ren kontura. Kostua: 360 €. Ordainduta.




2.2. ALBARANA (ENTREGA-ORRIA)

SARRERA

Erosleak igorritako eskabidea jasotzen duenean, eskatutako salgaiak bidali egin behar ditu hornitzaileak. Enpresaren garraibide propioak erabil ditzake horretarako, edo beste garraibideren batez baliatu (garraio-enpresaren baten zerbitzuak kontratatu, adibidez).

Hori dela-eta, erabaki beharra dauka zein den garraibide egokiena, hainbat faktore kontuan hartuta: kostua, azkartasuna... Eroslearekin ados jarri beharra dauka hornitzaileak gai horri dagokionez.

Erosleak salgaiak jaso ondoren eta biltegira sartu aurretik begiratu egin behar du eskatutakoa eta jasotakoa bat datozen eta guztia egoera onean iritsi den. Dena ongi badago, dagokion dokumentazioa bete behar du. Bestela, erreklamazioa egin behar du.



2.2.1. Garraioa

Garraibideren bat behar du hornitzaileak bere fabrika edo biltegitik eroslearen biltegira salgaiak bidaltzeko, lehendik ere esan dugunez.

Salgaiak bidaltzeko bi modu daude:

- Enpresako bertako garraibideen bitartez. Sistema hau aukeratuz gero, salgaiek egin beharreko ibilbidea erabaki behar da, baita bidalketa antolatu eta zuzendu ere.



- b) Enpresaz kanpoko garraio-enpresen bitartez, garraio-enpresaren baten zerbitzuak kontratatuta. Horretarako, zein garraio-enpresa kontratatu erabaki behar du lehenbizi; honako bi pausook emanaz:

1. Garraio-mota aukeratzea.
2. Eskaintzak aztertu eta aukera egitea.

Garraio-mota aukeratzeko zenbait irizpide hartu behar da kontuan: azkartasuna, kostua, produktuaren ezaugarriak eta norakoa.

Irizpideak Garraio-mota	AZKARTASUNA	KOSTUA	PRODUKTUEN EZAUGARRIAK	NORAKOA
ERREPIDEA	Azkarra	Garestia	Balio txikikoak	Mugagabea
TRENBIDEA	Hala-holakoa	Tartekoa	Tamaina eta kopuru handiko salgaiak	Asko
ITSAS GARRAIOA	Motela	Merkea	Balio eta tamaina txikiko salgaiak	Gutxi
AIRE-GARRAIOA	Oso azkarra	Oso garestia	Balio handiko salgai galkorrak	Gutxi

Horietaz gain, badaude pakete txikien bidalketa azkarrean espezializatutako garraio-enpresak ere: Postal-expres, SEUR,...

Garraio-kontratua GARRAIO-GUTUNAren bitartez gauzatzen da (itsas garraioari dagokionez, *ontziratze-kontratua* deritzo). Kontratuan esku hartzen duten hiru aldeak agertzen dira garraio-gutunean:

1. Igorlea (bidaltzailea): garraiolariak kontratatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, salgaiak entregatzen dituen garraia ditzaten.
2. Garraiolaria: garraiatze-lana bere gain hartzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa.
3. Jasotzailea: haren izenean jarrita daude salgaiak eta hari entregatu behar dizkio garraiolariak, adostutako helbidean eta epean.



(GARRAIO-ENPRESAREN IDAZPURUA)			
IGORLEA:..... Helbidea:..... Herria:PK:..... Probintzia:..... IFK:.....		JASOTZAILEA:..... Helbidea:..... Herria:PK:..... Probintzia:..... IFK:.....	
FARDEL KOPURUA	SALGAIEEN DESKRIBAPENA	PISUA (kg)	BOLUMENA (m ³)
FAKTURATZEKO KONTZEPTUAK		ZENBATEKOA	ORDAINTZEKO ERA
Garraioa..... Aseguruak..... Beste zenbait gastu..... GARRAIOA GUZTIRA..... Deskontuak..... BEZa..... GUZTIRA			
BIDALTZE-DATA: Igorlearen sinadura:		JASOTZE-DATA: Jasotzailearen sinadura:	

2.2.2. Salgaiekin batera doan dokumentazioa

2.2.2.1. Albarana edo entrega-orria

Albarana: saltzaileak egiten duen inprimaki bat. Bidaltzen diren salgaien zerrenda eta deskribapena egiten du eta horiekin batera bidaltzen da, garraiolariaren bitartez.



Ez da nahitaez egin beharreko inprimakia, baina gehienetan erabiltzen da, salgaiak jaso direlako frogagiri gisa balio baitu.

(1)											
Ordezkarria:(3)..... Garraioa:(4)..... Fardel-kopurua:(5)..... Entrega-helbidea:(6).....	(2)										
Albaran-zk.: (7) Eskabide-zk.: (8) Garraiobidea: (9)											
Data:(10).....											
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #cccccc;"> <th style="width: 15%;">Kodea</th> <th style="width: 15%;">Kopurua</th> <th style="width: 40%;">Deskribapena</th> <th style="width: 15%;">Prezioa</th> <th style="width: 15%;">Zenbatekoa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center; height: 150px; vertical-align: middle;"> (11) </td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;"> (12) </td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;"> (13) </td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;"> (14) </td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;"> (15) </td> </tr> </tbody> </table>	Kodea	Kopurua	Deskribapena	Prezioa	Zenbatekoa	(11)	(12)	(13)	(14)	(15)	
Kodea	Kopurua	Deskribapena	Prezioa	Zenbatekoa							
(11)	(12)	(13)	(14)	(15)							
BEZEROAREN SINADURA:(16).....											


Hona hemen albaranean agertu behar duten datuak:

- (1) Enpresa saltzailearen datuak: izena, helbidea, telefono-zenbakia...
- (2) Enpresa eroslearen datuak: izena, helbidea...
- (3) Salerosketa salmenta-ordezkarri baten bitartez egiten bada, bere izena ere ipini behar da.



- (4) Salgaien ordainketari buruzko argibidea (*ordainduta* edo *ordaintzeko* dagoen, alegia).
- (5) Zenbat fardel dituen bidalketak.
- (6) Entrega-helbidea, eroslearen helbide berbera ez bada.
- (7) Albaran-zenbakia.
- (8) Albaranari dagokion eskabidearen zenbakia, edo eskabide-gutunaren data.
- (9) Garraio-enpresaren izena.
- (10) Dokumentuaren igortze-data.
- (11) Salgaien erreferentzia-kodeak.
- (12) Salgai bakoitzaren kopurua.
- (13) Salgaien deskribapena.
- (14) Unitate bakoitzeko prezioa.
- (15) Zenbatekoa.
- (16) Bezeroaren sinadura eta enpresa-zigilua.

Albaranaren lau inprimaki bete behar dira: jatorrizkoa eta 3 kopia. Horietako bakoitzak jasotzaile bat du:



Hornitzaileak bezeroari bidali behar dizkio jatorrizkoa eta kopia (2), salgaiekin batera. Bezeroak gorde egin behar du jatorrizkoa; kopia (2), berriz, hornitzaileari bueltatu behar dio, sinatu ondoren.

Kopia (3) Salmenta Sailari igorri behar zaio, zuzenean, faktura presta dezan.

Kopia (4) biltegiara bidali behar da, salgaiak biltegitik atera direlako frogagiri gisa.



Ariketa

PANTEXTIL, S.L.

Puig kalea, z.g
TERRASSA

IFK: 48/3240320-A

Garraioa:.....ordainduta.....**Fardel-kopurua:**.....**Entrega-helbidea:**...Kale Nagusia, 10.....
.....

CONFECCIONES DEL NORTE, S.A

Kale Nagusia, 10
LASARTE

IFK:45/382143

Albaran-zk.: 302 **Eskabide-zk.:** 01 **Garraioidea:** PESA garraioak**Data:**.....2002ko urtarilaren 4a.....

Kodea	Kopurua	Deskribapena	Prezioa	Zenbatekoa
	500 m	Koadrodun oihala	3,6 euro	1.800 euro
	300 m	Loredun oihala	4,5 euro	1.350 euro
	600 m	Oihal gorria	5 euro	3.000 euro
	750 m	Oihal beltza	3,2 euro	2.400 euro
		OHARRA: 650 m oihal beltz besterik ez da jaso; beraz, 100 m falta dira.		

BEZEROAREN SINADURA:.....

2.2.2.2. Albaran-motak

Bi motatako albaranak daude, faktura egiteko momentuaren arabera sailkatuta:

- a) Albaran balioztatuak: prezioak, deskontuak, zergak eta zenbatekoak adierazi eta kalkulatzeko.
- b) Balioztatu gabeko albaranak: horietan ez da kalkulurik egiten; salgaien kopurua eta deskribapena azaltzen da bakarrik.

Lehenengoak –albaran balioztatuak– faktura berehala egiten ez denean erabiltzen dira. Enpresa saltzailearen eta eroslearen arteko eragiketak oso ugariak baldin badira egin behar dira. Izan ere, salerosketa bakoitzeko faktura bat egin beharrean adostutako epe jakin batean 'errepaso faktura' deritzona igortzen da horrelakoetan. Faktura horrek jartzen duen epean bidalitako albaran guztiak zerrendatu eta guztien batura kalkulatu behar da.

Bigarrengoei dagokienez (balioztatu gabeko albaranei), berriz, ez da inongo kalkulurik egin behar, salerosketa bakoitzeko faktura bat igortzen baita. Faktura horretan kalkulitzen dira deskontuak, gastuak, zergak eta zenbatekoak.

2.2.3. Salgaiak jasotzea eta egiaztatzea

Salgaiak jasotzen dituenengan, bezeroak hartu eta, ondoren, egiaztatu egin behar ditu.

Hainbat alorretan egin beharrekoa da egiaztatze hori:

- a) Albarana eta eskabidea elkarrekin konparatu behar dira, ea biak bat datozen.
- b) Salgaiak deskargatzean, begiratu egin behar da ea jasotakoa eta albaranean zerrendatutakoa bat datozen (kopuruak, salgai-motak, neurriak...)
- c) Jasotako salgaiak zein egoeratan dauden begiratu egin behar da, akats, kalte, haustura edo matxurarik ba ote duten jakiteko.

Eskabideen kontrol-erregistroa eskuan dela, entrega-epea bete den ere begiratu behar da.

Prozesu horren ondoren, bi aukera ditu bezeroak:

- 1) Guztia ongi badago: salgaiak onartu eta adostasuna adierazteko albarana sinatu. Albaran sinatu hori hornitzaileari bueltatu behar zaio.
- 2) Zerbait ongi ez badago (salgaiak egoera kaskarrean badaude, salgai batzuk falta badira...): irregularitasunaren zergatiaren arabera erabaki behar da salgaiak onartu edo ez.
 - a) Salgaiak onartu eta albarana sinatu, desadostasunaren eta horren zergatiaren berri emanez.
 - b) Salgaiak ez onartu eta bueltatu.

Kasu batean zein bestean gertatutakoaren berri eman behar die jasotzaileak Erosketa eta Kontabilitate Saili, horiek dagozkien erreklamazio eta gestioak egin ditzaten.

2.2.4. Sarrera-erregistroa

Salgaiak jaso eta dagozkien ikuskapen kuantitatibo zein kualitatiboak egin ondoren, *sarrera-orria* izeneko agiria bete behar da. Jasotakoaren berri ematen du orri horrek.

Arreta handiz bete behar da inprimaki hori, horren bitartez jakiten baita entrega-epeak bete diren eta inongo arazorik (hausturak, akatsak, kalteak...) gertatu den. Hori eginez gero errazagoa izaten da erreklamazio egokia egitea.

Sarrera-orrian agertu beharreko datuak:

- Jasotako salgaien deskribapena
- Dagokien eskabidearen erreferentzia
- Egiaztatze-prozesuaren emaitza
- Beste zenbait datu: hornitzailearen eta jasotzailearen izenak, jasotze-data, garraiolariaren izena...

(ENPRESA EROSLEAREN IDAZPURUA)				
Orriaren zk.	Data	Eskabide-zk.	Albaran-zk.	Fardel-kopurua
HORNITZAILEAREN DATUAK:		GARRAIOLARIAREN DATUAK:		
Izena:.....		Izena:.....		
Helbidea.....		Helbidea.....		
Herria.....		Herria.....		
Probintzia.....		Probintzia.....		
KODEA	KOPURUA	SALGAIEN DESKRIBAPENA		
OHARRAK:			Jasotzailearen sinadura:	



Ariketa

CONFECCIONES DEL NORTE S.A.k eskatutako 750 metro oihal beltzetik 100 metro falta direla ohartu da biltegizaina produktua deskargatu eta ikuskatu duenean. Horren berri jakinarazi egin zaio hornitzaileari, itzuli zaion sinatutako albaranean.

Sarrera-erregistroan honako idazpena egin behar da:

CONFECCIONES DEL NORTE, S.A. Kale Nagusia, 10 LASARTE				
Orriaren-zk. 1	Data 2002/01/09	Eskabide-zk. 01	Albaran-zk. 302	Fardel-kopurua
HORNITZAILEAREN DATUAK:		GARRAIOLARIAREN DATUAK:		
Izena: PANTEXTIL, S.L.....		Izena: PESA garraioak.....		
Helbidea: Puig kalea, z.g.....		Helbidea: 27 industrialdea		
Herria: TERRASSA.....		Herria: DONOSTIA.....		
Probintzia:		Probintzia: Gipuzkoa.....		
KODEA	KOPURUA	SALGAIEEN DESKRIBAPENA		
	500 m 300 m 600 m 650 m	Koadrodun oihala Loredun oihala Oihal gorria Oihal beltza		
OHARRAK: 100 m oihal beltz falta dira. Gainerakoa ongi dago. Albarana sinatuta dago, baina Erosketa Sailak erreklamazioa egin behar du. Aipatutako sailari kopia bat pasatuko diogu, erreklamazioa egin dezan.				Jasotzailearen sinadura:

Hori dela-eta Erosketa Sailak honako erreklamazio-gutuna idatzi behar dio PANTEXTIL, S.L.ri jarraian duzuen orrian:



CONFECCIONES DEL NORTE, S.A.
KALE NAGUSIA 10
LASARTE

Albaran-zk.: 302
Eskabide-zk.: 01
Eskabide-data: 2002ko urtarrilaren 2a

PANTEXTIL, S.L.
Puig kalea, z.g.

TERRASSA

Lasarten, 2002ko urtarrilaren 9an

Jaun/andere agurgarriok:

Jaso berria dugu goian aipatutako bidalketa, zuen 302 albaranarekin batera.

Dagokion sarrera-kontrola egitean, eskatutako 750 metro oihal beltzetik 100 metro falta direla ohartu gara: 650 m besterik ez dugu jaso.

Hori dela-eta, falta diren salgaiak ahalik eta azkarren bidaltzea eskatzen dizuegu, premia larrian baikaude. Garraioa ohiko agentziak egingo du, zuen kontura.

Zuen berrien zain, agur t'erdi

Izpta.: Endika Berakoetxea
EROSKETABURUA



Trakasteko eta ikasteko ariketak

- 1) SAN VICENTE DEL RASPEIG (Carretera de Agost, km 1,5.- Alicante – IFK:33/258431-A) enpresak LINPEC, S.A. enpresari (C/Tarrasa s/n. – Madrid. IFK: 28/457629-AB) bidali dizkio honek abenduaren 13an (408 zenbakiaz) eskatutako salgaiak (ikus 11. orrialdea).

Eskatutakoa:

1.500 kg hur	5,0 €/kg
2.000 kg intxaur	1,5 €/kg
5.000 kg azukre	0,4 €/kg

Baldintzak:

Merkataritza-deskontua: % 6
Ordaintzeko era: erdia taloi bidez eta gainerakoa 60 egun barru
Entrega-epea: 10 egun
Garraioa: LINPECen kontura. Enpresa: PESA. Kostua: 360 €

Bete ezazu albarana abenduaren 23ko dataz. Albaran-zk.: 205B.

- 2) BERGARA TAILERRAK, EM (Bidebieta kalea, 14 – DONOSTIA- IFK: 40/382451-B) enpresak INDUSTRIAS MECÁNICAS, S.A.ri (Nafarroa hiribidea, 64 – Eibar – IFK: 38/082409-A) 2002ko urtarrilaren 5ean (1008-A zenbakia)z egindako eskabidean eskatutako salgaiak bidali dizkio (ikus 11. orrialdea).

Eskatutakoa:

500 pedal	1,8 €/u.
750 aihotz	1,2 €/u.

Baldintzak:

Deskontua: berehala ordaintzeagatik, 50 €
Entrega-epea: berehala
Ordaintzeko era: eskura eta esku-diruz
Garraioa: Bergara Tailerrak-en kontura. Enpresa: AZKAR. Kostua: 120 €

Bete ezazu albarana urtarrilaren 8ko dataz. Albaran-zk.: 510

Bete ezazu garraio-gutuna ere, ondorengo datuak kontuan hartuta:

AZKAR garraio-enpresaren helbidea: Hernaniko errepidea, z.g. –ERGOBIA-
Garraio-gastua: 100 €, eta 3,4 € -ko beste zenbait gastu. Guztira, BEZa barne: 120 €.
Bidaltze-data: urtarrilaren 8a
Jasotze-data: urtarrilaren 8a

- 3) INDUSTRIAS PASCUAL-ek (Sedoberria kalea, 2 – HERNANI – IFK: 40/020891-B) INDUSTRIAS MECÁNICAS S.A.ri honek eskatutako salgaiak bidali dizkio, albaranarekin batera (eskabide zk.: 1009-A; eskabide-data: 2002ko urtarrilaren 10a).

Eskatutakoa:

500 kate	1,2 €/u
1.500 gurpil	3,6 €/u

Baldintzak:

Entrega-epea: berehala
Ordaintzeko era: taloi zeharkatu baten bidez
Garraioa: Industrias Mecánicas-en kontura. Kostua: 360 €. Ordainduta.



Bete ezazu albarana: urtarilaren 13ko dataz. Albaran-zk.: 1010A

Gurpiletatik 500 akastunak direla ohartu da biltegizaina sarrera-kontrola egiten ari zela; beraz, gurpil guztiak itzultzea erabaki du. Albaranean jakinarazi zaio hornitzaileari gertatutakoaren berri, eta sarrera-erregistroan ere idatzi da. Horren kopia bat Erosketa Sailera bidali da, horrek erreklamazioa egin dezan.


Idatz ezazu gertatutakoaren berri albaranean eta sarrera-erregistroan; ondoren, erreklamazio-gutuna idatzi. Urtarrilaren 13an bertan egin behar da hori guztia.

2.3. FAKTURA

SARRERA

Faktura da salerosketa-inprimaki garrantzitsuenak.

Ondasun edo zerbitzuren bat erosten denean faktura (edo horren ordezkotako inprimaki bat) eman ohi diote bezeroari, erosketaren legezkotako frogagiri gisara. Behar izanez gero, erreklamazioa egiteko aukera ematen du fakturak.



Nahitaez igorri behar dute faktura ondasunak edo zerbitzuak entregatzen dituzten enpresaburuek edo profesionalek.

Eragiketa bakoitzeko faktura bana igor behar da, nahiz eta bezero bakar batekin hilabeteko epean egindako eragiketa guztiak faktura bakar batean jaso ahal izan.

Bidaltzen dituzten faktura guztien kopia bana gorde beharra daukate enpresaburu edo profesionalek.



Dena den, zenbait eragiketak ez du faktura osorik behar. Honako hauek, adibidez:

- a) Baliokidetasun-gainordaineko erregimenaren barnean dauden enpresaburu edo profesionalek egindakoak.
- b) BEZa ordaintzetik salbuetsita dauden eragiketek, osasun-zerbitzu edo ondasun-entregak izan ezik.
- c) Bidesaripeko autopistak erabiltzeak.
- d) Zerga-administrazioak baimendutakoak.

Nolanahi dela ere, eragiketaren hartzaileak eskatuz gero nahitaez igorri behar da faktura osoa, baita aipatu berri ditugun kasuetan ere.

2.3.1. Faktura-motak

Hiru faktura-mota bereizten dira, bakoitzak bete beharreko baldintzen arabera sailkatuta: faktura osoa, faktura sinplifikatua eta fakturen ordezkoko dokumentuak.

OSOA

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1. Zenbaki korrelatiboa
2. Igorlearen izen-abizenak edo enpresa-izena, helbidea eta IFK.
3. Hartzailearen izen-abizenak edo enpresa-izena, helbidea eta IFK.
4. Fakturaren zergatia diren ondasun edota zerbitzuen deskribapena.
5. Eragiketaren zenbateko osoa eta BEZaren zerga-oinarria kalkulatzeko behar diren datu guztiak.
6. BEZaren ehunekoa eta zenbatekoa.
7. Igortze-data eta lekua.
8. Elkartea izanez gero, merkataritza-eroldako izen-ematearen datuak.

NOIZ IGORRI

Fakturaren hartzailea, jasandako BEZaren kenketa egiten duen eta bere jardueran diharduen enpresaburu edo profesionala bada.

SINPLIFIKATUA

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hartzailearen datuek ez daukate nahitaez fakturan azaldu beharrik.

NOIZ IGORRI

- a) Zenbatekoa 15.000 pezetatik gorakoa ez bada, ezta hartzailea enpresaburua edo profesionala ere.
- b) Zenbatekoa 15.000 pezetatik gorakoa izan arren honako eragiketa hauetakoren bat bada:
 - Pertsonen eta horien ekipajeen garraioa.
 - Ostalaritza- edo sukaldaritza-zerbitzuak.
 - Ibilgailuentzako aparkalekuak.
 - Txikizkako salmentak.
 - Ikuskizun publikoak.
 - Olgetarako ekintzak.
 - Telefono-zerbitzuak.
- c) BEZaren kuota prezioaren barruan sartzen bada, 'BEZa barne' diola eta zerga horren ehunekoa jarrita.



**FAKTURAREN
ORDEZKO
AGIRIA**

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1. Zenbaki korrelatiboa.
2. Saltzailearen IFK.
3. 'BEZa barne' adierazpenari dagokion ehunekoa.
4. Zenbateko osoa.

NOIZ IGORRI

Hartzailea ez baldin bada jasandako BEZaren dedukzioa egin dezakeen enpresaburu edo profesionala, zenbatekoa ez bada 500.000 pezetatik gorakoa eta eragiketa hauetakoren bat bada:

- a) Txikizkako salmentak, fabrikatzaileak berak egindakoak badira ere.
- b) Saltzaile ibiltarien salmentak
- c) Etxez etxeko salmentak edo zerbitzuak.
- d) Pertsonen garraioa.
- e) Taberna eta jatetxeetan emandako janari edo edariak.
- f) Zerga-administrazioak baimendutako guztiak.



(2) IFK:	FAKTURA-ZK.: (1)																																																					
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr><td style="padding: 2px 5px;">Eskabide-zk.:</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">Albaran-zk.:</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">Garraioa: (8)</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">Ordaintzeko era: (8)</td></tr> </table>	Eskabide-zk.:	Albaran-zk.:	Garraioa: (8)	Ordaintzeko era: (8)	(3) IFK:																																																	
Eskabide-zk.:																																																						
Albaran-zk.:																																																						
Garraioa: (8)																																																						
Ordaintzeko era: (8)																																																						
Data: (4)																																																						
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #cccccc;"> <th style="width: 8%;">Kodea</th> <th style="width: 10%;">Kopurua</th> <th style="width: 20%;">Deskribapena</th> <th style="width: 10%;">Prezioa</th> <th style="width: 8%;">BEZ %</th> <th style="width: 8%;">BG %</th> <th style="width: 12%;">Zenbatekoa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center; height: 150px; vertical-align: middle;">(5)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(5)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(5)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(5)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(5)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(5)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(5)</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">BEZ BG</td> <td style="text-align: center;">% (6)</td> <td style="text-align: center;">%</td> <td style="text-align: center;">%</td> <td style="text-align: center;">%</td> <td style="text-align: center;">%</td> <td></td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">Zerga- -oinarria</td> <td style="text-align: center;">(6)</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">Zerga- -oinarria</td> <td style="text-align: center;">(6)</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td colspan="6" style="padding: 5px;"> OHARRAK: </td> <td rowspan="2" style="text-align: center; vertical-align: middle; font-weight: bold;">(7)</td> </tr> <tr> <td colspan="6" style="padding: 5px;"> FAKTURA GUZTIRA MERKATARITZA-ERROLDAKO ZK. (9) </td> </tr> </tbody> </table>							Kodea	Kopurua	Deskribapena	Prezioa	BEZ %	BG %	Zenbatekoa	(5)	(5)	(5)	(5)	(5)	(5)	(5)	BEZ BG	% (6)	%	%	%	%		Zerga- -oinarria	(6)						Zerga- -oinarria	(6)						OHARRAK:						(7)	FAKTURA GUZTIRA MERKATARITZA-ERROLDAKO ZK. (9)					
Kodea	Kopurua	Deskribapena	Prezioa	BEZ %	BG %	Zenbatekoa																																																
(5)	(5)	(5)	(5)	(5)	(5)	(5)																																																
BEZ BG	% (6)	%	%	%	%																																																	
Zerga- -oinarria	(6)																																																					
Zerga- -oinarria	(6)																																																					
OHARRAK:						(7)																																																
FAKTURA GUZTIRA MERKATARITZA-ERROLDAKO ZK. (9)																																																						



- (1) Fakturaren zenbaki korrelatiboa.
- (2) Igorlearen (saltzailearen) datuak: izen-abizenak edo enpresa-izena, helbidea eta IFK.
- (3) Hartzailearen (eroslearen) datuak: izen-abizenak edo enpresa-izena, helbidea eta IFK.
- (4) Igortze-data eta -lekua.
- (5) Eragiketaren inguruko zehaztasunak (ondasunen salerosketa edo zerbitzu-eskaintza izan den) eta zenbateko osoa, baita BEZaren zerga-oinarria kalkulatzeko datuak ere: kopuruak, unitateko prezioak, deskontuak, gastuak eta zenbatekoak.
- (6) BEZaren eta baliokidetzat gainordainaren ehunekoak, oinarri zergagarriak eta kuotak
- (7) Fakturaren zenbateko osoa.
- (8) Salmenta-baldintzak eta erreferentziak: garraiobidea, ordaintzeko era,...
- (9) Merkataritza-eroldako inskribatze-zenbakia.

(1) IFK:	FAKTURA-ZK.: (2) Data:.....(3)..... <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #cccccc;"> <th style="width: 25%;">KOPURUA</th> <th style="width: 40%;">DESKRIBAPENA</th> <th style="width: 20%;">PREZIOA</th> <th style="width: 15%;">ZENBATEKOA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(4)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(4)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(4)</td> <td style="text-align: center; vertical-align: middle;">(4)</td> </tr> </tbody> </table> OHARRAK:	KOPURUA	DESKRIBAPENA	PREZIOA	ZENBATEKOA	(4)	(4)	(4)	(4)
KOPURUA	DESKRIBAPENA	PREZIOA	ZENBATEKOA						
(4)	(4)	(4)	(4)						

–Faktura sinplifikatua–

- (1) Igorlearen datuak: izen-abizenak edo enpresa-izena, helbidea eta IFK.
- (2) Faktura-zk.
- (3) Igortze-data eta lekua.
- (4) Eragiketaren adierazpena eta BEZaren zerga-oinarria kalkulatzeko datuak: kopuruak, unitateko prezioak, deskontuak, gastuak eta zenbatekoak.



2.3.2. Fakturak igortzea eta zaintzea

2.3.2.1. Igortzea

Hartzailea azken kontsumitzailea bada, eragiketa egiten den momentuan bertan igorri behar da faktura; enpresaburu edo profesionala bada, berriz, 30 eguneko epe barruan igorri behar da, eragiketa egiten den unetik zenbatzen hasita.

Gerta liteke, bestalde, hartzaile berberari hilabeteko epean (edo zehaztutako beste epe batean) egindako salmenta guztiak faktura bakar batean sartzea. Horrelakoetan hilabeteko azkeneko egunean (edo epearen azkenekoan) igorri behar da faktura.

Europako Batasuneko herrien arteko eragiketetan, salmenta gauzatu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen igorri behar da faktura.

Faktura bakoitzeko jatorrizko bat besterik ez da igorri behar, ondorengo kasuetan izan ezik:

- Bi hartzaile baldin badaude.
- Jatorrizkoa galdu egin bada.

Horrelakoetan, kopia dela adierazi behar da kopian bertan <KOPIA> hitzaren bitartez; baita hori igortzearen zergatia ere. Adibidez: 'Jatorrizkoa galtzeagatik kopia'.

2.3.2.2. Zaintzea

	SALMENTEN FAKTURAK	EROSKETEN FAKTURAK	
ZAINTE-EPEAK	6 URTE	6 URTE	
		Lurrak edo eraikinak: 15 URTE	Bestelako inbertsio-ondasunak: 10 URTE

2.3.3. Fakturan egin beharreko kalkuluak

Fakturaren zenbateko osoa kalkulatu ahal izateko, kontuan hartu behar dira –salgaien zenbateko gordinaz gain– eragiketak sortutako gastu guztiak, egindako deskontuak eta eragiketari dagokion BEZaren ehunekoa.

2.3.3.1. Zenbateko gordina

Honela osatzen da salgai bakoitzaren zenbatekoa: fakturatzen den salgai-mota bakoitzaren kopurua unitate bakoitzeko prezioaz biderkatuz. Ondoren, hainbat eratako salgaien zenbatekoak batuz ateratzen da fakturen zenbateko gordina.

$$\Sigma (\text{kopurua} \times \text{prezioa}) = \text{zenbateko gordina}$$



2.3.3.2. Faktura barruko deskontuak

Salgaien balioaz gain hornitzaileek ematen dituzten hobari eta beherapenak dira faktura barruko deskontuak. Honakook dira ohikoenak: merkataritza-deskontua, 'rappelak' edo bolumenagatiko deskontua eta azkar ordaintzeagatiko deskontua.

- a) Merkataritza-deskontua: salgaia promozionatzeko asmoz edo eskaintza jakin batzuetan ematen dira.
Deskontuaren ehunekoa salgaien zenbateko gordinaren gain kalkulatzen da.
- b) 'Rappela' edo bolumenagatiko deskontua: erosleek salgai-kopuru handiak erosten badituzte, hornitzaileek horrelako deskontuak ematen dituzte, salmentak sustatzeko asmoz.
Deskontu honen ehunekoa –merkataritza-deskontuarena bezalaxe– salgaien zenbateko gordinaren gain kalkulatzen da.
Denbora-epe jakin batean erosketa-bolumen jakin bat gainditzen bada egiten da deskontu hau.
- c) Berehala ordaintzeagatiko deskontua: bezeroak ohi baino goizago –edo eskura– ordaintzen badu, hornitzaileak deskontu hau egin diezaioke, pizgarri gisa.
Deskontu honen ehunekoa merkataritza-deskontua eta rappelak (baleude) aplikatu ondorengo zenbatekoaren gain kalkulatzen da.

2.3.3.3. Faktura barruko gastuak


Fakturan sartzen diren gastuek zenbateko osoa handitzea eragiten dute.

Honako hauek izaten dira aipatu gastuak:

GARRAIO-GASTUA: salgaiak saltzailearen biltegitik eroslearen biltegiraino eramateak sortutako gastua.

Garraio-gastua eroslearen edo saltzailearen kontura izan daiteke, saltzailearen garraiobideaz edo garraio-agentzia baten bitartez egin daitezke eta bata edo besteak kontrata dezake. Horren arabera fakturan sartzen dira (edo ez) eta BEZaren zerga-oinarriaren baitan egoten dira (edo ez). Ikus dezagun hurrengo orriko eskeman:

GARRAIOA



(A) OHARRA: garraiolariak kobratzen dion BEZak ez du zerga-oinarria gehitu behar; hots, fakturan ez da sartu behar garraiolariak kobratzen duen BEZa. Bestalde, fakturan garraio-gastuari aplikatzen zaion BEZak salgaiei edo eskainitako zerbitzuei dagokiena izan behar du.

(B) OHARRA: BEZaren atzetik, garraiolariaren BEZa eta guzti

(C) OHARRA: ordainketa zuzena garraiolariari.

ASEGURU-GASTUA: garraio-gastuari lotuta, salgaiak garraiatzen ari diren bitartean gerta daitezkeen arrisku posibleak (matxurak, hausturak,...) estaltzea baita horren funtzioa.

BEZa ordaintzetik salbuetsitako gastua da, baina fakturan sartuz gero BEZaren zerga-oinarriaren parte bihurtzen da eta salgaiei edo zerbitzuei dagokien BEZaren ehunekoa aplikatu behar zaio.

ONTZIEN ETA BILGARRIEN GASTUA: ontziak eta bilgarriak *itzultzekoak* edo *ez itzultzekoak* izan daitezke.

Edozein motatakoak direla ere, ontzien eta bilgarrien gastuek BEZaren zerga-oinarria gehitu beharra daukate.

Itzultzekoak badira, hornitzaileak *zuzenketa-faktura* deritzona igorri behar du itzulketa egindakoan.

2.3.3.4. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa)

Fakturako zenbateko gordinari deskontuak kendu eta gastuak gehitu ondoren, BEZaren oinarri zergagarria lortzen da. Horrez gain, salgai- edo zerbitzu-motaren arabera BEZaren ehunekoa aplikatu behar da ondoren: orokorra, murriztua edo oso murriztua.

Kuota horiek zerga-oinarriari batuta lortzen da fakturaren zenbateko osoa.

$$\text{Zenbateko osoa} = \text{Zenbateko gordina} - \text{deskontuak} + \text{gastuak} + \text{BEZa}$$



Atriketa

PANTEXTIL, S.L.
Puig kalea, z.g. – TERRASSA

IFK: 48/324020-A

FAKTURA-ZK.: 320

Eskabide-zk.: 01

Albaran-zk.: 302

Garraioa: PESA garraioak
Gure kontu

Ordaintzeko era:
90 egun barru

CONFECCIONES DEL NORTE, S.A.
Kale Nagusia, 10
LASARTE

IFK: 45/382143

Data: 2002ko urtarrilaren 10a

Kodea	Kopurua	Deskribapena		Prezioa	BEZ %	BG %	Zenbatekoa
	500 m	Koadrodun oihala		3,6 €	16		1.800 €
	300 m	Loredun oihala		4,5 €	16		1.350 €
	600 m	Oihal gorria		5 €	16		3.000 €
	750 m	Oihal beltza		3,2 €	16		2.400 €
							8.550 €
		Merkataritza-dtua. (% 5)..					427,5 €
BEZ BG	% 16	%	%	%	%		1.299,6 €
Zerga- oinarria	8.122,5						8.122,5 €
Zerga- oinarria							
OHARRAK:				FAKTURA GUZTIRA			<u>9.422,1 €</u>



2.3.4. Fakturen zuzenketa

Enpresaburu edo profesionalek egindako fakturak zuzendu behar izatearen zergatiak honako hauek dira:

- a) Akatsen bat egin izana fakturan
- b) Salerosketaren baldintzak aldatu izana
- c) BEZaren ehunekoa aldatu izana
- d) Eragiketa ezeztatu izana

Aipatu zuzenketa-zergatiren bat gertatu bezain pronto zuzendu behar da faktura; inoiz ez eragiketari dagokion zerga ordaintzeko beharra sortu zenetik bost urte igaro eta gero.

Hanka-sartzeren bat dela-eta zegokion baino zerga-ehuneko txikiagoa bildu bada eta hartzailea jasandako BEZa kentzeko eskubidea duen enpresaburu edo profesionala bada, faktura igorri zenetik urtebeteko epea dago zuzenketa egiteko. Hartzaileak ez baditu aipatutako baldintzak betetzen, faktura igorri zenetik erosleari entregatzen zaion momentura artekoa da zuzenketa egiteko epea.

Zuzenketa bi eratara egin daiteke:

- a) Zuzenketa-fakturaren bidez.
- b) Abonu-orriaren bidez.

a) **Zuzenketa-faktura:** faktura berria da. Jatorrizko faktura identifikatzeko datuak eta egindako zuzenketa hor adierazten dira.

b) **Abonu-orria:** faktura bidali ondoren oinarri zergagarria gutxitzeko zenbait hobari edo beherapen ematen bazaizkio bezeroari, honek ez bazuen *faktura osoa* egiteko eskatu eta ez bada enpresaburu edo profesionala, abonu-orri baten bidez egin daiteke zuzenketa. Abonu-orri horiek zenbaki korrelatiboa bat izan behar dute.

IFK:	RI ABONATUA IFK: RI ABONATUA						
Data..... Abonu-orriaren zk.:							
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #cccccc;"> <th style="width: 70%;">DESKRIBAPENA</th> <th style="width: 30%;">ZENBATEKOA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="height: 40px;"></td> <td></td> </tr> <tr> <td style="text-align: right; padding-right: 10px;">Abonatutako zenbatekoa</td> <td></td> </tr> </tbody> </table>		DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA			Abonatutako zenbatekoa	
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA						
Abonatutako zenbatekoa							



1. Ariketa

Demagun honako honetaz jabetzen dela HOMN PANTEXTIL: bilgarri-gastuak (12 euro) ez dituela sartu eta, ondorioz, urtarilaren 19an zuzenketa-faktura igortzen duela aurrekoa zuzentzeko.

Faktura horren zk.: Z/320 da.

PANTEXTIL, S.L. Puig kalea, z.g. – TERRASSA IFK: 48/324020-A	ZUZENKETA-FAKTURAREN ZK.: 320
---	--------------------------------------

<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="padding: 2px;">Eskabide-zk.:</td> <td style="padding: 2px;">01</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">Albaran-zk.:</td> <td style="padding: 2px;">302</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">Garraioa:</td> <td style="padding: 2px;">PESA garraioak Gure kontu</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">Ordaintzeko era:</td> <td style="padding: 2px;">90 egun barru</td> </tr> <tr> <td style="padding: 2px;">Oharrak:</td> <td style="padding: 2px;">faktura hau 320 zenbakidunaren ordezkia da</td> </tr> </table>	Eskabide-zk.:	01	Albaran-zk.:	302	Garraioa:	PESA garraioak Gure kontu	Ordaintzeko era:	90 egun barru	Oharrak:	faktura hau 320 zenbakidunaren ordezkia da	<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td colspan="2" style="padding: 5px;"> CONFECCIONES DEL NORTE, S.A. Kale Nagusia, 10 LASARTE </td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">IFK:</td> <td style="padding: 5px;">45/382143</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">Diferentzia:</td> <td style="padding: 5px; text-align: right;">13,9 €</td> </tr> </table>	CONFECCIONES DEL NORTE, S.A. Kale Nagusia, 10 LASARTE		IFK:	45/382143	Diferentzia:	13,9 €
Eskabide-zk.:	01																
Albaran-zk.:	302																
Garraioa:	PESA garraioak Gure kontu																
Ordaintzeko era:	90 egun barru																
Oharrak:	faktura hau 320 zenbakidunaren ordezkia da																
CONFECCIONES DEL NORTE, S.A. Kale Nagusia, 10 LASARTE																	
IFK:	45/382143																
Diferentzia:	13,9 €																

Data: 2002ko urtarilaren 15a

Kodea	Kopurua	Deskribapena	Prezioa	BEZ %	BG %	Zenbatekoa
	500 m	Koadrodun oihala	3,6 €	16		1.800 €
	300 m	Loredun oihala	4,5 €	16		1.350 €
	600 m	Oihal gorria	5 €	16		3.000 €
	750 m	Oihal beltza	3,2 €	16		2.400 €
						8.550 €
		Merkataritza-desk. (% 5)				427,5 €
		Bilgarriak				12 €
						1.301,5 €
BEZ	%	%	%	%		
BG	16					
Zerga-oinarria	8.134,5					8.134,5 €
Zerga-oinarria						
OHARRAK: FAKTURA GUZTIRA						9.436 €



2. Ariketa

Demagun PANTEXTILEk urtarilaren 10ean salmenta bat egin ziola Igone Mutuberria Huarte andearari. Salmenta haren zenbateko osoa 130 eurokoa izan zen.

Gerora –kontuan izanik aspaldiko bezero zintzoa dela– % 10eko deskontua egitea erabaki zuen PANTEXTILEk. Abonu-orriaren zk.: 88; data: urtarilaren 25a.

PANTEXTIL, S.L. Puig kalea, z.g. TERRASSA IFK: 48/3240320-A	Igone Mutuberria Huarte Tejeria, 14 DONOSTIA..... RI ABONATUA IFK: 15.878.432 W								
Data... 2002ko urtarilaren 25a..... Abonu-orriaren zk.: ...88.....									
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #cccccc;"> <th style="text-align: left; padding: 5px;">DESKRIBAPENA</th> <th style="text-align: left; padding: 5px;">ZENBATEKOA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="padding: 5px;">130 euroko 368 zenbakidun fakturaren gaineko % 10eko deskontua</td> <td style="text-align: right; padding: 5px;">13 €</td> </tr> <tr> <td style="text-align: right; padding: 5px;">BEZa (% 16)</td> <td style="text-align: right; padding: 5px;">2,08 €</td> </tr> <tr> <td style="text-align: right; padding: 5px;">Abonatutako zenbatekoa</td> <td style="text-align: right; padding: 5px;">15,08 €</td> </tr> </tbody> </table>	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	130 euroko 368 zenbakidun fakturaren gaineko % 10eko deskontua	13 €	BEZa (% 16)	2,08 €	Abonatutako zenbatekoa	15,08 €	
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA								
130 euroko 368 zenbakidun fakturaren gaineko % 10eko deskontua	13 €								
BEZa (% 16)	2,08 €								
Abonatutako zenbatekoa	15,08 €								

Trakasteko eta ikasteko ariketak

- 1) SAN VICENTE DEL RASPEIG (Carretera de Agost, km 1,5.- Alacant – IFK:33/258431-A) enpresak LINPEC, S.A.ri (C/Tarrasa s/n. – Madrid. IFK:28/457629-AB) honek eskatutako salgaiei dagokien faktura bidali zion abenduaren 13an, 408 zenbakiaz. (ikus 22. orrialdea)

Eskatutakoa:

1.500 kg hur	5,0 €/kg
2.000 kg intxaur	1,5 €/kg
5.000 kg azukre	0,4 €/kg

Baldintzak:

Merkataritza-deskontua: % 6
 Ordaintzeko era: erdia taloiaren bidez eta gainerakoa 60 egun barru
 Entrega-epea: 10 egun
 Garraioa: LINPECen kontura. Enpresa: PESA. Kostua: 360 €



Albarana abenduaren 23ko dataz eta 205B zenbakiaz egin zen.

Bete ezazu faktura, kontuan izanda 60 euroko bilgarri-gastua ere badagoela. Data: abenduaren 29a. Zk.: 205B

- 2) BERGARA TAILERRAK, EM (Bidebieta kalea, 14 – DONOSTIA- IFK: 40/382451-B) enpresak INDUSTRIAS MECÁNICAS, S.A.ri (Nafarroa Hiribidea, 64 – Eibar – IFK: 38/082409-A) 2002ko urtarrilaren 5ean eta 1008-A zenbakiaz egindako eskabidean eskatutako salgaiak bidali zizkion urtarrilaren 8an eta 510 zenbakidun albaranaz. Gero, urtarrilaren 15eko dataz 510-F zenbakia duen faktura bidali zion.

Eskatutakoa:

500 pedal	1,8 €/u.
750 aihotz	1,2 €/u.

Baldintzak:

Deskontua: berehala ordaintzeagatik, 50 €
Entrega-epea: berehala
Ordaintzeko era: esku-eta esku-diruz
Garraioa: Bergara Tailerrak-en kontura. Enpresa. AZKAR. Kostua: 120 €

Bete ezazu aipatutako faktura.

Ordainketa esku-diruz izango dela kontuan hartuta, goiz ordaintzeagatik % 7ko deskontua egitea erabaki zuen Bergara tailerrak urtarrilaren 20an. Hori dela-eta, ZF-510 zenbakidun zuzenketa-faktura bidali zuen urtarrilaren 25eko dataz.

Bete ezazu zuzenketa-faktura.

- 3) INDUSTRIAS PASCUALek (Salaberria kalea, 2 – HERNANI – IFK: 40/020891-B) INDUSTRIAS MECÁNICAS S.A.ri urtarrilaren 10ean bidali zizkion 1009-A zenbakiaz eskatutako salgaiak (Albaran-zk.: 1010A. Data: urtarrilaren, 13a) (Ikus 22. orrialdea)

Bete ezazu dagokion faktura urtarrilaren 20ko dataz eta 1010F zenbakiaz.

Beste zenbait ariketa

A) Erantzun honako galdera hauei:

- Zein da baldintzatutako eskabidearen eta behin betiko eskabidearen arteko desberdintasuna?
- Zein dira eskabide bat egiteko ohiko erak?
- Zein da eskabide eta eskabide-proposamenaren arteko desberdintasuna?
- Salgaiak entregatzeko adostutako eguna eta jasotze-eguna bat ez badatoz, hots, ez badira entrega-epeak betetzen, zein neurri hartu behar dira hornitzaile horrekiko?
- Zein dira salgaiak bidali aurretik eman beharreko pausoak?
- Albaran bateko zenbat kopia egin behar dira? Zeinentzat dira?



- Zein dira salgaiak egiaztatzeko pausoak?
- Zer egin behar da jasotako salgaiak ez badaude hitzartu bezala edo eskatutakoak ez badira?
- Partikular batek ba al dauka fakturak igortzerik? Arrazoitu erantzuna.
- Demagun eragiketa ugari egin dituztela elkarrekin hornitzaileak eta bezeroak hilean zehar. Hornitzaileak hilean entregatutako guztia faktura bakar batean bil al dezake?
- Zenbat denboraz gorde behar dira salmenta-fakturen kopiak? Eta erosketa-fakturenak?
- Zein kasutan egin daiteke faktura baten kopia bat?

B) Bete ezazu honako eragiketaren pauso bakoitzari dagokion dokumentazioa:

ENPRESA SALTZAILEA:

Aceites Carbonell (San Marcial, 1 eta 2) – Madril - IFK: 48/397853/B

ENPRESA EROSLEA:

Super Amara (Isabel II kalea, 10) – Donostia – IFK: 40/332187B (TXIKIZKARIA DA; beraz *baliokidetza gainordaina* ere kargatu egin behar zaio fakturan).

ESKATUTAKO PRODUKTUAK:

25 kaxa oliba-olioa, 1 ^o -koa	12,5 €
30 kaxa oliba-olio, 0,4 ^o -koa	12 €

BALDINTZAK:

1^o-ko olioan, % 10eko merkataritza-deskontua

0,4^o-ko olioan, % 7ko merkataritza-deskontua

BEZa?

Ordainketa: eskura eta esku-diruz

Entrega-epea: 6 egun

Garraio-gastua: 210 €. Enpresa: TURLAN. Eroslearen kontura, hark kontratatuta.

Ontzi- eta bilgarri-gastua: 55 €

ESKATZEN DENA:

Eskabidea betetzea: zk.: 2.605B. Azaroaren 20an.

Eskabide-kontrola egitea: salgaiak eskatzean eta jasotzean egin beharreko idazpenak egin.

Entrega-epea betetzen ez dela-eta erreklamazio-gutuna idaztea: Abenduaren 4an.

Garraio-gutuna: Turlan garraio-agentziaren helbidea honakoa dugu: Felipe IV, 25 bajo. –Madril- IFK: 40/333666

Albarana betetzea: zk.: 3.480. Abenduaren 9an.

Sarrera-erregistroa betetzea: Adieraz ezazu salgaiak berandu (10 eguneko atzerapena) jaso direla.

Faktura betetzea: zk.: 3.480. Abenduaren 10ean.



Zuzenketa-faktura betetzea: esku-diruz ordainduko duela kontuan izanik, berehala ordaintzeagatiko deskontua egingo dute Carbonellekoek –% 6-koa hain zuzen ere. Data: abenduaren 28a. Zk.: ZF-3480

C) Bete ezazu ondorengo eragiketari dagokion dokumentazioa:

ENPRESA SALTZAILEA:
Aurreko ariketako berbera.

ENPRESA EROSLEA:
Comestibles Angela (Peña eta Goñi kalea, 2 – Donostia – IFK: 40/394865B
(Hau ere txikizkaria da; beraz, baliokidetasun-gainordaina aplikatu behar zaio)

ESKATUTAKO PRODUKTUAK:
50 kaxa olio, 0,4 gradukoa 14,25 €

BALDINTZAK:
Ez dago deskonturik.
BEZa?
Entrega-epea: 6 egun
Garraio-gastua: 150 €. Eroslearen kontura, saltzaileak kontrataturik eroslearen izenean eta dirua aurreratuta.
Ordaintzeko era: % 25 taloi izendun baten bidez eta 30 egun barru gainerako % 75.
Bilgarri-gastua: saltzailearen kontura.

ESKATZEN DENA:
Eskabidea betetzea: abenduaren 1ean eta A-308.1 zenbakiaz.

Eskabide-kontrola: kontroleko inprimakian behar duen idazpena orain egitea, baita salgaiak jasotzen direnean ere.

Garraio-gutuna betetzea: garraio-agentzia aurreko ariketako bera da. Garraio-gastua, 103,44 €-koa; aseguru-gastua, 30 €-koa. Gainerakoa BEZa da.

Albarana betetzea: 3.481A zenbakia du; abenduaren 5ean egina.

Sarrera-erregistroa: salgaiak egiaztatzea eta sarrera-erregistroan idazpena egitea. Guztia dago ongi.

Faktura betetzea: zk.: 3.481. Data: abenduaren 11.

D) Jar zaitetze binaka eta asma ezazue eragiketa bat; dagozkizuen inprimakiak bete itzazue, kontuan izanik batek hornitzailearena egin behar duela eta besteak bezeroarena.



3 *Balio erantsiaren gaineko zerga*

3.1. BEZaren EZAUGARRIAK, FUNTZIONAMENDUA ETA KALKULUA

Sarrera

3.1.1. BEZaren definizioa

3.1.2. Aplikazio-eremua

3.1.3. Zergapeturiko eragiketak

3.1.4. Zergarik gabeko eragiketak

3.1.5. Subjektu pasiboa

3.1.6. Zergaren sortzapena

3.1.7. Bildutako BEZa eta Jasandako BEZa

3.1.8. Nola kalkulatzen da BEZa?

3.2. BEZaren KUDEAKETA

Sarrera

3.2.1. Eragiketa salbuetsiak

3.2.2. Kuota-kenketak

3.2.3. BEZaren likidazioa

3.2.4. Betebehar formalak

3.2.5. Erregimen bereziak



3.1. BEZ-AREN EZAUGARRIAK, FUNTZIONAMENDUA ETA KALKULUA

SARRERA

Erosketa edo zerbitzuren baten beharra izanez gero, ondasunaren zergaz gain beste bat ere ordaindu ohi da: BEZa (Balio Erantsiaren gaineko Zerga), erosketa zergapetuta badago behintzat.

Enpresek eta profesionalek zerga hori ordaindu beharra daukate –beste zenbait arau fiskalekin batera–, erosketa arautzen duen legediak agintzen duenez.

3.1.1. BEZaren definizioa

Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontsumoa zergapetzen duen zeharkako zerga da. Honako eragiketa hauek zergapetzea du helburu:

- a) Enpresek eta profesionalek Espainia barruan egiten dituzten ondasunen entrega (salmentak, alokairuak...) eta zerbitzuak.
- b) Europako Batasunaren barruan egiten dituzten ondasunen entregak (salmentak, alokairuak...) eta zerbitzuak.
- c) Inportazioak.

OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Ondasunen entrega: ondasun materialak erabiltzeko gaitasuna transmititzea: erosketa eta alokairua, esate baterako.

Zerbitzua: ondasun ez materiala da, definizioz, zerbitzua. Adibidez: garraioak, aseguruak, profesional liberalen laguntza edo aholkua, bankuen maileguak, ostalaritza...

Profesionala: lan-gaitasun jakin bat eduki bere kontura lan egiten duenari 'profesionala' deritza. Adibidez: abokatua, sendagilea, futbolista...

Enpresaburua: bere jardueraren antolakuntza, helburuak eta garapena erakunde gisa eratuta dituen. Adibidez: dendaria, garraiolaria...

Ezaugarriak

Zeharkako zerga da Balio Erantsiaren gaineko Zerga, hori ordaintzen duenak –kontsumitzaileak– ez baitio zerga zuzenean ematen Ogasunari, saltzailearen bidez baizik. Beraz, hornitzaileak jasotzen du zerga, baina diru hori publikoa denez Ogasunari ordaindu behar dio deklaratu eta gero.



Enpresaburu eta profesionalek ondasun eta zerbitzuak erosten dituzte, BEZa ordainduz, baina ordaindutakoa itzuli egin behar zaie. 'Jasandako BEZa' deitzen zaio horri.

Aldiz, enpresaburuek eta profesionalek kontsumitzaileengandik jasotzen dutenari eta Ogasunari eman behar diotenari 'bildutako BEZa' deitzen zaio.

3.1.2. Aplikazio-eremua

BEZaren aplikazio-esparruak honako hauek dira: Estatu espainiarraren lurralde penintsularra, Balear Uharteak eta lurraldeari dagozkion aireko espazioa eta itsasokoa (12 miliako mugaraino).

Aldiz, ez da aplikagarria Kanariar Uharteetan, Ceutan eta Melillan egiten diren eragiketetan.

Azkena aipatutako hiru leku horietan Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra eta Enpresen Jardueraren gaineko Zerga Orokorra aplikatzen dira.

3.1.3. Zergapeturiko eragiketak

3.1.3.1. Zergaren mugapena

Jarraian aipatuko ditugun eragiketei ezartzen zaizkie zergak:

- * Estatu espainiarrean egiten diren eragiketei: ondasunen entregari eta zerbitzuei.
- * Europako Batasunaren barruan egiten diren ondasun-erosketei.
- * Ondasunen inportazioei.

Azter dezagun horietako bakoitza bere aplikazio-eremuan:

Zerga aplikatzeko barne-eremua (Penintsula eta Balearrak)


Zergapetuak daude enpresaburuek eta profesionalek beren jardueretan egiten dituzten ondasunen entregak eta zerbitzuak, ohikoak nahiz aldizkakoak, autokontsumoa ere barne.

Zerga aplikatzeko kanpoko eremua

Bi eremu desberdin ditu BEZak:

- EB barnekoak: Europako Batasuneko ondasunen erosketak, EBeko enpresei egindakoak alegia.
- Inportazioak: munduko gainerako herrialde guztiei egiten zaizkienak.





Ariketa

Zein multzotan sartu behar dira honako herrialde hauei egiten zaizkien erosketak?

- | | |
|------------|------------|
| – Alemania | – Txile |
| – Suitza | – Txina |
| – AEB | – Japonia |
| – Frantzia | – Portugal |

3.1.4. Zergarik gabeko eragiketak

Badira zergapetuak ez dauden eragiketak. Honako hauexek:

- Enpresaburuak edo profesionalak bere jarduera egiteko behar duen ondasuna pertsona bakar bati transmititzea, jarduera horretan jarrai dezan.
- Ondasunen transmisioa *mortis causa* baldin bada. Kasu honetan *oinordetza eta dohaintzen gainerako Zerga* aplikatzen da.
- Funtzionarioek eta langileek beste batzuen kontura egiten dituzten zerbitzuak.
- Erakunde publikoek tasa baten truke egiten dituzten zerbitzuak. Hala ere, zenbait zerbitzu zergapetua dago: gasa, telekomunikazioak...
- Dohainik eginiko baliorik gabeko merkataritza edo promozio gisara egindako ondasun-entregak.
- Enpresa-jardueraren sustapenerako dohainik egindako zerbitzuak.
- Publizitatea egiteko dohainik ematen diren inprimakiak eta objektuak.
- Lan-kooperatibetako langileek beren enpresetarako egiten dituzten zerbitzuak eta beste kooperatiba-mota batzuetako bazkide-langileek euren etarako egiten dituztenak.
- Ordainketak egiteko diru-entregak.
- Emakidak eta baimen administratiboak ez dira zergapetzen –oro har–; bai, ordea, aireportuetako eta portuetako instalazioak erabiltzeko eskubideen lagapena.



3.1.5. Subjektu pasiboa

BEZaren subjektu pasiboak (deklarazioa egin behar dutenak) honako hauek dira:

A) Enpresaburu diren edota gaitasun profesionala duten pertsona fisikoak edo juridikoak, BEZak zergapetzen dituen ondasunen entregak edota zerbitzuak egiten dituztenak.

BEZaren legeak honako hauek hartzen ditu enpresaburu edo profesionaltzat:

- Enpresa-jarduera edota jarduera profesionala egiten duten pertsona fisikoak edo entitateak.
- Merkataritza-elkarteak.
- Ondasunen alokairu-emaileak.
- Lursailak urbanizatzen dituztenak eta salmenta, lagapen edo esleipenetako eraikinak sustatu, eraiki eta birgaitzen dituztenak.

B) Europako Erkidego barneko erosketari dagokienez, erosketa egiten duen pertsona fisikoa edo juridikoa da subjektu pasiboa.

Subjektu pasiboen betebeharrak: BEZaren balioa erosleari kobratzea –fakturaren bidez– eta araututako epean aitortpena egitea; hala balegokio, diru hori Ogasun Publikoari ordaintzea.

3.1.6. Zergaren sortzapena

Noiztik sortzen da zerga ordaintzeko betebeharra?

- * Ondasunak entregatzen direnean, ondareak erosleen esku jartzen direnean.
- * Zerbitzuak egiten direnean.

Dena den, eragiketaren bat ondasuna entregatu aurretik ordaindu beharrekoa bada, zati bakoitza kobratzen den unean hasten da BEZaren sortzapena.

ZERGAREN SORTZAPENA	
ERAGIKETAK	NOIZ
Ondasunak saltzea	Eroslearen eskuan jartzen direnean
Zerbitzuak ematea	Ematen direnean
Salmenta-komisioak	Komisionistak ondasuna entregatzen duenean
Autokontsumoa	Eragiketa egiten denean
Alokairuak, hornidurak, epekako eragiketak...	Epe bakoitzean, ordainketa galdagarria denean
Alokatzeak/salmentak	Ondasunak eroslearen esku ipintzen direnean
Obrak egitea	Ziurtagiri partzialak ematen diren bakoitzean
Aldez aurretikok	Kobratzen denean
Ondasunak inportatzea	Inportatzaileak Administrazioari eskatzen dioenean



Atriketa

Larratxo EA enpresak ordenagailu bat erosi dio Marra EM enpresari, 2.000 eurotan.

Ordenagailuaren entrega ekainaren 20an egin da.

Faktura irailaren 8an egingo da.

Ordainketa irailaren 12an egingo da.

Noiz gertatuko da BEZaren sortzapena?

Soluzioa: 2002ko ekainaren 20an, ondarearen entrega egiten denean.

3.1.7. Bildutako BEZa eta Jasandako BEZa

Subjektu pasiboak (aitorpena egiten duena) salmenta bat egiten duenean BEZa biltzen du aldi berean. Ordaintzen duenak (kontsumitzaileak) jasaten du, beraz, zerga. Hau da, batentzat ***bildutako BEZa*** dena bestearentzat ***jasandako BEZa*** da.

Bildutako BEZak fakturan agertu behar du; zerga-oinarriak eta zerga-tasak aparte eta garbi agertu behar dute, BEZa fakturaren barruan onartzen den kasu batzuetan salbu.

Sortzapenetik urtebete baino gehiago pasatu bada, BEZa biltzeko eskubidea galdu egiten da.

3.1.8. Nola kalkulatzeko da BEZa?

3.1.8.1. Zerga-oinarria

Zer da zerga-oinarria?

Ondasunen entrega eta zerbitzu-emateari dagokienez, zerga-oinarria ***erosleak ordaindu duena*** da (noski, zerga kontatu gabe).

Honako hauek sartzen dira horren barruan:

- Salmentaren balioa.
- Ontzi eta bilgarrien balioa. Horiek itzuliz gero, aurreko balioa murriztu egin behar da.
- Komisioak.
- Garraio-kostuak.
- Aseguruak.
- Plazaratutako ordainketaren interesak.
- Atzeratutako ordainketaren interesak
- Gainerako zergak.
- Atxikitako kobraketak.
- Prezioari lotutako diru-laguntzak

Ez dira sartzen zerga-oinarriaren barruan:

- Kalte-ordainak.
- Salmenta aurreko deskontuak eta hobariak.
- Ordaintzeko ordezkapenak.



Ariketa

Kalkulatu honako eragiketaren zerga-oinarria:

Salmentaren balioa	2.000 €
Asegurua	300 €
Ontziak	150 €
Deskontuak	150 €
Garraio-kostuak	120 €
Atzeratutako ordainketaren interesak	60 €

3.1.8.2. Zerga-oinarriaren aldaketa

Zerga-oinarria aldatu egin behar da honako kasuetan:

- Ontziak eta bilgarriak (berrerabiliak izan daitezkeenak) itzultzen badira.
- Salmenta ondorengo deskontuak eta hobariak egiten badira.
- Eragiketa indarrrik gabe uzten badu erabaki judizial batek.
- Eragiketa egin ondoren prezioa aldatzen bada.

3.1.8.3. Zerga-tasak

Zerga-tasa BEZaren ehunekoa da, zerga-oinarriaren gainean aplikatu beharrekoa: horren emaitza bildu behar duen kuota.

$$\text{Zerga-oinarria} \times \text{Zerga-tasa} = \text{Kuota}$$

BEZaren tasak aldatuz joan dira. Hiru tasa ditugu gaur egun:

- Tipo Orokorra: % 16
- Tipo Murriztua: % 7
- Tipo Oso Murriztua: % 4

Tipo Murriztua: % 7

HONAKO ONDASUN HAUEN ENTREGEI, EUROPAKO BATASUNAREN BARRUKO EROSKETEI ETA INPORTAZIOEI APLIKATZEN ZAIE:

- Gizaki edo abereentzako elikagaiei, honako hauek barne direla: ur minerala, bestelako edari freskagarriak, xarabeak, gizaki edo abereen kontsumorako ura, ureztatzeko ura...; ez, ordea, edari alkoholdunak, ezta tabakoa ere (% 16ko tasa dute bi produktu horiek).
- Nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzen diren produktuei (ongarriak, haziak, hondakin organikoak...).
- Gizakien gabezia edo urritasun fisikoei aurre egiteko osasun-ekipamenduei, produktu eta materialei (betaurreko graduatuak, lentilak,...).
- Albaitariak erabiltzeko farmazia-produktuei.
- Etxebizitza eta garajeen entreei, baita etxebizitzarekin batera entregatzen diren alboko lokalei ere.



ETA HONAKO ZERBITZU-EMATEEI:

- Bidaia-erien eta horien ekipajeen lurreko garraioari.
- Penintsula eta Balear Uharten arteko bidaia-erien eta horien ekipajeen aireko eta itsasoko garraioari.
- Hotelei eta jantokiei (kategoria guztietakoei).
- Pertsona fisikoak diren artista, zuzendari, teknikari edo interpretatzaileek ematen dituzten zerbitzuei; filmen produktore eta antzerki- zein musika-emanaldien antolatzaileei.
- Kultur emanaldietarako (museoak, antzerkia, zinema, kontzertuak, zirkua, liburutegiak eta erakusketak) sarrerei, salbuetsiak ez badaude.
- Merkataritza-azokei eta erakusketei.
- Osasun-sorospen, dentisten zerbitzu eta salbuetsiak ez dauden sendaketa termalei.
- Hileta-zerbitzuei.

Tipo Oso Murriztua: % 4

HONAKO ONDASUN-ENTREGEI, EUROPAKO BATASUNAREN BARRUKO EROSKETEI ETA INPORTAZIOEI:

- Ogiari, ogia egiteko irinari eta zerealei, esnari, arrautzei, barazkiei, lekariei eta tuberkuluei.
- Farmazia-produktu eta -formulei (kosmetikoei eta norberaren garbiketarako produktuei izan ezik).
- Erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren entregari (horien sustatzaileek egindakoei).
- Liburuei, aldizkariari eta egunkariari (publizitateak datozen diru-sarrerek guztizkoaren % 75 gaitzen ez badute, betiere).
- Material didaktikoari (albumak, mapak, partiturak...).
- Protesiei eta elbarritasunen bat dutenentzako beribilei eta gurgil-aulkiei

Tipo Orokorra: % 16

Aipatutako bi tasak aplikatzen ez diren eragiketa guztietan %16 aplikatu behar da.

Zerga-tasen bilakaera Espainian (1987-2002)

	1987	1992	1993	1995	2000	2002
Orokorra	% 12	% 13	% 15	% 16	% 16	% 16
Murriztua	% 6	% 6	% 6	% 7	% 7	% 7
Oso murriztua	–	–	% 3	% 4	% 4	% 4
Handitua	% 33	% 28	–	–	–	–

Ariketa

Erroa Biltegiak EM Eroski E.Koop enpresari honako salmenta egin dio (eurotan):

5.000 kg laranja.....	3.000 €
2.000 kg patata	800 €
Garraioa	400 €
Deskontua	500 €

Kalkulatu zerga-oinarria, BEZ tasa eta kuota.

Soluzioa

Laranjak.....	3.000
Patatak	800
Garraioa	400
Deskontua	-500
Zerga-oinarria.....	3.700 x Tasa (% 4) = Kuota: 148 €

Erakasteko eta ikasteko ariketak

- 1) Zer eragiketa daude BEZaz zergapeturik?
 - 2) Zein estatu dira –espainiarraz gain– Europako Batasuneko kide?
 - 3) BEZaz zergapeturik al dago Kanadako enpresa bati erosten zaiona?
 - 4) Aipa itzazu BEZaz *zergapetuak* ez dauden hiru eragiketak.
 - 5) PILA enpresak makina bat saldu zion PASTILA enpresari ekainaren 26an, 8.000 € -tan. Makinaren entrega irailaren 12an egin zen. PASTILA enpresak 1000 €-ko aurrerakina ordaindu zuen ekainaren 29an. Fakturaren ordainketa irailaren 26an egingo da. Galdera: noiz gertatzen da BEZaren sortzapena?
 - 6) Kalkulatu honako eragiketa hauen zerga-oinarria:
 - a) Lete jaunak –eletrizista– Altube Altzariak EM enpresarako konponketa bat egin du eta honako kontzeptuak fakturatu ditu:

Materiala.....	1000 €
Lanorduak.....	400 €
Deskontua.....	100 €
 - b) Ondasun bat entregatu da 900 €-ren truke:

Faktura barneko deskontua.....	100 €
Garraio-kostua.....	80 €
Ontziak.....	30 €
- Bezzeroaren ordeaz ordaindutakoak (ordezkatuak) 90 € izan dira.
- 7) Zein da zergapetutako eta zergapetu gabeko eragiketen arteko desberdintasuna?
 - 8) Adierazi ondoko produktuen zerga-tasak:
 - Haur-jantziak.
 - Ogi bat.



- Bulegoko altzariak.
- Jantokiko bazkaria.
- Hipermerkatuan erositako arraina.
- DIN A3 orriak
- Betaurrekoak.
- Egunkaria.
- Eguzkitarako betaurrekoak.
- Esnea.
- Errioxako ardoa (erreserba).

9) Zein da BEZaren aplikazio-eremua?

10) Zein dira profesionalen eta enpresaburuaren arteko ezberdintasunak?

11) Zein da Europako Batasunaren barneko erosketa baten eta inportazio baten arteko desberdintasuna?

12) Zein dira BEZaren subjektu pasiboak?

13) Zer da BEZa biltzea?

14) Esan zein diren zerrenda honetan ondasun-entregak eta zein zerbitzu-emateak:

- Automobila saltzea.
- Jantokiko faktura ordaintzea.
- Metroko billetea ordaintzea.
- Ordenagailu baten salmenta.
- Osasun-laguntza.

3.2. BEZ-AREN KUDEAKETA

SARRERA

Enpresaburuak eta profesionalak bitartekariak dira BEZaren diru-bilketan, aitorpenak egiten baitituzte kontsumitzaileak aurretik ordaindu dieten dirua Ogasunari emateko. Horregatik deitzen zaie 'subjektu pasibo' enpresaburu eta profesionalari.

Subjektu pasibo horiek likidazioak, kuota-kenketak, eredu-ofizialak eta gainerako eginkizunak nola betetzen dituzten aztertuko da ikasgai honetan.

BEZaren erregimen orokorrak gain beste erregimen berezi batzuk, enpresa-jarduera berezietan aplikatzen direnak, aztertuko dira.

Ariketak

1. BEZa kostu bat al da enpresarentzat?
2. BEZaz salbuetsita dauden produktuak zein diren badakizu?
3. Zer da inportazioa? Eta esportazioa? Zer alde dago batetik bestera BEZari dagokionez?



3.2.1. Eragiketa salbuetsiak

Eragiketa salbuetsiak dira, zergagarri izan arren, zerga partzialki edo osorik ordaindu behar ez dutenak (kontuan hartu **zergapetu gabekoekin** dagoen aldea: *horiek ez dira zergagarri*).

3.2.1.1. Salbuespen mugatuak

Eragiketa hauetan subjektuak **ezin** du ondasun edo zerbitzuen erosketan **jasandako BEZaren kenketa** egin. Barne-eragiketak dira, hau da, Penintsulan eta Balear Uharteetan egiten direnak.

Izaera humanitario, sozial eta kulturala duten salbuespenak honakook dira:

- Laguntza medikoa, ospitalizazioa eta anbulantziak.
- Gizarte-segurantzak ematen dituen zerbitzuak.
- Laguntza sozialen zerbitzuak: haurrei eta gazteei ematen zaien babesa, hirugarren adinekoen asistentzia eta hezkuntza berezia.
- Irakaskuntza-jarduerak hezkuntza sistemaren maila guztietan.
- Jarduera soziokulturalak.

Finantza-izaera duten jarduerak:

- Aseguruak, berraseguruak eta kapitalizazio-eragiketak.
- Letrak eta zigilatutako bestelako efektuak –balio izendatua gainditzen ez badute– eta posta-zigiluak.
- Finantza-eragiketak (kobraketa/kudeaketa eta efektuen zaintza izan ezik).

Merkataritza-izaera duten salbuespenak:

- Posta-zerbitzu publikoak ematea, telekomunikazioak eta bidaiarien garraioa izan ezik.
- Jokoaren tasaz zergapeturik dauden loteriak, apustuak eta zorizko jokoak.
- Lursail ez-eraikigarrien entregak.
- Eraikinen bigarren eta hortik aurrerako entregak.
- Etxebizitzak alokatzea.
- Zenbait zerbitzu profesional eskaintzen dituztenak: idazleak, itzultzaileak, musikagileak...

3.2.1.2. Erabateko salbuespena

Eragiketa hauetan, subjektuak ondare edo zerbitzuen erosketetan **jasandako BEZaren kenketa** egin dezake. Honako hauek dira kanpo-eragiketak:

- Esportazioak.
- Europako Batasun barruko entregak.
- Kanariar Uharteetara, Ceutara eta Melillara egiten diren entregak.

Atriketa

Emandako zerbitzuen truke dentista batek bezeroei fakturatzeko diena salbuetsitako jarduera da. Horregatik, **ezin** du **bildu** inongo **BEZ**ik jaulkitzen dituen fakturretan.



3.2.2. Kuota-kenketak

3.2.2.1. Ezaugarriak eta baldintzak

Aurreko unitateetan ikusi dugunez, BEZa azken kontsumitzaileak ordaintzen du, hau da, neutrala da zerga tarteko faseetan (berdin dio asko edo gutxi izatea faseak). Neutraltasun hori profesionalek eta enpresaburuek jasaten duten BEZaren kuota-kenketa eginez lortzen da. Hau da, subjektu pasiboak jasandako BEZa berreskuratzeke aukera izaten du. Kenketa hori likidazio unean egin ohi da.

BILDUTAKO BEZA – JASANDAKO BEZA = ZERGA-ZORRA

Jasandako BEZa kentzeko gaitasuna izan dezan, honako baldintzok bete behar ditu subjektuak:

1. Profesionala edo enpresaburua izan behar du.
2. Jarduera-hasieraren aitortena aurkeztuta izan behar du.
3. Zergapetutako herrialdearen barruan (Penintsulan eta Balear Uharteetan) ordainduak izan behar dute kuotek.
4. Inportazioetan eta Europako Batasunaren barruko erosketetan jasandako kuotak ere kengarriak dira.
5. Erositako ondasun eta zerbitzuek beharrezkoak izan behar dute jardueraren garapenerako, baita enpresa-jarduerari edo jarduera profesionalari zuzenki lotuak ere.
6. Enpresa-jarduera edo jarduera profesionaletik datozen eragiketek zergapetuak egon behar dute eta ez salbuetsiak, erabateko salbuespen kasuetan izan ezik, azken kasu horietan BEZa kengarria baita.
7. Beste zenbait baldintza:
 - Faktura osoaren jabe izatea –nahiz eta oraindik ordaindu gabe egon–, edo zerga ordainduta dagoela ziurtatzen duen beste dokumenturen bat edukitzea.
 - Faktorek kontabilizatuta egon behar dute.

Honako baldintza hauek bete behar dituzte jasandako kuotek kengarriak izateko: enpresa-jarduerari edo jarduera profesionalari dagozkionak izatea, eta horiek sorrarazi dituzten eragiketek kentzeko eskubidea edukitzea.

Atriketak

A) Argentinako enpresa bati salmenta bat egin dio halako enpresaburuk (esportazioa).

Erabateko salbuespena duen eragiketa da hori (esportazioa). Horregatik, enpresaburuak ez dio erosleari BEZa ez bildu ez kobratu behar, baina erosketetan jasaten duen BEZa **kendu ahal izango du**.

B) Gaixoak anbulantzia garraiatzeko jarduera duen enpresa batek garraio-zerbitzu bat fakturatu du.

Salbuespen mugatua duen eragiketa da hori. Enpresak ezin du BEZa bildu, ezta kobratu ere, baina ezin du berak jasandako BEZa kendu.



Lehen aipatu ditugun baldintzak bete arren, ezin da jasandako BEZaren kenketa egin honako eragiketetan:

1. Normalean, **ezin da kenketa egin** turismo-, kirol- eta aisialdi-ibilgailuen erosketetan, ondorengo kasuetan izan ezik:
 - Ibilgailuak bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko edo gidariak eta pilotuak trebatzeko erabiltzen badira, ezta merkataritza-ordezkariek bere lanerako erabiltzen baditu ere.
 - Fabrikatzaileek ibilgailuak saiakuntzak, probak edo publizitatea egiteko erabiltzen badituzte.
 - Zaintza-zerbitzuetan soilik erabiltzen badira.
 - Enpresaburu eta enplegatuek erabiltzen duten ibilgailua soldataren zati ez bada.
2. Subjektu pasiboak (enpresaburuak) edo haren enplegatuek joan-etorrietan edo lan-bidaietan (desplazamenduak) jasaten dituzten kuotak.
Kuota horiek kengarriak izango lirateke PFEZ zergan edo Elkartearen gainerako Zergan gastua kengarria balitz.
3. Bidaia horien gainerako zerbitzuen –ostalaritza...– kuotak, PFEZ zergan eta Elkartearen gainerako Zergan kengarriak direnean izan ezik.
4. Bitxi, harribitxi eta edergailuen inportazio, alokatze eta erosketan jasandako kuotak.
5. Elikagaiak, tabakoa, edariak, ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak eta ikuskizunak.
6. Bezeroekiko arreta-gastuak.

GOGORATU!

- Zergapetutako eragiketak egiten dituzten enpresek jasandako BEZa KENDU egin dezakete baldintzak betetzen badituzte.
- Eragiketa salbuetsiak egiten dituzten enpresek:
 - a) Salbuespen mugatua: EZ dute jasandako BEZa kentzen.
 - b) Erabateko salbuespena: jasandako BEZa KENDU egiten dute, baldintzak betetzen badituzte.

3.2.2.2. Kenketa-eskubidearen jatorria

Kenketa-eskubidearen jatorria kuota kengarrien sortzapen-unetik dator normalean.

Inportazioetan, eskubidea kuota kengarrien ordainketa-unetik dator.

Likidazio-epe bakoitzari dagokion aitortenean, subjektu pasiboek kendu egin ditzakete epe horretako kuota kengarri guztiak.

Kentzeko eskubidea dagokion epean bakarrik –edo ondorengo bost urtean– erabil daiteke.

3.2.3. BEZaren likidazioa

Enpresaburu eta profesionalek bezeroei egiten dizkieten salmenta eta zerbitzuetan dagokien BEZa biltzen dute.

Nork egiten du aitortpena eta likidazioa? –Subjektu pasiboak (enpresaburuak edo profesionalak).



3.2.3.1. Zein inprimakitan eta epetan egin behar da aitorten-likidazioa?

Zerga honen subjektu pasiboek nahitaez egin behar dute aitorten-likidazioa, epeka.

Normalean, likidazio-epea hiruhileko naturala izaten da.

Bete beharreko inprimakia 300 eredu da. Nahiz eta epe jakin batean eragiketarik ez egon, bete egin behar da.

AITORTEN-LIKIDAZIOA AURKEZTEKO EPEAK

Lehenengo hiruhilekoa	Apirilaren 1etik 20ra
Bigarren hiruhilekoa	Uztailaren 1etik 20ra
Hirugarren hiruhilekoa	Urriaren 1etik 20ra
Laugarren hiruhilekoa	Hurrengo urtarilaren 1etik 30era

Enpresa handiek (6,66 milioi euro baino gehiago fakturatzen dutenek) eta **esportatzaileek** **hilero** aurkeztu behar dute aitorten-likidazioa.

Aurkeztu behar dituzten ereduak: 320 eta 330, hurrenez hurren.

AITORTEN-LIKIDAZIOA AURKEZTEKO EPEA


Hilero	Hurrengo hileko 1etik 20ra
---------------------	----------------------------

3.2.3.2. Likidazioaren emaitza

Likidazioaren emaitza positiboa edo negatiboa izan daiteke. Positiboa bada, ordaindu egin behar zaio Ogasun Publikoari. Negatiboa bada, berriz, bi aukera ditugu:

- Hurrengo urteetako aitorten positiboekin konpentsatzea (bost urtekoak, gehienez).
- Abenduaren 31n egin daiteke urte bakoitzari dagokion diferentzia negatiboa itzultzeko eskaria.

Bildutako BEZa – BEZ kengarria



Atriketa

ZAHOR enpresak honako datuok aurkeztu zituen 2002ko lehenengo hiruhilekoan (€-tan):

Salmentak (tasa, % 16koa).....	1.000.000 €
Salmentak (tasa, % 7koa).....	2.000.000 €
Salmentak (tasa, % 4koa).....	3.000.000 €

Erosketak Penintsulan:

Erosketak (tasa, % 7koa).....	1.000.000 €
Erosketak (tasa, % 4koa).....	1.600.000 €

Finka itzazu likidazioaren emaitza eta aitorpena aurkezteko epeak.

BEZaren Sortzapena Salmentan:

Zerga-oinarria	BEZaren %	Kuota
3.000.000	4	120.000
2.000.000	7	140.000
1.000.000	16	160.000
Bildutako BEZa, guztira.....		<u>420.000</u>

BEZ kengarria erosketetan:

BEZ kengarria barne-eragiketetan	134.000
BEZ kengarria inportazioetan	–
BEZ kengarria EB barruko eragiketetan	–
BEZ kengarria, guztira.....	<u>134.000</u>

$$\text{BILDUTAKO BEZA} - \text{JASANDAKO BEZA} = \text{ZERGA-ZORRA}$$

$$420.000 - 134.000 = 286.000 \text{ €}$$

Zerga-zorra apirilaren 1etik 20ra bitartean ordaindu behar da.

Urteko aitorpen-laburpena (390 eredua): BEZaren inguruko urte osoko eragiketen deklarazioa da.

Subjektu pasibo guztiek –epeka, hilero edo hiru hilero, aurkezten dutenek– ordaindu behar dute.

Honako dokumentuok sartu behar dituzte gutunazalean:

- Urteko laburpen-eredua: 390 (ikus 26. orria).
- Ekitaldiaren deklarazio bakoitzeko ale bat urteko gutunazalerako.

Gutunazal hori BEZaren azken aitorpenarekin batera aurkeztu behar da.

Ariketa

GARAY EA enpresak 2002an egin dituen eragiketak, €-tan.

Erosketak:

Lehenengo hiruhilekoan	7.000.000 €
Bigarren hiruhilekoan	6.000.000 €
Hirugarren hiruhilekoan	8.000.000 €
Laugarren hiruhilekoan	10.000.000 €
Erosketa guztien tasa % 16koa da.	

Salmentak:

Lehenengo hiruhilekoa	15.000.000 € (tasa, % 16)
Bigarren hiruhilekoa	16.000.000 € (tasa % 4)
Hirugarren hiruhilekoa	24.000.000 € (tasa % 7)
Laugarren hiruhilekoa	30.000.000 € (tasa % 16)

Bete itzazu hiruhileko bakoitzeko aitortpenak eta urteko aitortpen-laburpena.

URTEKO AITORPEN-LABURPENA:**Erregimen orokorrean egindako eragiketak****A. Zerga-oinarria eta kuota**

		Zerga-oinarria	Tasa (%)	Kuota
Erregimen arrunta	(01)	45.000.000	% 16	(02) 6.100.000
	(03)	24.000.000	% 7	(04) 1.680.000
	(05)	16.000.000	% 4	(06) 640.000
Erregimen berezia	(07)		% 16	(08)
Arte-objektuak, objektu erabiliak...	(09)		% 7	(10)
	(11)		% 4	(12)
	(13)		% 16	(14)
Bidaia-agentzien erregimen berezia	(15)		% 16	(15)
	(17)		% 7	(18)
	(19)		% 4	(20)
EB barruko ondasun-erosketak	(21)			(22)
Oinarri-kuoten aldaketak	(23)			(24)
GUZTIRA	(25)	85.000.000		(26) 8.420.000
(Oinarria eta kuotak)				
Baliokidetasun-gainordaina	(27)		% 0,5	(28)
	(29)		% 1	(30)
	(31)		% 4	(32)
Baliokidetasun gainordai-naren aldaketa	(33)			(34)
BEZaren kuotak eta Baliokidetasun-gainordainak (26+28+30+32+34)				(35) 8.420.000



B. Kenketak

		Kuota kengarriak	
Barneko eragiketetan jasandako kuota kengarriak	Ondare eta zerbitzu arruntak	(36)	4.960.000
Inportazioetan jasandako kuota kengarriak	Inbertsio ondareak	(37)	
	Ondare eta zerbitzu arruntak	(38)	
	Inbertsio-ondareak	(39)	
EB barruan Jasandako kuota kengarriak	Ondare eta zerbitzu arruntak	(40)	
	Inbertsio-ondareak	(41)	
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziko konpentsazioa		(42)	
Inbertsioen erregularizazioa		(43)	
Kenketen batura (36+37+38+39+40+41+42+43)		(44)	4.960.000
Erregimen orokorraren emaitza (35-44)		(45)	3.460.000
<u>Urteko likidazioaren emaitza</u>			
Emaizen batura (45+63)		(64)	3.460.000
Aurreko urteko kuoten konpentsazioa		(65)	
Likidazioaren emaitza (64-65)		(66)	
<u>Zergapena, lurraldeka</u>			
Lurralde komuna	(67): % 100		
Araba	(68): %	Gipuzkoa	(69): %
Bizkaia	(70): %	Nafarroa	(71): %
Lurralde komunari dagokion emaitza (64x67)			(72)
Aurreko urteko kuoten konpentsazioa			(73)
Lurralde komunari dagokion urteko likidazioa (72-73)			(74) 3.460.000
<u>Likidazioen emaitza</u>			
Ekitaldian aitortpenetan egindako BEZaren sarrerak, guztira		(75)	3.460.000
Hileko itzulketak; BEZagatik baliokidetasun-erregimenean eta antzekoetan dauden subjektu pasiboak		(76)	
Azken epealdiaren aitortpenaren emaitza		(77)	
konpentsatzeko bada		(78)	
Azken epealdiaren aitortpenaren emaitza itzultzeko bada			
<u>Eragiketen bolumena</u>			
Erregimen orokorreko eragiketak		(79)	85.000.000
Erregimen sinplifikatuko eragiketak		(80)	
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia		(81)	
Baliokidetasun-gainordainaren erregimen berezia		(82)	
EB barruko entrega salbuetsiak		(83)	
Esportazio- eta kenketa-eskubidea duten eragiketa salbuetsiak		(84)	
Eragiketa salbuetsiak, kenketa egiteko eskubiderik gabeak		(85)	
Ondasun higiezinaren entregak eta ohiz kanpoko finantza-eragiketak		(86)	
Inbertsio-ondasunen entregak		(87)	
Eragiketak, guztira (79+80+81+82+83+84+85+86-87)		(88)	85.000.000
<u>Eragiketa bereziak</u>			
EB barruko erosketa salbuetsiak		(89)	
Zergapetu gabeko eragiketak edo subjektu pasiboaren			



aldaketak hilero itzultzeko eskubidea sortzen dutenak	(90)
Zergapetutako eragiketak, hilero itzultzeko eskubidea sortzen dutenak	(91)
Ondasunen muntaia edo instalazioa EBko kide diren beste estatu batzuen artean	(92)
Eragiketa triangeluarren ondorioz egindako ondareen barneko entregak, subjektu pasiboa aldatzen delarik	(93)

3.2.4. Betebehar formalak

Honako betebeharrak dituzte –normalean– subjektu pasiboek:

- Dagozkien jardueren hasiera-, aldatze- edota amaitze-deklarazioak aurkeztea .
- Fakturak eta antzeko dokumentuak jaulki eta kontserbatzea.
- Kontabilitatea Merkataritza Kodeko arauen arabera egitea.
- Beste pertsona batzuekin dituen harreman ekonomikoei buruzko informazioa Administrazioari aurkeztea, aldizka edo eskatzen zaionean.
- Dagozkion aitorpen-likidazioak aurkeztea, zerga ordaintzeko dirua sartzea eta urteko aitorpenaren laburpena ere aurkeztea.

Horrez gain, araudiak agintzen dituen liburu eta erregistroak eguneratuta edukitzea.

3.2.4.1. BEZaren erregistro-liburuak

BEZaren **erregimen orokorrean** dauden enpresaburu eta profesionalek honako liburu hauek eraman behar dituzte:

- Jaulkitako (bidalitako) fakturen erregistroa.
- Jasotako fakturen erregistroa.
- Inbertsio-ondasunen erregistro-liburua.

A) JAULKITAKO FAKTUREN LIBURUA (ikus 24. orria)

Liburu honetan erregistratu behar dira **bidalitako faktura guztiak**, bakoitza zenbaki batekin (zenbatuak) eta korrelatiboki idatziak (erreferentzia agertzen den leku guztietan zenbaki-marka bera), dataren arabera (dataz ordenatuta).

Liburu horietan eragiketa guztiek egon behar dute: zergapetuek, salbuetsiek eta autokontsumoak.

Data bera duten faktura-multzoaren idazpen bakarra egin daiteke, baldin eta denen artean ez badute 2.200 € gaingitzen, BEZa barne.

B) JASOTAKO FAKTUREN LIBURUA (ikus 25. orria)

Liburu honetan idatzi behar dira erositako ondasun eta zerbitzuengatik **jasotako fakturak** edo horiek ordezkatzeko dokumentuak, jaso diren dataren arabera korrelatiboki zenbatuak.

Data bereko faktura bakoitza 45 €tik beherakoa bada, eta guztira ez badira 2.200 €, laburpen-idazpen bakarra egin daiteke liburuan.



C) INBERTSIO ONDASUNEN ERREGISTRO LIBURUA

Liburu honetan ondasun higikor eta higiezinaren erosketen idazpena egin behar da, baldin eta lan-tresnatzat erabilgarri badira, honako salbuespen hauekin:

- a) Bulegoko materiala, unitateko kostua 1.200 €tik beherakoa bada.
- b) Osagarriak eta ordezeko piezak.
- c) Beste inbertsio-ondasun batzuen konponketak.
- d) Ontziak eta bilgarriak.
- e) Langileen jantziak

Liburu guztiak argi, garbi eta zehatz eraman behar dira, dataren arabera ordenaturik, espazio txuri, interpolazio, harraskatze eta zirriborrerik gabe.

Kontabilitatea eramateko epe maximoa zergaren likidazioarena eta ordaintzearena da; baina, fakturak jaulkitzen ez badira (edo horiek ordezkatzan dituzten dokumentuak), zazpi egunekoa da.

3.2.5. Erregimen bereziak

Erregimen orokorretik kanpo enpresaburuen zenbait jardueratarako hainbat erregimen berezi ezartzen ditu BEZaren legeak, zergaren kudeaketa errazteko asmoz, sektore batzuen ezaugarri bereziak kontuan harturik.

Honako hauek dira erregimen bereziak:

- a) Erregimen sinplifikatua.
- b) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia.
- c) Erabilitako ondasunen, artelanen, antzinako gauzen eta bildumagaien erregimen berezia.
- d) Bidaia-agentzien erregimen berezia.
- e) Txikizkako merkataritza erregimen bereziak:
 - Baliokidetasun-gainordainaren erregimena.
 - Zerga-oinarrien proportziozko zehaztapenerako erregimen berezia.

3.2.5.1. Erregimen sinplifikatua

Aukerakoa da. Baina espresuki uko egiten ez bazaio, hori aplikatzen da.

Dena den, erregimen sinplifikatuan egoteko baldintza batzuk bete behar dira :

- Pertsona fisikoa izan behar da.
- Ohiko jarduera izan behar da, BEZaren araudian jasoa.
- Aurreko urteko eragiketen bolumenak ez du 50 milioitik gorakoa izan behar.
- Subjektu pasiboek sektore bakoitzari dagokion **indize edo moduluen** bidez finkatu behar dute sartu behar duten BEZaren kuota.
- Urteko kuota Ogasun Publikoak zehazturiko **indize edo moduluen** bidez kalkulatu behar da. Hiru hilabetez behin kuotaren laurdena sartu behar da.

3.2.5.2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia

- Honako hauek dira ezaugarriak:
- Aukerakoa da.
- Nekazaritza-, abeltzaintza-, arrantza- eta baso-ustiapenen titularrak diren pertsona fisikoak behar dute izan.
- Subjektu pasiboek ez dute BEZa biltzeko eta likidatzeko obligaziorik, ezta kontabilitatea edo erregistroa eramatekorik ere.



3.2.5.3. Erabilitako ondasunen, artelanen, antzinako gauzen eta bildumagaien erregimen berezia

- Aukerakoa da.
- Mota honetako ondasunen entregak egiten dituzten subjektu pasiboei aplikatu behar zaie:
- Erabilitako altzarien birsalmenta.
- Jatorrizko arte-objektuen salerosketa.
- 100 urtetik gorako antzinatasuna duten objektuak.
- Bildumatzeko objektuak.

3.2.5.4. Bidaia-agentzien erregimen berezia

- Nahitaezkoa da.
- Bidaia-agentziei eta zirkuitu turistikoen antolatzaileei aplikatzen zaie.

3.2.5.5. Txikizkako merkatarien erregimen bereziak

BEZaren legearen arabera, honako baldintzok betetzen dituztenak dira txikizkako merkatariak:

- Ondasunak inongo eraldatze edo transformaziorik egin gabe saltzen dituztenak.
- Salmenten % 80 baino gehiago azken kontsumitzaileei egiten dizkietenak (hau da, kontsumitzaileei, ez beste enpresa edo profesional batzuei).

Txikizkako merkatariari dagozkion erregimen bereziak honako hauek dira:

- a) Baliokidetasun-gainordainaren erregimena.
- b) Zerga-oinarrien proportziozko zehaztapenerako erregimen berezia.

Zerga-oinarrien proportziozko zehaztapenerako erregimen berezia.

Zerga-tasa desberdinetako ondasunen entregak egin ohi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek aukerakoa dute, baliokidetasun-errekarguaren erregimena aplikatzen zaienen artean ez badaude.

Baliokidetasun-gainordainaren erregimena.

Txikizkako merkatariak gehien erabiltzen dutena da.

Derrigorrean aplikatzen zaie honako hauei: txikizkako merkataritzan ari diren pertsona fisiko eta PFEZan zuzeneko zenbatespenean dauden entitateei. Azken horietako kideek pertsona fisikoak izan behar dute; horien jarduerak, berriz, erregimen horretatik ez-salbuetsiak.


Erregimen honetan ez da likidaziorik egin behar, ezta erregistro-libururik eraman behar ere. Hornitzaileek txikizkariari BEZaren gain ordain bat kobratzen (biltzen) diote.

BEZaren tipo bakoitzari dagokion gainordaina hau da:

BEZaren TASA	BALIOKIDETASUN-GAINORDAINA
% 16	% 4
% 7	% 1
% 4	% 0,5

Hori dela-eta, txikizkariak hainbat tasaren batura jasaten du: % 20, % 8, % 4,5 hurrenez hurren.

Baina salmentetan ezin du gainordainik kobratu, hau da, gainordainak erraztasunen (libururik gabe, aitortpenik gabe) prezioa dira.



Horregatik, hornitzaileak dira gainordaina biltzen dutenak eta ondoren Ogasunari dirua ematen diotenak.

Adibidea:

ULMA E.KOOP enpresak baliokidetasun-gainordaina erregimenean dagoen txikizkari bati ontziratze-makina bat saldu dio 2.000 €tan. Makina horren tasa % 16 izanik:

Kalkulatu txikizkariak ordaindu behar duen fakturaren zenbateko osoa.

Soluzioa:

Zerga-oinarria	2.000 €
BEZa, % 16	320 €
Baliokidetasun-gainordaina, % 4 / 2.000 €	80 €
FAKTURAREN ZENBATEKO OSOA	<u>2.400 €</u>

Ariketa

Txintxurreta EA enpresak ondoko eragiketak egin ditu (€-tan) 2002ko bigarren hiruhilekoan:

– Bulegoko materialaren erosketa	400 €
– Telefono-fakturaren ordainketa	500 €
– Elektrizitate-fakturaren ordainketa	600 €
– Salgaien erosketa (% 16)	2.000 €
– Lehengaien erosketa (% 7)	4.000 €
– Biltegiaren alokairua	700 €
– Langileen nominaren ordainketa	16.000 €
– Suteak aurreikusteko aseguru-poliza	800 €
– Ordenagailuaren erosketa	1.000 €



– Salmentak, baliokidetasun-gainordainaren erregimenean dauden txikizkari (% 16)	20.000 €
– Salmentak (% 7)	30.000 €

Eskatzen da:

Egin ezazu BEZaren aitorpen-likidazioa, inprimaki-eredu ofiziala erabiliz.

Soluzioa:

Eragiketak:	
Bulegoko materiala	$400 \times \% 16 = 64 \text{ €}$
Telefono-faktura	$500 \times \% 16 = 80 \text{ €}$
Elektrizitate-faktura	$600 \times \% 16 = 96 \text{ €}$
Salgaiak	$2.000 \times \% 16 = 320 \text{ €}$
Lehengaiak	$4.000 \times \% 7 = 280 \text{ €}$
Alokairua	$700 \times \% 16 = 112 \text{ €}$
Ordenagailuen erosketa	$1.000 \times \% 16 = 160 \text{ €}$
JASANDAKO BEZa, GUZTIRA	<u>1.152 €</u>
Salmentak:	
Salmentak txikizkari (% 16)	$20.000 \times \% 16 = 3.200 \text{ €}$
Baliokidetasun-gainordaina (% 4)	$20.000 \times \% 4 = 800 \text{ €}$
Salmentak (% 7)	$30.000 \times \% 7 = 2.100 \text{ €}$
BILDUTAKO BEZaren TOTALA	<u>6.100 €</u>

Oharra:

- 1) Esportazioetan ez da BEZa biltzen; alderantziz: kasu gehienetan ken daiteke jasandako BEZa, baina ez dugu datu hori eman.
- 2) Langileen nomina ez dago zergapeturik.
- 3) Aseguruak salbuetsiak daude.

$$\text{ZERGA-KUOTA} = 6.100 - 1.152 = 4.948 \text{ € SARTU BEHAR DIO OGASUNARI}$$

Trakasteko eta ikasteko ariketak

- 1) Azaldu zein diren salbuespen mugatuaren eta erabatekoaren arteko desberdintasunak. Adibideak jarri.
- 2) Nola kalkulatzen da BEZaren zerga-zorra?
- 3) Jasandako BEZaren kenketa egiteko behar-beharrezkoa al da faktura edukitzea?
- 4) Zein ezaugarri izan behar ditu faktura horrek?
- 5) Zein epetan eta inprimaki-eredutan egiten da BEZaren likidazioa?
- 6) Zein erregistro-liburu eraman behar dira?
- 7) Zein dira erregimen bereziak? Noiz aplikatzen dira?
- 8) Zein kasutan aplikatzen dira baliokidetasun-gainordainak? Zenbat dira?



9) CEGASA enpresak honako eragiketok egin ditu (€-tan) 2002an:

Lehenengo hiru hilekoan

Langileen nominak	40.000.000 €
Eraikuntzen alokairuak	100.000 €
Telefono-gastuak	150.000 €
Hornidurak (elektrizitatea)	200.000 €
Lehengaien erosketak (% 16)	2.000.000 €
Esportazioak Iberoamerikara	10.000.000 €
Salmentak	100.000.000 €

Bigarren hiru hilekoan

Langileen nominak	40.000.000 €
Eraikuntzen alokairuak	110.000 €
Telefono-gastuak	160.000 €
Hornidurak (elektrizitatea)	240.000 €
Lehengaien erosketak (% 16)	4.000.000 €
Salmentak (% 7)	20.000.000 €
Salmentak (% 16)	50.000.000 €

Hirugarren hiru hilekoan

Langileen nominak	40.000.000 €
Eraikuntzen alokairuak	120.000 €
Automobilen aseguruak	200.000 €
Errepresentazio-gastuak (bazkariak bezeroekin...)	300.000 €
Salmentak Ceutan, Melillan eta Kanariar Uharteetan	58.000.000 €
Salmentak Errusian eta Japonian	40.000.000 €

Laugarren hiru hilekoan

Langileen nominak	40.000.000 €
Eraikuntzen alokairuak	150.000 €
Telefono-gastuak	100.000 €
Hornidurak (elektrizitatea)	200.000 €
Lehengaien erosketak (% 16)	6.000.000 €
Salmentak txikizkarietako baliokidetasun erreg. (% 7)	60.000.000 €

Eskatzen da:

- 2002ko BEZaren likidazioa.
- Urteko aitorpen laburtua betetzea.



Beste zenbait ariketa

- 1) Enpresaburu batek mahai bat erosi du 100 €-tan; hornitzaileak, berriz, BEZaren % 16 aplikatu du fakturan. Zenbat ordaindu behar du, guztira?
- 2) Aurreko ariketako enpresaburuak 150 €-tan saldu du mahaia, hau da, prezioa 50 € igo du, eta, horrez gain, % 16ko BEZa kobratuko dio bezeroari. Adierazi zein diren enpresaburu horrek:
 - Jasandako BEZa
 - Bildutako BEZa
 - Zerga-kuota:
 - Eragiketa horren etekina
- 3) Enpresaburu batek honako eragiketa hauek egin ditu 2002ko ekitaldiaren lehenengo hiruhilekoan (BEZa, % 16).

– Lehengaien erosketa	120.000 €
– Makinariaren erosketa	300.000 €
– Soldatak eta alokairuak	80.000 €
– Inportazioak	40.000 €
– Hornidurak	20.000 €
– Publizitatea, sustapena eta harreman publikoak	15.000 €
– Mailegu baten interesen ordainketa	10.000 €
– Letren kobrantza kudeatzeagatikoko komisioak	8.000 €
– Esportazioak	100.000 €
– Kanbio-letren erosketa	500 €
– Produktu burutuen salmentak (Espainia barruan)	800.000 €
– Produktu burutuen salmentak (Kanariar Uharteak, Ceuta, Melilla)	50.000 €

Kalkulatu Bildutako eta Jasandako BEZa; ondoren, bete ezazu dagokion 300 EREDUA.

- 4) Enpresaburu batek honako datuok ditu bere hiruhileko aitortpena egiteko, BEZaren 300 EREDUAN:

ERAGIKETA	TASA	ZERGA-OINARRIA (€)
Erosketak enpresa espainiarrei	% 16	80.000
Erosketak enpresa espainiarrei	% 7	200.000
Erosketak enpresa alemaniarrei	% 16	50.000
Erosketak enpresa amerikarrei (AEB)	% 16	40.000
Salmentak (Espainia barruan)	% 16	600.000
Salmentak baliokidetasun-gainordaineko erregimenean dauden txikizkariak (Espainia barruan)	% 16	300.000

Bete ezazu 300 EREDUA.



- 5) Pepe Salaberria jaunak antzinako gauzen salerosketan dihardu. Dakizueenez, jarduera honi erabilitako ondasunen erregimen berezia aplikatzen zaio.

XVIII. mendeko altzari 200.000 €-tan (BEZa barne) saldu du. Erosi, berriz, 120.00 €-tan egin zuen (BEZa barne).

Adierazi:

- Etekinaren marjina
- BEZaren kuota etekinen gain.

- 6) Aurreko eragiketaren salmenta-prezioa 150.000 €-koa izan balitz, kalkulatu:

- Etekinaren marjina
- BEZaren kuota etekinen gain.

- 7) Donostiatik Zarautzera joateko autobus-billetea 2 euro kostatzen da (BEZa barne). Bilatu zerga-oinarria eta sortutako kuota.

- 8) ZELAIA-OLARA SUPERMERKATUAK (txikizkako enpresa) honako erosketak egin ditu:

Artikuluak	Unitate-kopurua	Prezioa (€-tan)	Desk.	BEZa	B.G.	GUZTIRA
"TOMA" tomate frijitua	4.000	0,3	% 10			
"TUNANTE" latako atuna	2.000	1	% 20			
"ABESLARIA" desodorantea	800	2	% 30			
"TXURIBELTZ" dentifikoa	700	3	% 20			
"GORRI-GORRI" arrautzak	500	1	% 5			
"GIBELON" pateak	300	2	% 10			

Adieraz itzazu BEZaren kuotak eta baliokidetasunaren gainordainarena.

- 9) Produktuak saltzen dituen enpresa baten hiru hileko aitorpena kalkulatu (BEZaren 300 EREDUA):

- Drogeria-artikuluen **salmentak**, baliokidetasun gainordainaren erregimenean dauden txikizkariak 160.000 €
- Drogeria-artikuluen **salmentak** 70.000 €
- Drogeria-artikuluen **erosketak** enpresa frantses bati 50.000 €
- Gazta-**erosketak** enpresa frantses bati 30.000 €
- Gazta-**salmentak** (Espainia barruan) 48.000 €
- Gazta-**salmentak** ospitaleei 20.000 €
- Pertsonal-gastuak 32.000 €
- Lokalen alokairu-gastuak 10.000 €
- Garbiketa-produktuen **erosketak** Txileko enpresa bati 22.000 €
- Makinaria-**erosketak** Italiako enpresa bati 40.000 €
- Hornidura-gastuak (elektrizitatea eta telefonoa) 5.000 €
- Ibilgailuen eta lokalen aseguruak 4.000 €
- Laginen dohaineko entregak (gastak) txikizkariak 2.000 €
- Laginen dohaineko entregak (gastak) ospitaleei 1.500 €



10) PELLO MENDIZABAL enpresak honako eragiketa hauek egin ditu 2002ko ekitaldian:

01-03 - Telefono-fakturaren ordainketa	200 €
01-07 - Elektrizitate-fakturaren ordainketa	300 €
01-10 - Fruta-salmenta BGEBko txikizkariet*	120.000 €
01-15 - Salgai-erosketa (%16)	30.000 €
02-01 - Esportazioak Kanadara	12.000 €
03-12 - Lapurreta-aseguruaren ordainketa	1.000 €
04-01 - Produktu-salmenta BGEBko txikizkariet (% 7)	10.000 €
05-01 - Material fotografikoaren erosketa	11.000 €
05-08 - Posta-zigiluaren erosketa	100 €
05-30 - Papertegiko materialaren erosketa	400 €
06-01 - Produktu-erosketa (% 16)	40.000 €
06-01 - Produktu-erosketa (% 7)	20.000 €
06-01 - Produktu-erosketa (% 4)	30.000 €
07-12 - Hogeitazko telebistaren salmenta	15.000 €
09-23 - Salmentak enpresa frantses bati	20.000 €
10-01 - Gas-fakturaren ordainketa	300 €
10-13 - Biltegiko alokairuaren ordainketa	10.000 €
10-19 - Salmentak (% 16)	38.000 €
10-26 - Erosketak (% 7)	13.000 €
11-28 - Papertegiko materialaren erosketa	600 €
12-16 - Salmentak BGEBko txikizkariet (% 16)	16.000 €
12-16 - Salmentak BGEBko txikizkariet (% 4)	30.000 €

* Baliokidetasun-gainordaineko erregimen berezia

Bete itzazu BEZaren aitortzearen lau hiruhilekoen inprimakiak, baita urteko laburpenarena ere.

11) Erantzun honako galdera hauei:

- Enpresa partikular bat elkarte anonimo bihurtu da, jarduera berberarekin eta aurrekoaren aktiboaren zati batekin eta pasibo osoarekin. Zergapeturiko eragiketa al da bihurtze hori?
- Produktuak promozionatzeko kartelen eta posterren entregak zergapetuak al daude?
- Merkataritza-ordezkarien zerbitzuak noiz daude zergapetuak eta noiz ez?
- Lan-kooperatiba batek beste lan-kooperatiba bati egiten dizkion ondasun-entregak zergapetuak al daude?
- Hautzaindegia zerbitzu-emateak noiz daude zergapetuak eta noiz ez?
- Lan-mendekotasunean dagoen erlazioa zein kasu berezitan dago zergapeturik?

12) Argitu honako zantza hauek:

- Italiako enpresa batek jantziak saltzen ditu Espainian, Sabadellen duen biltegi baten bitartez. Espainiako BEZa ordaindu beharra al dauka?
- Alacanten dagoen altzari-fabrika batek herritar frantses bati altzariak saldu dizkio, honek Elxen duen txaleterako.
- Galiziako esportatzaile batek lukainak saltzen dizkio –Brujasen duen biltegi baten bitartez– Hanburgon dagoen euskal jatetxeari.



- d) Madrilgo fotografia-enpresa batek estudio bat ireki du Kanariar Uharteetan. Marokon erreportaje bat egiteko Suediako enpresa bat kontratatu du; ekipoa eta langileak, berriz, Kanarietako estudiotik eraman ditu.
- e) Madriletik Parisera bidaiarien garraioa, joan-etorria, autobusez.
- f) Kirol-talde batek futbol-lehiaketa bat antolatu du Italian.
- g) Lyongo Espainiako Etxeak gastronomia-jardunaldi batzuk antolatu ditu, inguru hartako espainiar emigranteentzat. Espainiatik eramandako produktuak eta langileak erabili ditu.
- h) Genoatik Aljeriarako bidea egiten duen itsasontzi batek Portugaldik ekarritako merkantziak kargatu ditu Bartzelonan.
- i) Espainian bizi den abokatu batek txosten juridikoa landu du, Frantziako enpresa batek Espainian finkatzerik badaukan aztertzeko.
- j) Espainiar abokatu batek bere gain hartu du Italian helbideratutako merkatarari baten defentsa. Marbellan oinezko bat harrapatzea egotzen diote merkataritari.
- k) Espainiar abokatu batek bere gain hartu du bitxiak lapurtzea egotzi dioten iparramerikar baten defentsa.
- l) Espainian bizi den arkitekto batek eraikuntza-proiektu bat egin du Pariseko enpresa espainiar batentzat.
- m) Abokatu batek auzi-eske bat aurkeztu du Erresuma Batuko epaitegien aurrean, espainiar enpresa baten izenean.
- n) Abokatu batek bere bezeroaren ezkontza baliogabetzeko eskatu du. Ezkontza Gibraltarren izan zen.
- o) Ingeniari alemaniar bat Fuengirolan zentral nuklear bat egiteko proiektua prestatzen ari da, Sevillana Electrica S.A. enpresaren aginduz.

13) BEZaz zergapeturiko eta salbuetsi gabeko eragiketa bat egin behar da honako datuokin:

– Prezioa	150 €/u
– Kantitatea: 20 unitate	
– Zerga berezia	20 €/u
– Garraio-kostu bakuna	2 €/u
– Interesen ordainketa	20 €
– Salgaiak ikuskatzeko ordaindu diren tasak, bezeroaren orde	2 €/u
– Dirulaguntza bakuna: prezioaren % 10, gehi 1 €	

Eskatzen da:
Zerga-oinarria finkatzea.

14) BEZaz zergapeturiko eta salbuetsi gabeko eragiketa bat egin behar da honako datuokin:

- Eragiketaren zenbatekoa, hobariak eta deskontuak kontuan hartu gabe: 20.000 euro.
- Ohiko bezeroen hobaria: % 5.
- Ekitaldi-amaierako deskontu berezia: % 15.
- Azkar ordaintzeagatik deskontua: zenbateko netoaren (garbiaren) % 1; fakturatik kanpo, % 3 gehiago.



- Ekitaldi osoaren rappelak (80.000 € baino gehiagoko erosketak izan direnez, % 1, hau da: 800 €).
- Kalitateetan hutsuneak izateagatik deskontua: 2.000 €.

15) X enpresak BEZaz zergapeturiko eragiketak bakarrik egiten ditu. Honako hauek egin ditu urtean zehar:

	1 hiruhil.	2 hiruhil.	3 hiruhil.	4 hiruhil.
Bildutako BEZa				
Hiruhilekoaren guztizkoa	60.000 €	53.000 €	70.000 €	65.000 €
Jasandako BEZa				
Ondasunen erosketak	28.000 €	29.000 €	32.000 €	27.000 €
Zerbitzu-emateak	10.000 €	11.000 €	12.000 €	14.000 €
Desplazamenduak	2.000 €	1.500 €	1.600 €	1.700 €
Finantza-gastuak	130 €	140 €	145 €	150 €
Bezeroenganako arreta-gastuak ...	155 €	160 €	185 €	200 €
Langileenganako arreta-gastuak ...	–	200 €	–	1000 €
Inportazioak.....	10.000 €	8.000 €	9.000 €	11.000 €
Makinerian eginiko inbertsioak	–	3.000 €	–	2.000 €
Turismo-ibilgailutan eginiko inbertsioak.....	2.505 €	–	–	–
Altzaritan eginiko inbertsioa	–	1000 €	2.000 €	–

16) Bigarren hiruhilekoan, honako eragiketak egin ditu arkitekto batek:

Sarrerak

0 - Profesionalen zerbitzu-sarien zenbatekoa 100.000 €

Gastuak

1 - Langileen soldatak eta GS	10.000 €
2 - Bulegorako materiala erostea	4.000 €
3 - Arkitektura-liburuak erostea	1.000 €
4 - Desplazamendu-gastuak eraikuntzetara	2.000 €
5 - Otorduak eta ostatu hartzea (lanarekin lotuta daudenak)	4.000 €
6 - Elektrizitatea, ura eta telefonoa	3.000 €
7 - Estudioaren alokairua	8.000 €
8 - Arkitektoen Elkargoaren kuotak	4.000 €
9 - Abokatu baten zerbitzuak ordaintzea	3.000 €
10 - 'Anaitasun Nazionala'ren kuotak ordaintzea	1.000 €
11 - Erantzukizun Zibileko Aseguruaren kuotak ordaintzea	2.000 €
12 - Fotokopiagailu bat erostea	10.000 €
13 - Jatorrizko eskultura bat erostea estudiorako	2.000 €
14 - Urrezko objektu bat erostea estudiorako	3.000 €

Kalkulatu: BEZaren zerga-kuotak

17) Jarri EGIA (E) edo GEZURRA (G) honako esaldi hauetan. Arrazoitu erantzuna.

1. BEZa kontsumoa zergapetzen duen zerga zuzena da.
2. Nekazaritza sektorearentzako makineriaren erosketak % 7az zergapetuta dago.
3. Normalean, BEZa ez da enpresarentzat kostu bat.



4. Hornitzaileari aurrerakin bat egiten bazaio, ez zaio BEZa ordaindu behar faktura jaso arte.
 5. Langileek enpresei ematen dizkieten zerbitzuak eragiketa salbuetsiak dira.
 6. Erabateko salbuespena duten eragiketek jasandako BEZa kengarria da.
 7. Finantza-eragiketak salbuetsiak daude eta jasandako BEZa kengarria da.
 8. Enpresa batek erabateko salbuespena duten eragiketak egiten baditu, eta besterik ez, jasandako BEZa kengarria da.
 9. Bankuek kargatzen dituzten atzeratutako ordainketen interesak zerga-oinarriaren zati dira.
 10. Erregimen sinplifikatu berezian dauden subjektu pasiboek ez dute erregistro libururik eraman behar.
 11. Nekazaritza-erregimen berezian dauden subjektu pasiboek ez dute kentzen erosketetan jasaten duten BEZa.
 12. Erabilitako ondasunen erregimen berezian dagoen subjektu pasiboak erosketa-faktura bat jaulki behar du erosketa bakoitzeko.
 13. Txikizkako merkataria pertsona fisikoak dira eta aukera dezakete baliokidetasun-gainordainaren erregimen bereziaren eta zerga-oinarrien proportziozko zehaztapeneko erregimen bereziaren artean.
 14. Kasu batzuetan, BEZaren zerga-oinarria ez dator bat baliokidetasun-gainordainaren zerga-oinarriarekin.
 15. Baliokidetasun-gainordainaren erregimen bereziko txikizkako merkatariek ahal dute kendu beren likidazioetan jasandako BEZa eta gainordaina.
 16. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziko subjektu pasiboak ez daude zerga likidatzera beharturik.
-

Soluzioak

11. ariketa

- a. Zergapetua dago, negozioaren zati bat transmititzen delako, eta ez negozio osoa.
- b. Publizitatea eta promozioa egiteko objektuak, dohainik emandakoak, ez daude zergapeturik.
- c. Ordezkarien zerbitzuak bere kontura direnean bakarrik daude zergapetuak, eta ez enpresa baten langile gisara egiten dituztenean.
- d. BEZaren araudiak ez ditu zergapetzen kooperatibistek bere enpresarentzat egiten dituzten zerbitzuak; bai, ordea, kooperatibak edo langileak egiten dituzten beste guztiak.
- e. Ez daude zergapeturik udalak dohainik emaniko haurtzaindegiz-zerbitzuak. Zergapetuak daude ordaintzen diren haurtzaindegia, publikoak edo pribatuak izan.
- f. Lan-kontraturik gabe zinema-ekoiztetxei zerbitzuak ematen dizkieten artista, zuzendari eta teknikariak. Lan-kontratua balego, ez leudeke zergapeturik.



12. ariketa

- a. Eragiketa Sabadellen egin da; horregatik, BEZaz zergapeturik dago (BEZaren eremuan).
- b. Kasu honetan ere BEZaz zergapeturik dago, eragiketa BEZaren eremuan egin delako.
- c. Eragiketa ez bada Penintsulan edo Balear Uharteetan egiten, EZ dago BEZaz zergapeturik.
- d. Eragiketa Kanariar Uharteetan egin da. Establezimendu iraunkorra duelako, EZ dago BEZaz zergapeturik.
- e. Autobus-bidaietan soilik Madril eta Frantziako muga arteko zatia dago zergapeturik, joan-etorrian.
- f. Partiduak, berriz, jokatzen diren tokian zergapetzen dira, Italian kasu honetan. Espainian EZ daude zergapeturik.
- g. Frantzian ematen da zerbitzua. Espainian EZ dago zergapeturik.
- h. Karga-eragiketa Bartzelonan egin da. Zergapetua dago.
- i. Eragiketa Frantzian egin dela jotzen da, bezeroa bertakoa delako eta azken kontsumitzailea ez delako. EZ dago zergapetua.
- j. Eragiketa honetan bezeroa azken kontsumitzailea denez, Espainian egin dela uste du legeak (zerbitzua ematen duenaren egoitza han baitago). BAI, zergapeturik dago.
- k. Zerbitzua gure herrialdetik kanpo eman dela uste dugu, hartzailea EBtik kanpo helbideratua baitago.
- l. Zerbitzua Frantzian eman da; hori dela-eta, Espainian ez dago zergapetua.
- m. Espainian.
- n. Espainian.
- o. Espainian.

13. ariketa

Prezioa (150 x 20)	3.000 €
Zerga berezia (20 x 20)	400 €
Garraio-kostuak (2 x 20)	40 €
Interesen ordainketa	20 €
Ikuskaritza-tasak (ez daude sartuta)	—
Diru-laguntza (bakarrik prezioarekin lotua)	
(% 10 x 150 x 20)	300 €
<u>Zerga-oinarria</u>	<u>3.760 €</u>



14. ariketa

Prezioa	20.000 €
Hobaria (% 5)	1.000 €
Deskontu berezia (% 15).....	3.000 €
Berehala ordaintzeagatiko deskontua (% 1/16.000).....	160 €
<u>Zerga-oinarria.....</u>	<u>15.840 €</u>

Falta diren deskontuak:

- fakturaz kanpoko berehala ordaintzeagatiko deskontua.(480 €)
- rappelak erosketa-bolumenagatik (800 €)
- kalitate-akatsengatik (2.000 €)

Hauek guztiak kengarriak dira 300 ereduan, zerga-oinarria kalkulatu eta gero.

15. ariketa

Hiruhileko bakoitzean, BEZaren kalkulua horrela egin behar da:

Lehenengo hiruhilekoa

Bildutako BEZa		60.000 €
– Erosketak	28.000 €	
– Jasotako zerbitzuak	10.000 €	
– Desplazamenduak (ez da kengarria)		
– Finantza-gastuak	130 €	
– Bezeroenganako arreta-gastuak (ez da kengarria)		
– Inportazioak	10.000 €	
– Turismo-ibilgailuetarako inbertsioa (ez da kengarria)		
Jasandako BEZ kengarria		48.130 €
<u>1. hiruhilekoan sartu beharrekoa</u>		<u>11.870 €</u>

Bigarren hiruhilekoa

Bildutako BEZa		53.000 €
– Erosketak	29.000 €	
– Jasotako zerbitzuak	11.000 €	
– Desplazamenduak (ez da kengarria)		
– Finantza-gastuak	140 €	
– Bezeroenganako arreta-gastuak (ez da kengarria)		
– Inportazioak	8.000 €	
– Makinerian eginiko inbertsioak	3.000 €	
– Turismo-ibilgailutan eginiko inbertsioa (ez da kengarria)		
– Altzaritan eginiko inbertsioa	1.000 €	
Jasandako BEZ kengarria		52.140 €
<u>2. hiruhilekoan sartu beharrekoa</u>		<u>860 €</u>

Hirugarren hiruhilekoa

Bildutako BEZa		70.000 €
– Erosketak	32.000 €	
– Jasotako zerbitzuak	12.000 €	
– Desplazamenduak (ez da kengarria)		
– Finantza-gastuak	145 €	



– Bezeroenganako arreta-gastuak. (ez da kengarria)	
– Inportazioak	9.000 €
– Turismo-ibilgailutan eginiko inbertsioa (ez da kengarria)	
– Altzaritan eginiko inbertsioa	2.000 €
Jasandako BEZ kengarria	55.145 €
3. hiruilekoan sartu beharrekoa	14.855 €

Laugarren hiruilekoa

Bildutako BEZa	65.000 €
– Erosketak	27.000 €
– Jasotako zerbitzuak	14.000 €
– Desplazamenduak (ez da kengarria)	
– Finantza-gastuak	150 €
– Bezeroenganako arreta-gastuak (ez da kengarria)	
– Inportazioak	11.000 €
– Makinerian eginiko inbertsioak	2.000 €
– Turismo-ibilgailutan eginiko inbertsioa (ez da kengarria)	
Jasandako BEZ kengarria	54.150 €
4. hiruilekoan sartu beharrekoa	10.850 €

16. ariketa

- * 0- %16
- * 1- ez du BEZik
- * 2- % 7
- * 3- % 4
- * 4- % 16
- * 5- % 16
- * 6- % 16
- * 7- % 16
- * 8- ez
- * 9- % 16
- * 10- ez
- * 11- ez
- * 12- % 16
- * 13- % 16
- * 14- % 16

Bildutako BEZa 100.000 x % 16 = 16.000 €

Jasandako BEZ kengarria	
2- 4.000 X % 7 = 280 €	
3- 1.000 X % 4 = 40 €	
4- 2.000 X % 16 = 320 € EZ da kengarria	
5- 4.000 X % 16 = 240 € EZ da kengarria	
6- 3.000 X % 16 = 480 €	
7- 8.000 X % 16 = 1.280 €	
9- 3.000 X % 16 = 480 € EZ da kengarria	
12- 10.000 X % 16 = 1.600 €	
13- 2.000 X % 16 = 320 €	
14- 3.000 X % 16 = 480 €	
Jasandako BEZ kengarriaren zenbateko osoa	5.540 €



Zerga-kuota = Bildutako BEZa – Jasandako BEZ kengarria

16.000 – 5.540 = 11.460 ordaindu beharko luke arkitektoak

17. ariketa

1. BEZa kontsumoa zergapetzen duen zerga zuzena da. **G**
2. Nekazaritza-sektorerako makineria-erosketa %7az zergapetuta dago. **G**
3. Normalean, BEZa ez da enpresarentzat kostu bat. **E**
4. Hornitzaileari aurrerakin bat egiten bazaio, faktura jaso arte ez zaio BEZa ordaindu behar. **G**
5. Langileek enpresei ematen dizkieten zerbitzuak eragiketa salbuetsiak dira. **G**
6. Erabateko salbuespena duten eragiketek jasandako BEZa kengarria da. **E**
7. Finantza-eragiketak salbuetsiak daude; jasaten duten BEZa kengarria da. **G**
8. Enpresa batek erabateko salbuespena duten eragiketak baino besterik egiten ez baditu, jasandako BEZa kengarria da. **G**
9. Bankuek kargatzen dituzten atzeratutako ordainketen interesak zerga-oinarriaren zati dira. **G**
10. Erregimen Sinplifikatu berezian dauden subjektu pasiboek ez dute erregistro libururik eraman behar. **E**
11. Nekazaritza-erregimen berezian dauden subjektu pasiboek ez dute kentzen erosketetan jasaten duten BEZa. **E**
12. Erabilitako ondasunen erregimen berezian dagoen subjektu pasiboak erosketa-faktura bat jaulki behar du erosketa bakoitzeko. **E**
13. Txikizkako merkatariek pertsona fisikoak dira eta badaukate aukeratzea baliokidetasun-gainordainaren erregimen bereziaren eta zerga-oinarrien proportziozko zehaztapeneko erregimen bereziaren artean. **G**
14. Kasu batzuetan, BEZaren zerga-oinarria ez dator bat baliokidetasun-gainordainaren zerga-oinarriarekin. **G**
15. Baliokidetasun-gainordainaren erregimen bereziko txikizkako merkatariek ahal dute kendu beren likidazioetan jasandako BEZa eta gainordaina. **G**
16. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziko subjektu pasiboak ez daude zerga likidatzera beharturik. **E**



4 *Salerosketen ordainketa*

SARRERA

4.1. ORDAINKETA-ERAK

- 4.1.1. Zer dela-eta horrenbeste ordainketa-mota?
- 4.1.2. Ordainketa
- 4.1.3. Dirua

4.2. ESKURAKO ORDAINKETA

- 4.2.1. Ordainagiria
- 4.2.2. Txekea
- 4.2.3. Banku-transferentzia
- 4.2.4. Banku-txartelak

4.3. ORDAINKETA GERORATUA

- 4.3.1. Kanbio-letra
- 4.3.2. Ordaindukoa




SARRERA

Salerosketa kontratu-mota bat da: alde batek (saltzaileak) objektu bat entregatzen du beste aldeak (erosleak) prezioa ordaintzearen truke.

Salerosketen oinarrizko elementu bat, beraz, honakoa da: erosleak jasotako salgai edo zerbitzuak ordaintzeko daukan betebeharra. Ordainketa hori diruz edo diruaren ordeko zerbaiten bidez egin daiteke.

Ordainketa hori eskura egin daiteke –eragiketa egiten den momentuan bertan–, edo, bestela, geroratu. Ordainketa-era bakoitzak ondorio ekonomiko desberdinak dakartza eta inprimaki desberdinak sortzen ditu.



4.1. ORDAINKETA-ERAK

Eskurako ordainketa: entregaren une berean egiten da. Praktikan, egun gutxi batzuk geroago egiten den ordainketari ere eskura edo berehala ordaintzea deitu ohi zaio.

Ordainketa geroratua: ordainketa ez da berehala egiten, baizik eta alde biek adosten duten epean, salgaiak entregatu edo zerbitzua eman ondoren betiere.

Ordainketaz gain entrega ere geroratzen bada, ez da ordainketa geroratua, baizik eta kontratua geroratzea.

Ordainketa geroratuaren barruan ere bi ordainketa-mota ditugu:

- Kredituan egindakoa: ohikoa da enpresa eta hornitzaileen arteko eragiketetan. Ordainketa 30, 60, eta 90 eguneko epean egiten da normalean.



- b) Epeka egindakoa: ordainketa-epeak hiru baino gehiago dira eta zenbait frakzio berdinetan egiten da, guztia ordaindu arte.

Enpresei dagokienez, urtebetekoa izaten da epe laburraren eta epe luzearen arteko muga.

Bestalde, salerosketa geroratuen eragiketek interesak sortzen dituzte –epearen arabera– erosketa-prezioarekiko.

4.1.1. Zer dela-eta horrenbeste ordainketa-mota?

Eskurako ordainketa: deskontuak egiten zaizkio askotan erosleari berehala ordaintzeagatik. Deskontu horiek diru-sarrera izaten dira eroslearen enpresarentzat. Horrez gain, bai eroslearentzat bai saltzailearentzat finantza-sarrera dira, kanpoko diruaren beharrik ez dutelako eta, horrenbestez, horren interesak aurreztu egiten dituztelako.

Ordainketa geroratua:

- a) *Interesik gabe:* eroslearentzat haxe da aukera onena, salgaiak berehala ordaindu beharrik gabe eskuratzen baititu, gainkosturik gabe.
Hornitzaileak (saltzaileak), berriz, hain baldintza onak emanik, erraztu egiten du bere produktuen salmenta.
- b) *Interesekin:* asko erabiltzen da ondasun higiezinak erosteko (makinak, eraikinak...). Enpresak ondasun horiek erosi eta ordaindu aurretik erabil ditzake lanerako. Horren alde txarra interesen ordainketa da, hau da, finantza-kostua.

Kasu batean zein bestean legeak finkatutako interesak ordaindu beharra dauzka erosleak, garaiz ordaintzen ez badu.

4.1.2. Ordainketa

Ordainketa dirutan edo dirua ordezkatzeko duten dokumentuen bidez egin daiteke.

Alde biek adostutako moneta erabili behar da ordainketa egiteko; hori egiterik ez badago, berriz, Espainian erabilera legala duen monetan, eurotan alegia.

Ordainketa egiteko **merkataritza-agiriak** (edo ordainketa egin dela ziurtatzen dutenak) honakook dira:

- A) Ordainagiria
- B) Txekea
- C) Banku-transferentzia
- D) Banku-txartelak eta kreditu-txartelak
- E) Kanbio-letrak
- F) Ordaindukoak ('pagaré' deritzenak)

Ordaindukoak, kanbio-letrak, txekeak eta abar entregatzeak ordainketa-eragina izateko honako baldintza hauek bete behar dira: hartzekodunak haiek diru bihurtzea lehenbizi, edo bere erruagatik diru bihurtzerik ez izatea.

Ordainagiriek, banku-transferentzien agiriek eta abarrek ez dute dirua ordezkatzeko; bai, ordea, ordainketa egin dela frogatzen.



4.1.3. Dirua

Dirutan egindako erosketaren ordainketa Espainiako edo atzerriko monetan egin behar da, aurretik adostutakoaren arabera.

Euroa da Espainiako moneta, Europako Batasuneko gainerako kideena bezala. Aurreko moneta guztiak –pezeta, frankoa, markoa, lira, libera...– 2002ko uztailaren 1ean desagertu ziren.

4.2. ESKURAKO ORDAINKETA

4.2.1. Ordainagiria

Ordainagiria diru-entrega bat egon dela egiaztatzen duen dokumentua da. Saltzaileak, dirua jasotzen duenean, erosleari ematen dio ordainagiria. Ordainketen zehaztasun guztiek agertu behar dute hor, hala nola:

- 1) Idazpurua: igorlearen (saltzailearen) datuak.
- 2) Zenbakia: korrelatiboa izan behar du.
- 3) Diruaren entrega egiten duenaren izena: enpresa-izena, helbidea...
- 4) Ordainagiriaren zenbatekoa (dirua), letraz idatzia.
- 5) Ordainketa-zerzatiaren azalpen laburra (salerosketa bera, kontratua sinatzeko konpromisoa adierazten duen aurrerakin bat...).
- 6) Ordainagiriaren igortze-data eta lekua.
- 7) Dirua jasotzen duenaren sinadura eta zigilua.
- 8) Zenbatekoa (dirua), zenbakiz adierazita.

Zenbakia:-(ar)engandik jaso dugu euro dela eta 2.....-(e)ko.....aren.....-(e)an euro dira	Zk.: euro jaso dugu-(ar)engandik dela eta-(e)n, 2.....-(e)ko.....-aren.....-(e)an Sinadura eta zigilua euro dira
---	--

–Ohiko ordainagiria–



Normalean, ordainagiriak taloitegi baten aleak izaten dira eta bi zati edukitzen dituzte: **ondoa** (ezkerreko zatia) eta **ordainagiria** bera (eskuineko zatia). Ordainagiria deritzona ordainketa egin duenari ematen zaio frogagiri gisa; ondoa izeneko zatia taloitegian geratzen da, igorleak ere ordainketaren frogarik izan dezan. Ordainagiria identifikatu ahal izateko, ordaintzailearen zenbait datu eta zenbaki korrelatibo azaldu behar dute ondoan.

Gaur egungo zenbait ordainketa –argia, telefonoa, ura eta beste zenbait– bankuko kontu korrontearen kargura helbideratzen dira, gero eta gehiago gainera, oso erosoak baita. Nolanahi dela ere, ezinbestekoa da kontu korronte horren titularrak bankuari baimena ematea –aldez aurretik eta idatzita– ordainketak helbideratu ahal izateko.

Idatzizko baimen horri *ordainagiri normalizatua* deitzen zaio. Honako datuok izan behar ditu:

- 1) Igorlearen (saltzailearen) idazpurua.
- 2) Dagokion zenbaki korrelatiboa.
- 3) Igortze-lekua.
- 4) Zenbatekoa (dirua), zenbakiz.
- 5) Igortze-data.
- 6) Mugaeguna: ordainagiriak ordainduta egon behar duen eguna.
- 7) Ordainketaren zergatiaren azalpen laburra.
- 8) Ordainketa helbideratzen den bankuren eta kontuaren datuak.
- 9) Ordaindu behar duenaren izena eta helbidea.
- 10) Ordainagiriaren igorri duenaren izena eta sinadura.
- 11) Inskripzio magnetikoa egiteko erreserbatutako eremua.

	ZENBAKIA (2)	IGORTZE-LEKUA (3)		ZENBATEKOA (4)
	IGORTZE-DATA (5)			MUGAEGUNA (6)
.....(7).....				
..... moduan kobratua				
(1)	BANKUAN/KUTXAN ORDAINTZEKO (8)		BULEGOA (8)	KTU. KTE.-ZK. (8)
	ORDAINTZAILEAREN IZENA ETA HELBIDEA (9)			Igorlearen izena eta sinadura
				HELBIDEA (j) (10)
(11)				

–Ordainagiri normalizatua–



Enpresa askok eskaintzen diete beren bezeroei bankutik kobratzeko baimen-inprimakia. Honako datuok izaten dituzte inprimaki horiek:

Bankuaren izena
Sukurtsala
Kontu korrontearen zenbakia, edo aurrezki-libretarena.
Kontuaren titularraren sinadura

Atriketak

- 1) Egaña S.L. enpresak –Barria kaleko 33.ean helbideratua, [20560, Oñati (Gipuzkoa) IFK: 20516027] 134 zenbakidun ordainagiria igorri zion Soraluze Ostatua S. Kooperatiboari 2002ko ekainaren 8an, 1.000 €-ko zorra kitatzeko (752 zenbakidun faktura).
- 2) Roa Biltegiak, S.A. enpresak –(Baserria kaleko 38.ean helbideratua, [20560, Oñati (Gipuzkoa) IFK: C-23/447865]– 2314 zenbakidun ordainagiria igorri zion Pedro Ugarte jaunari –IFK: C-25/768793, Iturriotz kaleko 13.ean helbideratua, 20520, Arrasate (Gipuzkoa)–, 2300 €-ko 5487 zenbakidun faktura ordaintzeko, 2002ko azaroaren 28ko dataz.
Ordainagiria Lankide Aurrezkian dago helbideratuta, 3 bulegoan. Kontu-korrontearen zenbakia: 45.233.3.
Mugaeguna: 2002ko abenduaren 6a.

1) SOLUZIOA:

Zenbakia: 134 ...Soraluze Ostatua, S.Koop..... -(ar)engandik jaso dugu mila..... euro ...752 zenbakidun faktura..... dela eta Oñati.-(e)n, 2002-(e)ko ekaina-ren 8an Dira...// 1.000 //.....euro	EGAÑA E.M. Barria kalea, 33 20560 – OÑATI (GIPUZKOA) CIF: 20516027 Zk.: 134 mila..... euro jaso dugu ...Soraluze Ostatua, S.Koop..... -(ar)engandik 752 zenbakidun faktura..... dela eta ...Oñati..... -(e)n, 2002-(e).ko ekaina-aren 8.-(e)an Sinadura eta zigilua Dira...// 1.000 //.....euro
---	--



2) SOLUZIOA:

ROA BILTEGIAK E. ANONIMOA Baserria kalea, 38 20560 OÑATI (GIPUZKOA) ----- IFK:C23 447865	ZENBAKIA 2314	IGORTZE-LEKUA OÑATI	ZENBATEKOA 2.300 €
	IGORTZE-DATA 2002ko azaroaren 28a		MUGAEGUNA 2002ko abenduaren 6a
	5487 zenbakidun fakturaren ordainketa.....		
	 moduan kobratua		
	BANKUAN/KUTXAN ORDAINTZEKO LANKIDE AURREZKI KUTXA	BULEGOA 3	KTU.KTE.-ZK. 45.233.3
	ORDAINTZAILEAREN IZENA ETA HELBIDEA PEDRO UGARTE Iturrioz kalea, 13 20.520 ARRASATE (GIPUZKOA) IFK: C25 768793		Igorlearen izena eta sinadura HELBIDEA (j)

4.2.2. Txekea

4.2.2.1. Kontzeptua

Dirua ordezkatzeko duen agiria edo dokumentua da.

Sinatzailearen banku-kontutik agiriak dioen kantitatea ateratzeko eskubidea ematen duen dokumentua da txekea. Normalean, edozeinek eska diezaioke txeke-taloitegi bat bankuari, kontu korrontea irekiz gero.

Salerosketan, erosleak jaulkitzen du txekea eta saltzaileari ematen dio, prezioaren ordain gisa.

Saltzaileak txekea diru bihurtzen du bere bankuan edo erosleak fondo-gordailua daukanean, bankuen arteko konpentsazio-mekanismoaren bidez. Horretarako, bankuek txeke edo letretan dituzten elkarren arteko zorrak kalkulatzeko erabiltzen dituzte, eta diferentziak soilik ordaintzen dituzte.

Ordaintze-funtzioa ere badu txekeak, saltzaileak zorrak ordaintzeko erabiltzen badu beste norbaiti dirua transmitituz.

2002/7/18ko 19. Legeak –Kanbio-agirien eta Txekearen Legea– arautzen du txekea.




4.2.2.2. Txekean ager daitezkeen pertsonak

Igorlea: txekea jaulkitzen duen pertsona, ordainketa agintzen duena.

Igorpendua: bankua edo aurrezki-kutxa, igorleak bere diru-gordailua duena.

Edukizalea: txekearen jabetza duen pertsona (lege barruko jabetza, noski). Lehenengo edukizaleari **hartzailea** deitzen zaio.



Endosu-emailea: txekea **endosuaren** bidez transmititzen duen (txekearen jabetza pasatzen duen) pertsona, baina igorlea ez dena.

Endosu-hartzailea: hartzailea (hots, lehen edukizalea) izan gabe txekea endosuaren prozeduraz jasotzen duena.

Bermatzailea: txekearen ordainketa bermatzen duen pertsona, obligaziodun nagusiak (erosleak) ordaintzen ez badu ordaintzeko erantzukizuna hartzen duena.

Igorleak igorpenduari (bankuari) diru-kantitate bat ordaintzeko agindua emanez jaulkitzen du txekea. Aginte hori igorleak eta igorpenduak aurretik elkarrekin adostutako kontratu batetik dator, txekearen kontratutik, hain zuzen ere (ez dauka zertan idatzita egonik). Kontratu horren arabera, txekea ordaintzeko dirua eduki behar du igorleak bankuan.

Txekea bankuan aurkezten denean, igorleak bankuan dirua badu (eta hartzailea zilegizkoa bada), txekea ordaindu beharra dauka bankuak.

Atriketa

Zer ondorio ditu fondorik gabeko txeke baten jaulkipenak?

Erantzuna:

Legeak dioenez, igorleak diru-gordailua duen bankuaren kargura jaulki behar da txekea. Diru-gordailu horren jatorria igorlearen aurrezkiak edo bankuak emandako kreditua izan daitezke.

Dirurik ez balego, titulua ez da baliogabetzen; lege-erantzukizuna, berriz, igorlearena izaten da: txekearen balioaz aparte, horren gaineko % 10 gehiago eta kalte-galerak ere ordaindu beharra dauka.

Ez ahaztu, bestalde, erantzukizun penala, iruzur-delitua (txeke edo kanbio-negozio faltsuaren bidez egiten dena) Kode Penalaren 250. artikuluan tipifikatua baitago.



4.2.2.3. Igortzeko moduak

Honela sailka daitezke txekeak, hartzailearen arabera:

Eramailearentzako txekea: kobratzera agertzen den edozein pertsonari ordaindu behar zaio txekea. Tituluan honakoak agertu behar du:

- a) Eramaileari ordaindu hitzak.
- b) Pertsona baten izena eta, jarraian, 'eramaileari'.
- c) Hartzailearen izenaren orde, hutsune txuri bat.

Agindurako txekea: txekean ageri den pertsonari ordaindu behar zaio, edo horrek agindutako beste pertsona bati. Azken honek beste aginte bat ezar dezake, eta horrek beste bat, eta... Txekeak horrela zirkulatzeari *endosua* deitzen zaio. Tituluan honako xehetasun hauek agertu behar dute:

- a) Pertsona baten izena.
- b) ".....-(ar)en agindura", eta pertsona baten izena.

Txeke izenduna: txekean ageri den pertsonari ordaindu behar zaio bakarrik. Tituluan pertsona baten izena egon behar du, eta *ez agintera* klausula edo antzekorik.

4.2.2.4. Txekearen edukia

Txekea titulu formala da, hau da, beharrezkoa du edukia balioa izateko.

Beharrezkoak diren datu bat edo gehiago faltaz gero, ez da txekea ontzat ematen. Dena den, balio du zorra badagoela frogatzeko.

Edukia:

Txekea hitza, tituluan jarrita, dokumentua idazteko erabili den hizkuntza berean: "Ordaindu txeke honengatik.....-ri".

Ordaintzeko aginte hutsa eta sinplea, eurotan, edo bihurturik eta kotizazio ofizialean onartuta dagoen atzerriko beste monetaren batean.

"Euroak.....".

"Ordaindu.....euro".

Diru-kopurua zenbakiz edo hizkiz ager daiteke; zalantzarik balego, hizkiz dagoena gailentzen da. Era batera (hots, zenbakiz edo hizkiz) adierazitako kantitatea beste eduki batekin agertuko balitz, zenbateko txikiena gailenduko litzateke.

Ordaindu behar duenaren izena, igorpenduarena. Horretarako, banku edo kreditu-entitataren batean kontua izan behar du nahitaez; igorleak, berriz, fondoak eduki behar ditu hor.

Ordaintzeko tokia: espresuki aipatzen ez bada, honako hauetakoren bat erabili behar da, hurrenkera honetan:

- a) Igorpenduaren izenaren ondoan agertzen den tokia (bat baino gehiago agertuko balira, lehenengoa).
- b) Ez badago toki-izenik: jaulki den tokian ordaindu behar da txekea, betiere igorpenduak hor egoitzarik baleuka.
- c) Aurreko bietatik batere ez balego, igorpenduak duen egoitza nagusian.

Txekea igorri den tokia eta data:

Data:

Egokia behar du izan (ez du balio otsailaren 31 jartzeak, adibidez).



Aukeratutako data 'faltsua' izan daiteke, hau da, ez dauka txekea igorri den eguna izan beharrik. Geroagoko data bat erabiltzen bada, igortze-data baino lehen kobra daiteke, txekea aurkezpen-egunean ordain daitekeela baitio legeak.

Tokia:

Tituluan ageri ez bada, igorlearen izenaren ondoan agertzen dena hartu behar da aintzat.

Sinadura: txekea igortzen duen pertsonaren sinadura, *igorlearena*. Ez dauka zertan izena izanik, sinaduraren eginkizuna igorlea identifikatzea baita, txekea ordaintzeko betebeharra onar dezan.

Espainiako bankuaren 11/90 zirkularraren arabera, honako datuok eduki behar dituen inprimaki normalizatuan idatzi behar da txekea:

(1)	ZK:.....(11)..... <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse; margin-top: 10px;"> <tr> <th colspan="5" style="text-align: center;">BEZEROAREN KONTU-KODEA</th> </tr> <tr> <th style="width: 15%;">ENTITATEA</th> <th style="width: 15%;">BULEGOA</th> <th colspan="2" style="width: 20%;">K-D</th> <th style="width: 50%;">KONTU-ZENBAKIA</th> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">(2)</td> <td style="text-align: center;">(3)</td> <td style="text-align: center;">(4)</td> <td style="text-align: center;">(5)</td> <td style="text-align: center;">(6)</td> </tr> </table> Euro.....(7)..... Txeke honen bidez ordain.....(8).....-(ar)i (9).....EURO -(e)n,2....-(e)ko.....(10).....-aren.....-(e)an Data hizkiz adierazi behar da Sinadura (12) ----- (13)	BEZEROAREN KONTU-KODEA					ENTITATEA	BULEGOA	K-D		KONTU-ZENBAKIA	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)
BEZEROAREN KONTU-KODEA																
ENTITATEA	BULEGOA	K-D		KONTU-ZENBAKIA												
(2)	(3)	(4)	(5)	(6)												

Bankua edo kutxa identifikatzeko datuak.

- 1) Bankuaren datuak
- 2) Entitatearen kodea.
- 3) Banku-sukurtsalaren kodea.
- 4) Entitatearen eta sukurtsalaren kontrol-digitua.
- 5) Kontu-zenbakiaren kontrol-digitua.
- 6) Kontu-zenbakia adierazteko hutsunea.
- 7) Zenbatekoa, zenbakiz adierazita.
- 8) Onuradunaren izendapena.
- 9) Txekearen zenbatekoa (hizkiz adierazita).
- 10) Jaulkipenaren tokia eta data (data hizkiz adierazi behar da).
- 11) Txekeari dagokion zenbakia.
- 12) Igorlearen sinadura.
- 13) Inpresio magnetikorako eremua.



Atriketa

TAS, S.A.k (Urkiza kalea, 32, 20240 Beasain, IFK: L28/223344) 7.150 euroko txeko bat igorri zuen, 2002ko otsailaren 23an, KAIKU, S.L.ren izenean (Urtxintza kalea 12, 20115 Astigarraga, IFK: B45/556677).

Banku igorpendua LANKIDE KUTXA da: Entitatea: 3035
Sukurtsala: 124
Ktu. zk.: 200076543210

LANKIDE KUTXA

FORUEN PLAZA, 27
20240 BEASAIN

ZK:.....3948.....

BEZEROAREN KONTU-KODEA

ENTITATEA	BULEGOA	K-D	KONTU-ZENBAKIA
3035	124		200076543210

Euroak...../7.150//.....

TXEKE HONEN BIDEZ.....KAIKU S.L. 7.1.-(ar)i
ordain.....zazpi mila, ehun eta berrogeita hamar.....EURO

...Beasain....., 2002.ko...otsaila.....-aren...hogeita hiru.....-(ea)n
Data hizkiz adierazi behar da

Sinadura

4.2.2.5. Txekiearen zirkulazioa. Endosua

Txekiearen ordainketa-funtzioa eskuz aldatzen denean gauzatzen da. Eskualdatze hori (transmisioa) txekiearen igorpenaren arabera izaten da:

Eramailereantzako txekia: txekiearen entregarekin transmititzen da.

Agindurako txekia: endosuaren bidez transmititzen da. Txekia entregatzen den momentuan titularraren izendapena egin behar da txekiean bertan.

Txeki izenduna: eskualdatzea gauzatzeko beharrezkoak dira txekiearen entrega eta zordunari hartzekodun berria dagoela jakinaraztea.

Endosua da transmisio erabiliena. Endosuaren bidez txekiak ematen dituen eskubide guztiak transmititzen dira.

Endosuaren ezaugarriak:

- Osoa behar du izan: baliogabea da ez baditu eskubide guztiak transmititzen.
- Garbia eta sinplea izan behar du: ez du baldintzarik izan behar.


Elementu pertsonalak:

Endosu-emailea: endosua txekiearen edozein edukitzailek egin dezake, igorpenduak izan ezik. Edukitzailea txekiearen zilegizko eramailatzat hartu behar da bere eskubidea endosu-kate ez hautsi baten bidez egiaztatzen badu, nahiz eta azken endosua zuriz egon.



Endosu-hartzailea: endosua edozeinen onurarako egin daiteke. Endosua aurretik agertzen den pertsona baten izenean izan daiteke (igorlea, endosu-emailea, berme-emaileak...). Horri itzultze-endosua deitzen zaio.

Endosu-hartzaileak ere endosa dezake txekea berriro eta beste endosu-kate bat sortu.



Endosuen baldintza formalak:

- Endosua txekean idatzi behar da, edo eranskinean.
- Endosu-emailearen sinadura eduki behar du.
- Normalean, txekearen atzealdean egon behar du.
- Ez dago nahitaez data jarri beharrik.
- *Txuriz egindako endosuan* ez dago endosu-hartzailearen izena jarri beharrik.

Txekea endosatzeko epea ez da bukatzen harik eta *ez ordaintzeagatik protestoa* egiteko epea bukatu arte.

Txekearen endosua dela-eta ez bada ordainketarik egiten, endosu-emaile guztiek dute erantzukizuna, *atzerabide gisa*. Igorpenduak endosu-katearen bidez legeztatutako edukitzailari ordainduko balio, ordea, gainerako endosu-emaileak dagozkien betebeharretatik libre geratuko lirateke.

4.2.2.6. Txekearen abala

Txekea ordaindu egingo dela bermatzen du. Igorpendua izan ezik, beste edozein izan daiteke abal-emailea.

Abalaren baldintza formalak:

- Txekean bertan edo eranskinean egin behar da bermea emateko adierazpena.
- Abal-emailearen sinadura behar du.
- Abal-hartzailearen izena jarri behar da. Horrela egiten ez bada, abala igorleari ematen zaiola jo behar da.
- Gerta liteke abala emateko adierazpen hori abal-emailearen sinadura izatea, soilik. Horrelakoetan, txekearen aurrealdean jarri behar da.
- Ez dago data eta lekua jarri beharrik.



4.2.2.7. Txekea ordaintzea

Txekea *ikustean* ordaindu beharreko titulua da, hots, kobratzeko aurkezten den eguna du mugaegun.

Legareen arabera, momentu horretan bertan –kobratzeko aurkezten den momentuan– dauka ordaindu beharra igorpenduak (bankuak).

NON ORDAINDU BEHAR DA TXEKEA? – Txekean bertan azaltzen den igorpenduaren helbidean.

ZEIN EPE DAUDE TXEKEA AURKEZTEKO? – Epeak igortze-lekuaren arabera finkatzen dira. Honako hauek ditugu:

Espainian jaulki eta ordaindu beharreko txekea	15 egun
Europar jalki eta Espainian ordaindu beharreko txekea	20 egun
Europatik kanpo jaulki eta Espainian ordaindu beharreko txekea	60 egun

Epe hori igortze-datatik aurrera hasten da zenbatzen. Jaiegunak ez dira kontuan hartzen, mugaeguna jaieguna den kasuan izan ezik: horrelakoetan, hurrengo astegunera pasatzen da.

Batzuetan txekea igortze-data baino lehenago jartzen da zirkulazioan. Kasu horietan ere *ikustean* ordaindu behar dira, nahiz eta igortze-data baino lehenago aurkeztu.


Txeke bat kobratzeko aurkezten bada, bankuak ordaindu egin behar du, baldin eta diru-fondorik ez egon eta igorleak ez badu ordainketa-agindua ezeztatu.

Txekea kobratzeko aurkezten zaionean, igorpenduak honako puntuok egiaztatu behar ditu, berea bailitzateke txeke faltsuren bat ordaintzearen erantzukizuna:

- Baldintza formal guztiak betetzen dituela.
- Aurkezten duen edukitzaileak legezkotasuna duela.
- Sinadura igorlearena dela benetan (endosu-emailearena ez dago egiaztatu beharrik).

4.2.2.8. Txekea ez ordaintzea

Txeke bat aurkeztu eta ordaintzen ez bada, haren edukitzaileak badu *atzerabide-prozesua* delakoaren bidez gainerako erantzuleen kontra ekitea (endosu-emaileak, igorlea...), horiengandik kobratzea lortzeko. Horretarako, frogatu beharra dauka ezarritako epe barruan aurkeztu duela txekea eta igorpenduak ez diola ordaindu.



Ez zaiola ordaindu frogatzeko zenbait bide du:

- Notario batek egindako *protesto-aktaren* bidez.
- Igorpenduaren aitortpenaren bidez: txekean bertan egin behar da, aurkezpen eguna adierazita.
- Ganbera edo konpentsazio-sistema baten bidez. Txekea epe barruan aurkeztu dela eta ez dela ordaindua izan adierazi behar da.

Frogagiri horiek kobratzeko epea bukatu baino lehen aurkeztu behar dira; baina txekea epearen azken egunean aurkeztu bada, protestatzeko epea hurrengo astegunera arte luzatzen da.

Txeke bat aurkeztu eta edukitzaileak ez badu kobratzen eta protestatzen badu, honako diru-kopurua eskatzeko eskubidea du:

- Txekearen zenbatekoa.
- Aurkezpen-egunetik aurrera sortutako interesak, legezko interesa + 2 puntu.
- Protestoak sortutako gastuak eta beste edozein gastu (posta...).
- Kobratu gabeko zenbatekoaren gaineko % 10 eta, bidezkoa izanez gero, kalte-galeren ordainketa.

NORI ERREKLAMATU?

<i>TXEKE IZENDUNA</i>	IGORLEARI
<i>AGINDURAKO TXEKEA</i>	IGORLEARI edo ENDOSU-EMAILEARI edo ABAL-EMAILEARI
<i>ERAMAILEARENTZAKO TXEKEA</i>	IGORLEARI

Era berean, ordaintzen duenak –igorlea ez bada– berarekiko erantzukizuna dutenei egin diezaieke erreklamazioa. Zenbat eska dezake, ordea?:

- Ordaindu duen zenbatekoa.
- Zenbateko horrek ordaintzen dioten eguna arte sortutako interesak + 2 puntu.
- Sortu zaizkion gastuak.



Ariketa

2002ko otsailaren 8an Kepa Maia Bernartek (Tolosa) *eramaileari* zuzendutako txeke bat jaulki zuen, BBVren kargura:

Ktu. kte.-zk.: 2025 1003 10 1001261311.

Zenbatekoa: 1.800 €.

Txekearen zk.: 2.486.543.5

Demagun mugaeguna baino bederatzi egun geroago aurkeztu dutela txekea. Zenbat egunekoa da aurkezteko epea?

	ZK:2.486.543.5.....								
BEZEROAREN KONTU-KODEA <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <th style="width: 20%;">ENTITATEA</th> <th style="width: 20%;">BULEGOA</th> <th style="width: 10%;">K-D</th> <th style="width: 10%;">KONTU-ZENBAKIA</th> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">2025</td> <td style="text-align: center;">1003</td> <td style="text-align: center;">1 0</td> <td style="text-align: center;">1001261311</td> </tr> </table>		ENTITATEA	BULEGOA	K-D	KONTU-ZENBAKIA	2025	1003	1 0	1001261311
ENTITATEA	BULEGOA	K-D	KONTU-ZENBAKIA						
2025	1003	1 0	1001261311						
Euroak:// 1.800 //.....									
TXEKE HONEN ORDEZ.....eramaile.....-(ar)i ordain.....mila eta zortziahunEUROTolosa-(a)n, 2002 -(e)ko...otsaila-aren...zortzi.....-(e)an Data hizkiz adierazi behar da									
Sinadura Kepa Maia									

Kobratzera aurkezteko epea: 15 egun.

Bankuak ordaindu egin behar dio, betiere diru-fondorik baldin badago eta igorleak ordaintzeko agindua ezeztatu ez badu.

4.2.2.9. Txek bereziak

TXEKE ADOSTUA:

Hauetan igorpenduak bere adostasuna adierazten du, txekea benetakoa dela eta behar adina diru-fondo dagoela egiaztatuz eta aurkezpen-epea bukatu arte behar adina diru-fondo mantentzeko konpromisoa hartuz.

Adostasun-adierazpenak honako datuak bildu behar ditu:

- *Egiaztatuta*, ados edo antzeko formularen bat.
- Igorpenduaren sinadura.



TXEKE ZEHARKATUA:

Hauetan beste edozein motatako txeeetan baino gehiago zehazten da nori ordaindu behar zaion. Banku bat edo igorpenduaren bezero bat izan behar du kobratzaileak.

Txeke zeharkatuen artean ere bi eratakoak bereiz daitezke. Honako hauexek:

1. *Ohiko txeke zeharkatua*: banku batek edo igorpenduaren bezero batek kobratu ahal du soilik.
2. *Ezohiko txeke zeharkatua*: txeean ageri den bankuak kobratu ahal du, ez beste inork.

Txeke zeharkatuetan bi marra paralelo egiten dira txeearen aurrealdea diagonalki zeharkatuz, inongo aipamenik egin gabe, edo *bankua* edo *konpainia* hitzak jarrita.

Ezohiko txeke zeharkatuetan, berriz, marren artean banku jakin baten izena jarri behar da.

KONTUAN ABONATZEKO TXEKEA:

Esku-diruz ordaintzerik ez izatea dute helburu. Edukitzailearen kontuan diru-sarrera eginez gauzatzen da ordainketa.

Atzealdean *kontuan abonatzeko* dela jarri behar da, zeharka.

BANKU-TXEKEA:

Bankuak igortzen duena da, bezeroak horrela eskatuta, komisio baten kanbio.

X BANKUA

Txeke-zk.:.....

IGORLEA	SUKURTSAL KODEA	SUKURTSALA ETA DATA	
TXEKE HONEN BIDEZ ORDAIN		-(AR)I	
EURO	(Zenbakiz)	(Hizkiz)	
ENTITATE ORDAINTZAILEA	ENTITATEAREN KODEA		

Jn./And. agurgarria:

.....dataz,.....zenbakidun txekea
eman dizugu, ondorengo zenbatekoa duena (gastuak barne):

NOMINALA	./..	KOMISIOA	BESTE ZENBAIT GASTU	ZENBATEKO OSOA
----------	------	----------	---------------------	----------------

☐ Zure.....zenbakidun kontuan zordun.

☐ Esku-diruz emanda.

AGINDU-EMAILEA:

Adeitasunez,

X BANKUA



Ariketak

- 1) Jokin Legorburuk (Beasain) txeko bat (2.100 € -koa) igorri zion 'eramaileari' 2002ko urtarrilaren 30ean (txekearen zk.: 123.45678.9)
Kontu korrontearen zenbakia: 2025 1002 84784467 – BANCO SANTANDER
Txekoa adostea nahi zuen; horretarako, bere bankuan aurkeztu zuen otsailaren 1ean.



ZK: ...123.45678.9.....

BEZEROAREN KONTU-KODEA				
ENTITATEA	BULEGOA	K-D		KONTU-ZENBAKIA
2025	10	0	2	84784467

Euroak: ...// 2.100 //.....

TXEKE HONEN BIDEZ.....eramaile.....-(ar)i

ordain.....bi mila eta ehunEURO

.....Beasain -(e)n..., 2002..-(e)ko urtarrila.....-aren...hogeita hamar.....-(e)an

Data hizkiz adierazi behar da

Sinadura

–Txekearen aurrealdea–

.....
.....
euroko txeko hau ados dago.

.....2002ko otsailaren 16a..... arte

...Beasainen..., 2002ko... otsailaren.... 1ean

BANCO SANTANDER

–Txekearen atzealdea–



- 2) Pello Arzadunek (Donostia) Martin Landaluzeren aldeko 3.000 €-ko txeke zeharkatu bat egin zuen 2002ko martxoaren 10ean.
 Bankua: Euskadiko Kutxa (Donostia)
 Ktu. kte.-zk.: 3035 125 01 00013579864
 Txekearen zk.: 9.7531.246.08

		ZK: ...9.7531.246.08.....			
		BEZEROAREN KONTU-KODEA			
ENTITATEA	BULEGOA	K-D		KONTU-ZENBAKIA	
3035	125	0	1	00013579864	

Euroak// 3.000 //.....

TXEKE HONEN BIDEZ.....Martin Landaluze.....-(ar)i
 ordain.....Hiru mila.....EURO
 Donostia.....-(e)n,2002...-(e)ko...martxoa.....-aren.....hamar.....-(e)an
 Data hizkiz adierazi behar da

Sinadura

4.2.3. Banku-transferentzia

Hona zer den banku-transferentzia: banku bateko bezeroak hor duen kontutik diru-kopuru jakin bat transferitzeko ematen duen agindua, banku bereko nahiz beste banku bateko kontu batera.

Zerbitzu horrengatik bankuak transferitutako diru-kopuruaren gaineko % bat kobratzen dio agindu-emaileari, komisio gisa. Gutxieneko komisio-kopuru bat ere aplikatzen da, ehuneko ehunekoa kalkulatuaz lortutako zenbatekoa gutxiago balitz erabiltzeko.

Transferentzia-aginduak honako datuok izan behar ditu:

- Data.
- Agindu-emailearen izena eta helbidea.
- Dirua zin kontu-zenbakitatik atera behar den.
- Zenbatekoa.
- Onuradunaren izena.
- Onuradunaren bankua eta dirua transferitu behar den kontuaren zenbakia.
- Agindu-emailearen sinadura.

Transferentzia egina dagoenean, bankuak frogagiri bat eman behar dio agindu-emaileari.



Atriketa

Luis Berasategi jaunak (Peña y Goñi kalea, 20, Donostia) transferentzia bat egiteko eskatu zion bere bankuari –Banco Central Hispanori– otsailaren 9an. Transferentzia hori 6.000 €-koa zen eta INTXAUSTI MOBILIARIO (Rekalde auzoa, z.g., Donostia) zuen onuradun. Eragiketaren zergatia: 344-B zenbakidun fakturaren ordainketa.

Luis Berasategiren bankuko datuak:

Entitatea: 2045
Sukurtsala: 206
Ktu. kte.-zk.: 100203948
Helbidea: Avda. Libertad, 15.

Intxausti Mobiliarioren bankuko datuak:

Entitatea: 2003
Sukurtsala: 76
Ktu. kte.-zk.: 10009324

AGINDU-EMAILA. LUIS BERASATEGI		ESKAERA	
HELBIDEA. Peña y Goñi, 20		☒ TRANSFERENTZIA ☐ TXEKEAK	
HERRIA: 20014 DONOSTIA		BANCO CENTRAL HISPANO SUKURTSAL-ZK.:...206...	
PROBINTZIA GIPUZKOA	KTU. KTE.-ZK.: 100203948	2 002-(E)KO otsaila ren 9 an	

Jaun/andere agurgarriok: bete itzazue jarraian ageri diren eragiketak.

Zenbatekoa, gastuak barne: ☒ Nire kontuan zordundu ☐ Esku-diruz entregatuko dut

ONURADUNA: INTXAUSTI MOBILIARIO	ZENBATEKOA: // 6.000 // €
HELBIDEA, HERRIA ETA PROBINTZIA: Errekalde auzoa, z.g.	ONURADUNAREN KTU. KTE.-ZK.: 10009324
OHARRAK: 344-B fakturaren ordainketa	
ENTITATE ORDAINTZAILEA: 2003	SUKURTSALA: 76

ONURADUNA:	ZENBATEKOA:
HELBIDEA, HERRIA ETA PROBINTZIA:	ONURADUNAREN KTU.KTE.-ZK.:
OHARRAK:	
ENTITATE ORDAINTZAILEA:	SUKURTSALA:

Adeitasunez,

ZENBATEKOA (hizkiz) Sei mila euro	ZENBATEKOA (zenbakiz) // 6.000 // €
---	---

(Sinadura)



4.2.4. Banku-txartelak

Asko erabiltzen dira gaur egun. Banda magnetiko bat dute kontua eta kontuaren jabea identifikatzeko. Kode pertsonal baten bitartez erabiltzen dira:

Banku-txartelak: urteko kuota baten kanbio jartzen dituzte bankuek bezeroen eskura. Erabilera onartua duten lekuetan erosketak egiteko aukera ematen dute txartelok, baina erabili ahal izateko beharrezkoa da diru-fondoak izatea bankuko kontuan.

Kreditu-txartelak: kontuan diru-fondorik ez izanagatik ere erabil daitezke. Txartel hauen bidez ordaintzea ordainketa geroratzea bezala da bezeroarentzat, kreditua baitauka; saltzailearentzat, berriz, eskura kobratzea bezala da.

Horrelako txartela izateagatik bankuak urteko kuota bat kobratzen du, ordaindutako zenbatekoaren gaineko komisio bat kobratzeaz aparte.

Adibide gisa, VISA, AMERICAN EXPRES eta MASTER-CARD aipa daitezke.

Gogoan izan, bestalde, erabili ahal izateko beharrezkoa dela erabilera onartua izatea dendan.

Trakasteko eta ikasteko araketak

1) Erantzun honako galdera hauei:

1. Zein desberdintasun dago epeka egindako ordainketaren eta kredituan egindako ordainketaren artean?
2. 30 eguneko epe barruan egindako ordainketa, eskura edo kredituan egindakoa da?
3. Espainian, zein motatako diruz egin daiteke salerosketa baten ordainketa?
4. Ordainagiria ordainketa-bide bat al da? Zertarako balio du?
5. Txeke batean honako zenbatekoak ageri dira: 485 €, 500 €, laurehun eta laurogeita hiru euro. Zein da igorpenduak ordaindu beharrezkoa?
6. Igorpenduak ordaintzen ez badu, zeinek du edo dute txekea ordaintzeko erantzukizuna?
7. Zein kasutan da beharrezkoa *protestoa*?
8. Txeke izendun bat ordaintzen ez bada, zergatik ezin dio igorpenduak besterik erreklamatu igorleari? Txekea eramaileari igorrita balego, zer gertatuko litzateke?
9. Zergatik eta zein kasutan da komenigarria banku-transferentzia?
10. Egia al da Espainian jaulkitako eta kobratu beharreko txeke bat –2002ko urtarrilaren 1ean jaulkia, adibidez– ezin dela otsailaren 1ean kobratu?

2) 2002ko martxoaren 5ean LAINO, S.M.k (Rondilla kalea, 20 – Tolosa – IFK: A28/334455) 567A zenbakidun 3.000 € -ko ordainagiria igorri zuen HODEI, 1002 zenbakidun faktura ordaintzeko.

Bete ezazu ordainagiri hori.

3) 2002ko apirilaren 2an ADO, S.L. enpresak (Hermanos Pinzón kalea, 22- bajo. VALLADOLID – IFK:B28/987654) 6.500 € -ko txeke bat jaulki zuen (txeke adostua, 23.45600.87 zenbakiduna) AROA, S.A.k 188 zenbakiaz bidalitako faktura ordaintzeko.

Banku-datuak:

Entitatea: 3036
Sukurtsala: 2015



Ktu. kte.-zk.: 10000253739

Bete ezazu txkeka. Kontuan izan txke adostua dela.

- 4) 2002ko maiatzaren 20an, Mikel Gerendiainek (Kale Nagusia 22 – 20115 Astigarraga) 330 €-ko transferentzia egiteko agindu zion KUTXAri. Onuraduna Elhuyar Kultur Elkartearen (Asteasuain, 14 –20170 Usurbil). Zergatia: liburu-bilduma baten erosketagatik hark bidalitako 1010B faktura ordaintzeko.

Banku-datuak:

Mikel Gerendiain

Entitatea: KUTXA (2525)

Sukurtsala: 115

Kontu-korrante zk.: 11133568908

ELHUYAR

Entitatea: EUSKADIKO KUTXA (3035)

Sukurtsala: 126

Kontu-korrante zk.: 0000246897641

Bete ezazu transferentzia-agindua.

4.3. ORDAINKETA GERORATUA

Aurreko atalean (4.2.an) eskura egindako ordainketa eta horri dagozkion agiriak aztertu ditugu. Oraingoan, berriz, ordainketa geroratuarekin lotutako ordainketa-agiriak aztertuko ditugu, *KANBIO-LETRA* eta *ORDAINDUKOA*, hain zuzen ere. Horien funtzionamendua eta araudia ikasiko ditugu, baita enpresaburuek zein profesionalak nola erabiltzen dituzten ere.

4.3.1. Kanbio-letra

Kanbio-letra titulu bat da, pertsona batek beste bati diru-kopuru jakin bat ordaintzeko agindua emateko erabiltzen duena, leku eta une jakin (mugaeguna) batzuetan.

Kanbio-letraren diru-kopurua jaso behar duenak ordainketa beste pertsona bati egiteko eska dezake, bere izena kanbio-letran bertan jarritz.

Honako hauek hartzen dute parte kanbio-letran:

Igorlea: kanbio-letra igortzen duena, hots, ordainketa-agindua ematen duena (saltzailea).

Igorpendua: ordainketa-agindua jasotzen duena (eroslea).


Edukitzailea: titulua eskuetan duena. Lehenengo edukitzailari (saltzailearen bankua) *hartzaile* deritzo.

Endosu-emailea: kanbio-letraren jabetza endosu bidez transmititzen duena.

Abal-emailea: kanbio-letraren ordainketa bermatzen duena, obligaziodun nagusiak (abala ematen zaionak) ordainduko ez balu.

Ordainketa-helbideak eroslearena (igorpendua) edo bere bankuarena izan behar da.





Kanbio-letra inprimaki ofiziala da eta *ondare-transmisio eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren* likidazioa egiteko erabiltzen da.

Tituluaren aurrealdean, eskuineko goiko izkinan, tinbrea dago, kanbio-letraren zenbatekoaren arabera. Beraz, kanbio-letra bat igortzeko zenbatekoari dagokion tinbre egokia duen inprimakia erabili behar da.

Ondoko koadroan dituzue zerga-kuotak, kanbio-letraren zenbatekoen arabera:¹

T/L-ren zenbatekoa	Zerga-kuota
0,01 €-tik 24,04 €-ra	0,06 €
24,05 €-tik 48,08 €-ra	0,12 €
48,09 €-tik 90,15 €-ra	0,24 €
90,16 €-tik 180,30 €-ra	0,48 €
180,31 €-tik 360,6 €-ra	0,96 €
360,62 €-tik 751,27 €-ra	1,98 €
751,28 €-tik 1.502,53 €-ra	4,21 €
1.502,54 €-tik 3.005,06 €-ra	8,41 €
3.005,07 €-tik 6.010,12 €-ra	16,83 €
6.010,13 €-tik 12.020,24 €-ra	33,66 €
12.020,25 €-tik 24.040,48 €-ra	67,31 €
24.040,49 €-tik 48.080,97 €-ra	134,63 €
48.080,98 €-tik 96.161,94 €-ra	269,25 €
96.161,95,01 €-tik 192.323,87 €-ra	538,51 €

192.345 €-tik pasatzen diren 10 €-ko multzo bakoitzeko (edo zatikiko) 0,01 €-ko zerga-kuota ordaindu behar da.

Mugaeguna sei hilabeteko epea baino geroago bada, kanbio-letraren zenbatekoaren bakoitzari dagokiona izaten da zerga-kuota.

Igorleak eta igorpenduak hamabost egun aurretiko mugaeguna duten zenbait kanbio-letra igortzen badiote elkarri, hainbat eratako inprimakiak erabili behar dira. Horien guztien zerga-kuoten (tinbreen) baturak kanbio-letra guztien arteko zenbateko osoari dagokion tinbrearen baliokidea izan behar du.

¹ Zenbateko hauek orientagarriak dira, finkatu gabe baitaude oraindik.



Ariketa

Kanbio-letra baten zenbatekoa 4.500 €-koa bada, zer baliotako inprimakia erabili behar da?

Eta mugaeguna sei hilabetetik gerorakoa bada?

ERANTZUNA: 4.500 €-ko kanbio-letra bati dagokion zerga-kuota 16,83 €-koa da. Sei hilabete baino geroragoko mugaeguna balu, berriz, 33,66 €-koa litzateke.

4.3.1.1. Funtzio ekonomikoa

Kanbio-letrak bi funtzio ditu:

- a) Ordaintzeko bidea izatea.
- b) Kreditua lortzeko modu bat izatea.

Erosleak ez du erosteko momentuan bertan ordaintzen, eta, ondorioz, posible du erosketak egitea esku-dirurik ez izan arren, ordainketa geroratu egiten baitu. Era berean, errazagoa zaio saltzaileari produktuak saltzea horrelako erraztasunak emanez.

Kanbio-letra igorri eta gero, bi aukera ditu saltzaileak:

- a) Mugaeguna arte itxaron kanbio-letraren zenbatekoa eskuratzeko.
- b) Kanbio-letra bankuan deskontatu, hots, bankuari saldu. Bankuak ez dio zenbateko osoa ordaintzen, interesak deskontatuko baitizkio. Banku horrek, berriz, mugaeguna heltzen denean zenbateko osoa eskuratzen du.
Bankuak ordaindutakoaren eta kobratutakoaren arteko diferentzia **interesa** da, kobratzeko mugaeguna arte itxaron behar izatearen ordaina.

4.3.1.2. Igortzeko moduak

Hiru eratarik igor daitezke:

- a) Igorlearen agindura (igorlea = hartzailea): normalean igorleak egoitza bat baino gehiago duenean erabiltzen da, bata besteari ordainketak egiteko.
- b) Igorlearen kargura (igorlea = igorpendua): kreditua lortzeko funtzioa betetzeko.
- c) Hirugarren baten agindura: deskontatzeko asmoz egiten denean.

4.3.1.3. Kanbio-letraren edukia

Inprimaki ofiziala izaki, kanbio-letraren edukia ezinbestekoa da; beraz, daturen bat faltaz gero ez litzateke kanbio-letra izango. Dena den, horrelako kasuetan zorraz daudelako frogagiria litzateke.

Honako hauek dira kanbio-letra batean agertu beharreko datuak:

AURREALDEAN:

- (1) **Kanbio-letra izena:** testuan txertatua eta idazteko erabilitako hizkuntza berean.
- (2) Diru-kopuru jakin bat (eurotan edo kotizazioan onartua dagoen atzerri-monetan) **ordaintzeko agindua argi eta sinplea:** "Kanbio-letra honen bidez ordain iezaiozu.....-(ar)i"



- (3) **Zenbatekoa hizkiz eta zenbakiz** adierazita: hizkiz idatzitakoa ez badator bat zenbakiz adierazitakoarekin, lehenengoa hartu behar da kontuan.
OHARRA: zenbatekoak ez du interesik sortuko *ikustean* edo *ikusi eta hainbat egun edo hilabetetara* igorriak direnen kasuetan izan ezik. Horrela balitz, inprimakian bertan adierazi behar da aplikatuko den urteko interes-tasa.
- (4) **Mugaeguna:** lau erataraz adieraz daiteke. Beste moduren batera adieraziz gero, kanbio-letra baliogabea litzateke:
- Egun jakin bat jarritz (adibidez, apirilaren 14an).
 - Datatik hainbat egun edo hilabetetara (epea igorpen-datatik hasten da zenbatzen). Adibidez, datatik 30 egunera.
 - *Ikustean* jarritz: kobratzeko aurkezten den egunean ordaindu behar da.
 - Onartzetik hainbat egun edo hilabetetara (epea onartze-datatik hasten da zenbatzen). Adibidez, onartzetik bi hilabetera.
- OHARRAK:
Epea hilabetetan ematen denean, hilabete guztiak 30 egunekoak bailiren hartu behar dira. Adibidez: 4. kasuan, martxoaren 26an onartua bada, maiatzaren 26an bukatuko da epea. Mugaegunaren hilabetearen egun hori ez badago, hilabetearen azkeneko egunean bukatuko da epea. Adibidez: abenduaren 30ean datatik bi hilabetera igorritako T/L-k otsailaren 28/29a du mugaeguna, otsailaren 30ik ez baitago.
Mugaeguna egunetan badator, berriz, hilabete bakoitzak duen egun-kopurua hartu behar da kontuan.
Epea zenbatzean jaiegunak ere hartzen dira kontuan; baina mugaeguna jaieguna balitz, hurrengo astegunera pasako litzateke.
- (5) **Ordainketa-helbidea:** normalean igorpenduarena izaten da. Horrela bada ez da ordainketa-helbidea adierazi behar, igorpenduaren izenaren ondoan azaltzen baita. Baina, askotan, igorpenduak bere bankuan helbideratzen du ordainketa, hots, bere kontuaren kargura ordaintzeko agindua ematen dio bankuari. Horrelakoetan, beraz, T/L bankuari aurkeztu behar zaio ordain dezan eta, ondorioz, bankuaren izena, helbidea eta abar jarri egin behar dira (entitatearen kodea, sukurtsalaren kodea eta kontu-korronte zenbakia).
- (6) **Hartzailearen izen-abizenak edo enpresa-izena,** ordainketa egin behar zaionarena, alegia, edo horren agindupekoa.
- (7) **Igortze-data eta lekua:**
Data: urtea, hilabetea, eguna.
Lekua: normalean, igorlearen izenaren ondoan ageri dena.
- (8) **Igorlearen sinadura:** beharrezkoa da igorlea identifikatzeko. Sinatu orduko sortzen da ordaintzeko betebeharra. Honako ezaugarri hauek izan behar ditu:
- Autografoa izan behar du, igorleak berak bere eskuz egina.
 - Benetakoa behar du izan, ez faltsua.
 - Igorlea identifikatu behar du, izen osoa azaltzea beharrezkoa ez bada ere.
- OHARRAK:
Inprimakian helbidea ere eskatzen da, sinaduraren ondoan, baina legeak ez du exijitzen.
Elkarteetako administratzaileek elkartearen izenean sinatzeko ahalordea behar dute izan, eta 'ahalordez' ari direla sinatzen adierazi behar dute.
- (9) **Aukerako klausulak:** parte-hartzaileek hala nahi izanez gero sartzen dira. Hainbat eratakoak izan daitezke:
- Onartzetik libratzeko klausula: ez *onargarria* edo *onartzera ez aurkeztu*. Igorleak ez du bermatzen T/L onartu egingo denik.



- *Agindura ez* klausula: T/L ezin dela endosuaren bidez transmititu adierazten duena.
- Onartzera aurkezteko debekuaren klausula.
- Onartzera aurkezteko derrigortze-klausula.
- *Gasturik gabe* edo *protestorik gabe* klausulak: edukitzaileak ez du protestorik egin behar igorpenduak ez badu T/L onartzen edo ordaintzen.
- Interes-klausula.
- Abalatzetik libratzeko klausula: igorpenduak ez badu bermatzen T/L ordaindu egingo dela.

(10) **Igorpenduaren onarpena:** onartze-formula sinatzean, igorpenduak T/L-n adierazitako zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

(11) **Inskripzio magnetikorako hutsunea.**

ATZEALDEAN:

- (1) Endosu-adierazpenarentzat egokitutako aldea.
- (2) Abal-adierazpenarentzat egokitutako aldea.
- (3) Era guztietako adierazpenentzat (endosu, abal edo aukerako klausulak) utzitako hutsunea.



AURREALDEA

Igorpen-lekua Lugar de libramiento		(7)		Moneta Moneda		(3)		Zenbatekoa Importe		(3)	
(1)KANBIO-LETRA honek dioten mugaeguncan ordain itzaiozti.....(2) Por esta LETRA DE CAMBIO pagará usted al vencimiento expresado a		Igorpen-data/Fecha de libramiento		Mugaeguna/Vencimiento		(4)					
		Eguna/Día		Hilabetea/Mes		Urtea/Año					
Honako kopuru hau (zenbatekoa letratan) (3) la cantidad de (impose en letra)											
Persona edo entitate: (5) Persona o entidad: (5) ordainketen-hebidea/en el domicilio de pago siguiente: (5) BEZEROAREN KONTU KODEA (BKK) CODIGO CUENTA CLIENTE (CCC)											
Dirección u ofizina: (5) Entitate/Entidad Bulegoa/Oficina KD/D.C. Kontu-zenbakia/Número de cuenta											
Herria: (5) Población:											
ONARTZEN DUT / ACEPTO (10)		Klausulak / Cláusulas (9)									
Data / Fecha (7)		IGORPENDUA (6)									
(Sinadura / Firma) (8)		LIBRADO Izena Nombre Hebidea: Domicilio: Udalerrria: Población: P.K.: C.P. Probintzia: Provincia:									
		Ez erabili tarte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita (11)									



0,12 €-tik 0,24 €-tara

0A0008349

ATZEALDEA

EZ ERABILI GOIKO TARTE HORI, INPRIMAKETA MAGNETIKOA EGITEKO BAITA
NO UTILICE EL ESPACIO SUPERIOR POR ESTAR RESERVADO PARA INSCRIPCION MAGNETICA

Abala

Por aval

.....
.....(e)ko.....n.....a
A.....de.....de.....

Abal emailearen izena eta
helbidea

Nombre y domicilio del avalista .

.....

.....

(2)

Sinadura / Firma

Hartzailea

Paguese

a.....

.....

Helbidea

Con domicilio en

.....

.....(e)ko.....aren.....a

.....a.....de.....de.....

Endosatzailearen izena eta

helbidea

Nombre y domicilio del

endosante.....

.....

(1)

Sinadura / Firma

(3)

Atriketa

2002ko maiatzaren 20an, EMI, S.L. enpresak (San Gregorio eta San Nikolas kalea, 20 -Iruñea-, IFK: B30/332.114) T/L bat igorri zuen, 19.600 € -koa, bulegoak egokitze altzari eta ekipamenduak saltzean igorri zuen, 20010A faktura ordaintzeko agindua emanez. T/L-ren igorpendua (eroslea) LAIA AHOLKULARITZA da (Arrasate kalea, 10 -Arrasate-, IFK: A20/321123).

Mugaeguna: datatik 60 egunera.

CAJA RURAL DE NAVARRAren agindura igorrita dago eta ordainketa-helbidea honako hau da: EUSKADIKO KUTXA (Nagusia, 33. Sukurtsala: 13 -Arrasate- Kontu-korrontearen zenbakia: 1002352487).



Igorpen-lekua Lugar de libramiento IRUÑEA		Moneta Moneda euro		Zenbatekoa Importe // 19.600 //	
KANBIO-LETRA honek dioen mugaegunean ordain izeaiozu Por esta LETRA DE CAMBIO pagará usted al vencimiento expresado a		Igorpen-data/Fecha de libramiento Eguna/Día 20 Hilabetea/Mc Maiatza Urtea/Año 2002		Mugaeguna/Vencimiento Datatik 60 egunera	
honako kopuru hau (zenbatekoa letratan) la cantidad de (imponen en letra) Hemeretzi mila eta seiehun euro -----					
Persona edo entitatea: Persona o entidad: EUSKADIKO KUTXA		ordainketa-helbidea:/en el domicilio de pago siguiente:			
Helbide edo bulegoa: Dirección u oficina: Nagusia, 33		BEZEROAREN KONTU-KODEA (BKK) CODIGO CUENTA CLIENTE (CCC)			
Herria: Población: Arrasate		Entitatea/Entidad /Número de cuenta		Bulegoa/Oficina 13	KD/D.C. 1002352487
ONARTZEN DUT / ACEPTO		Klausulak / Cláusulas			
Data / Fecha Maiatzaren 23		IGORPENDUA LIBRADO			
(Sinadura / Firma)		Izena LAIA AHOLKULARITZA Nombre Helbidea: Domicilio: Arrasate, 10 Udalerrria: Arrasate Población: P.K.: C.P.: Probintzia: Gipuzkoa Provincia:			
		IGORLEA / LIBRADOR (Sinadura, izena eta helbidea) (Firma, nombre y domicilio) EMI, S.L. San Gregorio eta San Nikolas, 20			

4.3.1.4. Kanbio-letraren endosua

Kanbio-letraren zirkulazio-modua arrunta da; dena den, gerta liteke endosua debekatzeko klausularen bat egotea.

Bi motatako endosuak daude:

- Erabateko endosua:** tituluari atxikitako eskubide guztiak transmititzen dituen. Zenbateko osoarena izan behar du. Horrek endosu-emailearengan ordaintzeko erantzukizuna sortzen du. Atzerabide-prozesua dela eta, obligaziodun da hurrengo edukitzaileekiko.
- Endosu murritzua:** kanbio-letra berme gisa ematen da, kobrantza kudeatzeko.

Endosuaren parte-hartzaileak:

- Endosu-emailea:** kanbio-letra endosuaren bidez transmititzen duena. Kontrako klausularik ez badago, onarpena eta ordainketa bermatu egiten zaizkie hurrengo edukitzaileei.
- Endosu-hartzailea:** edonor izan daiteke obligaziodun (aurreko endosu-emailea, abal-emailea, igorpendua, igorlea ...). Endosu-hartzaileak, era berean, kanbio-letra berriro endosa dezake eta endosu-kate bat sortu.

Bete beharreko baldintza formalak:

- Kanbio-letran bertan (edo gehigarri batean) bete behar da, atzealdean.
- Ez dago nahitaez data jarri beharrik.
- "...ri ordain" edo antzeko formularen bat behar du izan, endosu-hartzailearen izenarekin batera.
- Endosu-hartzailearen izena agertzen ez bada, *endosu zuria* deritzo.

Epea: kanbio-letrak protestoa egin aurretiko edozein momentutan endosa daitezke.



4.3.1.5. Kanbio-letrak abalatzea

Parte-hartzaileak:

- a) **Abal-emailea**: ordainketa bermatzen duena.
- b) **Abal-hartzailea**: edozein obligaziodun izan daiteke.

Abal-emaileak ordaintzeko konpromisoa hartzen du; beraz, abalatua den pertsonak ordainduko ez balu, berak ordaindu beharko luke.

Bete beharreko baldintza formalak:

- Kanbio-letran bertan (edo gehigarri batean) adierazi behar da. Sinadura bakar batekin ere nahikoa da, igorlearen edo igorpenduaren sinadurak ez direnean, noski.
- *Abalagatik* adierazpena, edo antzekoa, behar du izan.
- Abal-emailearen sinadura autografoa, identifikatzen duena.
- Abal-hartzailearen identifikazioa: ez balego, onartzen duena edo igorlea dela jo behar da.
- Data eta lekua jarri beharrik ez dago.

Epea: abalatutako betebeharra baino lehenago, aldi berean edo geroago eman daiteke abala.

Ondorioak: abal-emaileak abal-hartzaileak duen erantzukizun berbera du; kanbio-letra ordaintzen badu, ordea, diru-kopurua itzultzeko erreklama diezaioke abal-hartzaileari.

4.3.1.6. Onespena

Igorpendua bihurtzen da zenbatekoa ordaintzeko obligaziodun nagusia eta zuzena kanbio-letra bat onartzen duenean. Onartuko ez balu, berriz, ez luke betebeharrak hori hartuko.

Baldintza formalak:

- Kanbio-letran bertan adierazi behar da (normalean, aurrealdean, inprimaki ofizialean egokitutako lekuan).
- *Onartzen du* esamoldea edo baliokideren bat erabili behar da.
- Igorpenduaren sinadura nahitaezkoa eta nahikoa da.
- Data jartzea ez da ezinbestekoa, mugaegun jakinen bat – edo ikusi eta hainbat egun edo hilabetetarako epean igorrita– dagoenean izan ezik.

Kanbio-letra onartzeko aurkeztea:

1. Ezinbestekoa da igorpenduak kanbio-letra onartzen duen jakiteko.
2. Mugaeguna arteko epea dago T/L-ren onspena aurkezteko, nahiz eta igorleak edo endosu-emaileek epe laburragoa finkatzea badaukaten (kontrako klausularik ez balego, noski).
3. Nahitaezkoa da onartzeko aurkeztea honako hiru kasuetan:
 - “Ikusi eta hainbat...” epean igorritakoak badira (epea urtebetekoa izan daiteke gehienez)
 - Igorleak onartzeko baldintza ezarri badu.
 - Hirugarren baten helbidean ordaindu beharrekoak badira.

Ez onartzea:

Onartzeko aurkeztu dela frogatuz gero, edukitzaileak *atzerabide-prozesua* hasteko aukera du, mugaeguna heldu aurretik.

Zenbait aukera du hori egiteko:

- a) Notario-protestoa.
- b) Igorpenduak kanbio-letran bertan onartzeari uko egitea.



- c) Ordainketa-helbidea den bankuak egindako antzeko adierazpena.
- d) Konpentsazio-ganbera baten antzeko adierazpena.

Ez onartzea frogatzeko epea onartzeko aurkezteko epe bera da, edo hurrengo 5 astegunekoa.

4.3.1.7. Kanbio-letra ordaintzea

Kanbio-letran emandako agindua betetzea da. Igorpenduari ordainketa erreklamatu ahal izateko nahitaezkoa da ordaintzeko aurkeztea, hartzekoduna zein den jakin dezan.

Ordaintzeko aurkezpena:

Epea: mugaegunean edo hurrengo 2 astegunetan aurkeztu behar da. *Ikustean* igorritako T/L-k aurkezteko urtebeteko epea dago, baldin eta igorleak edo endosu-emaileek ez badute epea aldatu.

Lekua: T/L-n jartzen duen ordainketa-helbidean edo, ezer jarriko ez balu, igorpenduaren ondoan azaltzen den helbidean.

Ondorioak: kanbio-letra ez bada ordaintzeko aurkezten, edukitzaileak *atzerabide- prozesuari* ekiteko aukera galdu egiten du, onartzen duenaren eta horren abal-emailearen kontra ez bada.

Egiaztatzea: igorpenduak zenbait gauza egiaztatu behar du T/L ordaintzeko aurkezten zaionean:

- Baldintza formal guztiak betetzen dituela.
- Aurkezten duen edukitzaileak zilegitasuna duela.

Ordainketa-frogagiria:

Ordaintzen duenak frogagiri bat eskatzeko aukera du. Horretarako, T/L-n bertan *jaso dut* adieraz dezake, edo, edukitzailea banketxe bat bada, frogagiriren bat aurkeztu.

Ez ordaintzea:

Igorpenduak T/L onartu eta ez badu ordaintzen, edukitzaileak haren edo haren abal-emailearen kontra jardun dezake kobratu ahal izateko, baita *–atzerabide-prozesuaren* bidez– beste zenbaiten kontra ere (igorlea, endosu-emaileak, abal-emaileak). Hori guztia, noski, aldeztu aurretik honako bi baldintzak bete baditu:

- Ordaintzeko aurkeztu.
- Ez ordaintzea frogatu.

Ez ordaintzea frogatzeko aukerak:

- a) Notario-protestoa.
- b) Igorpenduaren ordaintzeari uko egitearen adierazpena (idatziz, igorpenduaren sinadura eta datarekin)
- c) Konpentsazio-ganberaren adierazpena, hori ere idatziz eta igorpenduaren sinadura eta datarekin.

Protestoa egiteko mugaegunaren ondorengo bost asteguneko epea dago. T/L *ikustean* ordaintzekoa bada, berriz, onartzeko aurkezteko dagoen epea bera izango da, edo hurrengo bost astegunekoa.

T/L-ko *gasturik gabe* aukerako klausula badago, edukitzaileak ez du protestorik egin beharrik.



Protestoa egin denean, igorpenduari jakinarazi behar zaio eta notarioak hurrengo bi astegunez gorde behar du T/L (bigarren asteguneko 14:00ak arte), igorpenduak ordaindu ahal izateko. Edukitzaileak zortzi eguneko epea du endosua eman dionari (edo igorleari) protestoaren berri emateko. Ondoren, edukitzaile bakoitzak 2 egun ditu bere endosu-emailea jakinararen gainean jartzeko.

Atzerabide-prozesua:


T/L bat ordaintzen ez bada, txekearen kasuan bezalaxe, edukitzaileak *atzerabide prozesuari* ekin diezaioke, parte-hartzaile guztiek (igorleak, endosu-emaileek eta abal-emaileek) baitute zenbateko osoaren gaineko erantzukizuna. Edukitzaileak horietako edozeinengana jo dezake ordainketa eske.

Atzerabide-prozesua hasteko, noski, T/L ordaintzeko aurkeztu behar izan du, epe barruan (kontrako klausularik ez badago).

Zenbait kasutan, mugaeguna heldu baino lehenago has daiteke *atzerabide prozesua*. Honako hauetan, hain zuzen ere:

- Igorpenduak T/L onartzen ez duelako protestoa egiten denean.
- Igorpendua *ordainketa-etendurako egoeran* dagoenean, edo *porrot* egin duenean.

Era berean, ordaintzen duenak –*atzerabide prozesua* dela-eta– bere aurreko obligaziodunengana jo dezake ordaintzeko eskatzera.



Erreklama daitekeen zenbatekoa:

- T/L-ren zenbatekoa.
- Mugaegunaz geroztik sortutako interesak + 2 puntu.
- Gainerako gastu guztiak (protestoak sortutakoak, komunikazioak,...).

4.3.1.8. Efektu-negoiazioa

Merkataritza-efektuekin (T/L-rekin adib.) egiten diren eragiketek **negoiazio** izena hartzen dute. Efektuak erosi, saldu edo kobrantzarako utz daitezke.

- Negoiatzeak saltzea esan nahi du.
- Jasotzeak, berriz, erostea esan nahi du.

T/L baten igorleak mugaeguna heldu baino lehen diru-kopuru hori behar izanez gero, banku hartzaileira joan daiteke dirua aurrera diezaion. Baina, noski, bankuak ez dio zenbateko osoa (nominala) entregatuko, aurreratutako denbora-tarte horretan diru horrek emango lizkiokeen interesak deskontatuko baitizkio.



Horregatik, bankuarentzat *interesa* den horrek *deskontu* izena hartzen du kasu honetan. Horretaz gain, deskontu-zerbitzu horregatik komisio bat ere kobratzen dio.

Hori dela-eta, honako esku-dirua jasoko da:

$$E = Z - D - k$$

Non: E = esku-dirua, Z = zenbatekoa, D = deskontua eta k = komisioa.

4.3.1.8.1. *Interesa*

Interesa maileguari lotuta ageri da merkataritzan. Mailegu bat bi pertsonen arteko akordioa da: pertsona batek (mailegu-emaillea) zerbait uzten dio beste bati (mailegariari) eta horrek utzitakoa itzuli egin behar dio hari epe jakin batean.

Kasu honetan utzitakoa dirua denez, mailegu-emailleak dirua berreskuratzeaz gain 'sari' bat ere eskatzen du. Sari hori *interesa* da.

Interesa, beraz, honela defini dezakegu:

1. Beste baten dirua edo kapitala erabiltzeagatik ordaintzen den prezioa.
2. Mailegu-emaille batek diru-kopuru hori denbora horretan erabiltzerik izan ez duelako eskatzen duen ordainsaria.
3. Mailegu-emailleak diru hori ez berreskuratzeko arriskuagatik kobratzen duena.

Ordaindu beharreko interes horrek honako datuon arabera egon behar du:

- Mailegatutako diru-kopurua (K: kapitala): zenbat eta handiagoa, orduan eta interes handiagoa.
- Mailegu-denbora (t): zenbat eta luzeagoa, orduan eta interes handiagoa.
- Korritua (r): zenbat eta altuagoa, orduan eta interes altuagoa.

Horren arabera, bi mailegu-mota bereiz daitezke:

- a) Interes bakuneko mailegua.
- b) Interes konposatuko mailegua.

Interes bakuna: epe bakoitzeko interesa hasierako kapitalari metatzen ez zaiona. Epe laburreko eragiketetan erabiliena.

Interes konposatua: interesa metatu egiten zaio hasierako kapitalari, interes gehiago sortzeko. Epe luzeko eragiketetan erabiliena.

Adibidez: 5.000 pta-ko erosketa bat egin dugu. Urteko interes-tasa (korritua, r): % 10:

Interes bakuna:

Lehenengo urtean zor duguna: $5.000 + (5.000 \times \% 10) = 5.500$

Bigarren urtean zor duguna: $5.500 + (5.000 \times \% 10) = 6.000$

Urteko interesa berdin mantentzen da: $K \times (r/100)$

Interes konposatua:

Lehenengo urtean zor duguna: $5.000 + (5.000 \times \% 10) = 5.500$

Bigarren urtean zor duguna: $5.500 + (5.500 \times \% 10) = 6.050$

Interesa handituz doa urterik urte.

Efektu-negoiazioan aplikatzen den *deskontua* interes bakunean egiten da.

Beraz, NOLA KALKULATZEN DA IGORLEAK KOBRATU BEHAR DUEN ESKU-DIRUA?

Esan dugu jada urte bakoitzeko interesa zera dela:

$$I = K \times (r/100)$$



Maileguaren epea 't' urtekoa bada, interes osoa honakoa izango da:

$$I = K \times (r/100) \times t$$

Bankuarentzat interesa dena igorlearentzat deskontua dela esan dugu; beraz, **I** izan beharrean **D** esango diogu. Eta **K** (kapitela), **Z** (zenbatekoa) da.

Beraz, igorleak honakoa jasoko du:

$$Z - D$$

Jo dezagun **t** urtetan adierazita datorrela eta **r** urteko ehuneko ehunekoa dela; zer gertatzen da T/L-ren epea egunetan adierazita badator (30, 60, 90,...)? Egun horiek urtetara pasa beharko ditugula:

$$D = Z \times (r/100) \times (t/360)$$

Merkataritza-urtea

4.3.1.8.2. *Negoiazio-faktura* (Ikus 130. orriko eredua)

Igorleak zenbait T/L negoziatzen duenean, bankuak negoiazio-faktura bidaltzen dio esku-diruaren kalkuluaren eta kontu-korrontean egindako sarreraren berri emateko.

Honako datuok agertzen dira inprimaki horretan:

Igorpendua: negoziatzen den T/L bakoitzaren igorpendua.

Herria: igorpendu bakoitzarena.

Mugaeguna: T/L bakoitza ordaintzeko epea edo eguna.

Zenbatekoa: T/L bakoitzaren balio nominala.

Egunak: negoiazio-egunetik mugaeguna arte falta den egun-kopurua. Honela kalkulatzen dira:

- Mugaegun zehatza duten T/L-k:
- Negoiazio-egunetik mugaeguna arte falta diren egunak.
- Datatik hainbat egun edo hilabetetara igorriak direnak:
- Igorpen-egunetik negoiazio-eguna arte pasa diren egunak kalkulatu, eta emaitza hori emandako epeari kendu.
- Ikusi eta hainbat egun edo hilabetetara igorritakoak:
 - a) Onartuak daudenean:

Onarpen egunetik negoiazio-eguna arte pasa diren egunak kalkulatu, eta emaitza epeari kendu.
 - b) Onartu gabe daudenean:

Deskontu-egunek epekoak izan behar dute, ez baitira onarpen-datatik negoiazio-eguna arte egunak pasa, onarpenik ez dagoelako. Dena den, bankuak egingo duen lehenengo gauza T/L hori igorpenduari aurkeztea izango da, horrek onar dezan. Hiru eguneko epea onartzen da horretarako (posta dela-eta). Beraz, deskontu-egunek epekoak + 3 izan behar dute.

Zenbakiak: merkataritza-zenbakiak dira: $(Z \times \text{egunak}) / 100$

Komisioa: bankuak aurreratze-zerbitzuagatik kobratzen diguna. Hori kalkulatzeko milako hainbateko bat kalkulatzan da, zenbatekoaren gain. Milako hainbateko hori T/L helbideratuta egotearen edo ez egotearen arabera izaten da.

Gutxieneko komisio bat ere badago; milako hainbateko hori kalkulatu ez bada gutxieneko horretara heltzen, gutxienekoa aplikatu behar da.

Gastuak: posta-gastuak, eta abar.



Ariketa

LAURAK LAGUN enpresak –Lekunberri (Nafarroa)– honako sei kanbio-letra hauek negoziatu zituen 2002ko martxoaren 6an Banco Santanderrekin. Banku horretan duen 38453/7 zenbakidun kontu-korrontean sartu behar da dirua.

Igorpendua	I-d	O-d	Mugaeguna	Zenbatekoa	Helb.
Aldabaldetrekua Anaiak (Azpeitia)	I/20	I/28	Onar. 60 egun	12.015	Bai
La Estrella S.A. (Donostia)	III/2	III/7	Data. 30 egun	6.070	Ez
Tapicerías Aristegui (Gasteiz)	II/17		Data. 90 egun	20.000	Bai
Hijos de Sistiaga (Hernani)	I/29	II/4	Onar. 60 egun	18.843	Bai
Ortega Industrial (Iruña)	II/15		Data. 60 egun	23.146	Bai
Artimo, S.A. (Sestao)	III/1	III/6	Onar. 30 egun	5.075	Ez

Deskontu-tasa:

30 egun: % 9

60 egun: % 12

90 egun: % 15

Komisioa:

Helbideratuak: $\therefore$ 4

Helbideratu gabeak: $\therefore$ 7

Gutxienekoa: 0,3 €

Zenbateko esku-dirua jaso behar du igorleak?

SOLUZIOA:

Lehenengo pausoa kanbio-letrak mugaegunaren arabera multzotan jartzea da, deskontu-tasak mugaegunaren arabera baitira.

Ondoren, deskontu-egunak kalkulatu behar ditugu:

30 egunekoak:

La Estrella, S.A. (Donostia): I-d (III/2) – N-d (III/18) = 16 egun; 30-16 = 14 egun

Artimo, S.A. (Sestao): O-d (III/6) – N-d (III/18) = 12 egun; 30-12 = 18 egun

60 egunekoak:

Aldabal. Anaiak (Azpeitia): O-d (I/28) – N-d (III/18) = 49 egun; 60-49 = 11 egun

Hijos de Sistiaga (Hernani): O-d (II/4) – N-d (III/18) = 42 egun; 60-42 = 18 egun

Ortega Industrial (Iruña): I-d (II/15) – N-d (III/18) = 31 egun; 60-31 = 29 egun

90 egunekoak:

Tapicerías Aristegui (Gasteiz): I-d (II/17) – N-d (III/18) = 29 egun; 90-29 = 61 egun

Hirugarren pausoa merkataritza-zenbakiak kalkulatzeko da:

$(Z \times \text{egunak})/100$. Honakook dira, kanbio-letra bakoitzeko. Aurreko pausoen dituzue ordenan jarrita:

30 eguneko T/L: $849,8 + 913,5 = 1.763,3$

60 eguneko T/L: $1.321,65 + 3.391,74 + 6.712,34 = 11.425,73$

90 eguneko T/L: 12.200

Merkataritza-zenbakiak ditugularik, eta interes-tasak jakinda, deskontua kalkula dezakegu:

$$D = (Z \times r \times t) / (360 \times 100)$$

30 eguneko T/L: $(1.763,3 \times 9)/360 = 44,08$

60 eguneko T/L: $(11.425,73 \times 12)/360 = 380,85$

90 eguneko T/L: $(12.200 \times 15)/360 = 508,33$

$$\left. \begin{array}{l} 44,08 \\ 380,85 \\ 508,33 \end{array} \right\} + D = 933,26$$

Ez ahaztu komisia bat ere deskontatu egingo diotela:

Helbideratutako T/L-k (zenbatekoaren gaineko $\therefore$ 4):

Aldabaldetrekua Anaiak, Hijos de Sistiaga, Ortega Industrial eta Tapicerías Aristegui:
 $48,06 + 75,37 + 92,58 + 80 = 296,01$

Helbideratu gabeko T/L-k (zenbatekoaren gaineko $\therefore$ 7): $\quad$ + Komisia = 374,02

La Estrella S.A. eta Artimo S.A.: $42,49 + 35,52 = 78,01$



Bukatzeko, esku-dirua kalkulatu behar da: $E = Z - D - \text{Komisioa} - \text{Gastuak}$

$$E = 85.149 - 933,26 - 374,02 = 83.841,72$$

4.3.2. Ordaindukoa

Hona zer den ordaindukoa: pertsona batek –sinatzaileak– onuradunari edo horren agindura zenbateko jakin bat egun jakin batean ordaintzeko obligazioa adierazten duen dokumentu endosagarria.

Honako datuok izan behar ditu *ordaindukoa* izateko:

Ordaindukoa hitza azaltzea idazteko erabilitako hizkuntza berean.

Diru-kopuru bat ordaintzeko promesa argi eta garbia.

Mugaeguna: ageri ez bada, *ikustean* ordaintzekoa dela jo behar da.

Ordainketa-helbidea: ageri ez bada, igortzen den lekua bera dela jo behar da.

Nori ordaindu behar zaion adierazi egin behar da.

Ordaindukoa **sinatzen den eguna eta lekua** (lekua, normalean sinatzailearena izaten da, eta horrela jo behar da, besterik jartzen ez badu).

Sinadura

Parte-hartzaileak:

SINATZAILEA: diru-kopuru jakin bat ordaintzeko hitzematen duena. Obligaziodun nagusia eta zuzena da.

ONURADUNA (edo **HARTZAILEA**): ordainketa jaso behar duena. Sinatzailearen promesa jaso zuena edo, endosuaren bidez, ordaindukoa duena.

ENDOSU-EMAILEA: sinatzailea izan gabe, ordaindukoa zirkulazioan jartzen duen pertsona.

ABAL-EMAILEA: ordaindukoaren ordainketa bermatzen duena.

(BANKUA)	<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <th colspan="4" style="text-align: center;">BEZEROAREN KONTU-KODEA</th> </tr> <tr> <th style="text-align: center;">ENTITATEA</th> <th style="text-align: center;">BULEGOA</th> <th style="text-align: center;">K-D</th> <th style="text-align: center;">KTU. ZK.</th> </tr> <tr> <td style="height: 20px;"></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </table>	BEZEROAREN KONTU-KODEA				ENTITATEA	BULEGOA	K-D	KTU. ZK.				
BEZEROAREN KONTU-KODEA													
ENTITATEA	BULEGOA	K-D	KTU. ZK.										

Mugaeguna:.....ko.....-ren.....anEURO

Ordainduko honen bidez honako diru-kopurua mugaegunean ordainduko dudala hitzematen diot.....-ri

.....EURO

.....-(e)n, 2.....-e)ko.....-aren.....-(e)an

Data hizkiz adierazi behar da
Sinadura

–Ordaindukoaren eredu–

Ordaindukoan, T/L-n bezalaxe, *ikustean*, *egun jakin batean*, *datatik epe batera* edo *onartzetik epe batera* adieraz daiteke mugaeguna.

Ordaindukoa onartzeko hura aurkeztu beharrik ez dago, *ikustean* edo *onartzetik epe batera* igorriak ez badira behintzat. Horrelakoetan, sinatze-egunetik urtebeteko epe barruan aurkeztu behar dira. Sinatzaileak *ikusita* adierazi behar du ordaindukoan. Une horretan hasten da zenbatzen epea.

Baliteke sinatzaileak *ikusita* hori adierazi nahi ez izatea. Horrelakoetan protesta egin daiteke.

Trakasteko eta ikasteko ariketak

1) Erantzun honako galdera hauei:

1. Azal itzazu txekearen eta kanbio-letraren arteko desberdintasunak honako alor hauei dagokienez: igorlea, onarpena, diru-fondoaren beharra, mugaeguna, funtzio ekonomikoa eta interesak.
2. Kanbio-letra baten edukitzailea hartzailea al da beti?
3. Zer egin dezake saltzaileak salerosketa bat dela-eta igorritako kanbio-letrekin?
4. Kanbio-letra baten mugaeguna onartzetik hilabetera dago finkatua. Abuztuaren 31n aurkeztu bada, zein da mugaegunaren azken eguna?
5. Zein da aukerako klausulen funtzioa?
6. Zenbaterainoko garrantzia du igorpenduaren onarpenak?
7. Zer da kanbio-letra bat endosatzea? Kanbio-letra guztiak al dira endosagarriak?
8. Zer da kanbio-letra abalatzea? Abal-hartzaileak igorpendua edo onartzen duena badira, abalaren adierazpenean horien izenak agertu beharra al daukate?
9. Kanbio-letra bat ordaintzen ez bada, zer aukera ditu edukitzaileak?
10. Zein kasutan has daiteke atzerabide-prozesua mugaeguna baino lehen?

2) 2002ko uztailaren 14an LOTUS, S.A.k (Donostiako Aintzieta kaleko 22.ean du helbidea, 20014; IFK: B45/334455) bi kanbio-letra igorri zituen, zenbateko berekoak biak, egindako salmenta bateko faktura ordaintzeko. Fakturaren zenbatekoa 4.800 €-koa zen.

Kanbio-letra baten (lehenengoa) mugaeguna datatik bi hilabeterakoa zen; bestearena (bigarrena), maiatzaren 20a.

Igorpendua (eroslea) FOCUS, E. KOOP. zen (35. industrialdea, 6, 20600-Eibar, IFK: B30/135798) eta bere bankuan helbideratu zituen kanbio-letrak: Bankinter, Kale Nagusia, 12 -Eibar- (10. sukurtsala). Kontu-korrontearen zenbakia: 09.876.543.21.

Bete ezazu kanbio-letra.

Egin itzazu egin beharreko idazpenak, honako datuok kontuan harturik:

Lehenengo kanbio-letra

Abuztuaren 3an aurkeztu zuten onarpenerako. Onartu egin zuten.

Abuztuaren 10ean, Julen Albizuk abalatu egin zuen (Korreo kalea, 18 –20600 Eibar).

Bigarren kanbio-letra

Onartzeko aurkezteko debekatze-klausula bat zuen.

Euskadiko Kutxari endosatu zitzaion (Boulevard, 15 – Donostia) martxoaren 20an.

Mugaegunetan ordaintzeko aurkeztuak dira biak:

Zein da mugaeguna?

Non aurkeztu behar dira ordain ditzaten?

Nork aurkeztu behar ditu?

Bigarren kanbio-letra ez dute ordaindu. Zer egin behar du edukitzaileak?

3) 2002ko otsailaren 8an ordainduko bat jaulki duzu hitza emanez abuztuaren 2an 3.005,38 € ordainduko dizkiozula INTXAUSTI MOBILIARIO enpresari hari erositako altzairuengatik. Ordainketa-helbidea: KUTXA (2025, 114. sukurtsala; kontu-korrontearen zenbakia: 10075342).



Beste zenbait ariketa

1. Egin ezazu BIGARREN ATALEAN proposatutako salerosketa-ariketa guztien ordainketa, dagozkien ordainketa-agiriak betez: ordainagiriak, txekak edo kanbio-letrak:

CONFECCIONES DEL NORTE, S.A. — PANTEXTIL, S.L.:

Ordainketa: 90 egun barru

Kanbio-letra: Ordainketa Banco Guipuzcoanon helbideratua dago. Kontu-korrente zenbakia: 294021.6. Zumaburu kalea, 13 – Lasarte-.

Ez dagoela protestorik egin beharrik jakinarazten du.

Onarpen-eguna: urtarrilaren 22a.

Igorpen-data: urtarrilaren 18a.

Mugaeguna: datatik 90 egunera.

Hartzailea: Bilbao Bizkaia Kutxaren agindura igortzen da.

SAN VICENTE DEL RASPEIG — LINPEC, S.A.

Ordainketa: erdia txekaren bidez; gainerakoa, 60 egun barru

Txekak: abenduaren 30ean. Bilbao Bizkaia Kutxa.

Kanbio-letra:

Igorpen-data: urtarrilaren 3a.

Onartze-data: urtarrilaren 10a.

Mugaeguna: datatik 60 egunera.

Hartzailea: Bilbo Bizkaia Kutxaren agindura.

Ordainketa-helbidea: Banco SCH. Kontu-korrente zenbakia: 846202.8; Pº de la Castellana, 15)

BERGARA TAILERRAK, E.M. — INDUSTRIAS MECÁNICAS, S.A.

Ordainketa: eskura eta esku-diruz.

Ordainagiria: urtarrilaren 30ean.

INDUSTRIAS PASCUAL — INDUSTRIAS MECÁNICAS, S.A.

Ordainketa: Txekak zeharkatua.

Txekak: urtarrilaren 24an. Euskadiko Kutxa.

ACEITES CARBONELL — SUPER AMARA

Ordainketa: eskura eta esku-diruz.

Ordainagiria: urtarrilaren 2an.

ACEITES CARBONELL — COMESTIBLES ANGELA

Ordainketa: % 25 txekak izendun baten bidez eta % 75 30 egun barru.

Txekak: Bankoa. Abenduaren 20an.

Kanbio-letra:

Igorpen-data: abenduaren 20a.

Onartze-data: abenduaren 25a.

Hartzailea: Banco Hispanoamericano.

Helbideratu gabe.

EGIN EZAZUE, BINAKA, ASMATUTAKO ARIKETAREN ORDAINKETA.



2. Durangoko METALICAS YARZA enpresak, honako lau efektuok negoziatu zituen maiatzaren 6an Bilbao Bizkaia Kutxan, 4576703-6 zenbakidun kontu-korrontean abonatzeko:

Igorpendua	I-d	O-d	Mugaeguna	Zenbatekoa	Helb.
Carrocerías KES (Laudio)	III/15	III/22	Ikusi, 60 egun	15.560	Bai
Basauriko LHI (Basauri)	IV/10		Data, 30 egun	9.980	Bai
Elkoro Jauna (Barakaldo)	III/30	IV/4	Ikusi, 90 egun	25.050	Ez
Agirre Jauna (Villabona)	V/1	V/3	Ikusi, 30 egun	12.075	Bai

Deskontu-tasa:

30 egun: % 12

60 egun: % 14

90 egun: % 16

Komisioa:

Helbideratuak: ./.. 4

Helbideratu gabeak: ./.. 7

Gutxienekoa: 0,3 €.

Egin beharreko kalkulu guztiak egin, eta negoziaketa-faktura bete.

3. Eman dezagun uztailaren 20an ondorengo bost T/L negoziatu zenituela Banco Guipuzcoanon, zure 295442.6 zenbakidun kontu-korrontean abonatzeko:

Igorpendua	I-d	O-d	Mugaeguna	Zenbatekoa	Helb.
Flessic, S.L. (Durango)	VI/5	VI/9	Ikusi, 60 egun	8.000	Bai
Artigas, S.A. (Iurre)	VI/15		Data, 60 egun	10.000	Ez
Tamayo, S.Coop. (Bakio)	VII/1	VII/5	Data, 30 egun	7.040	Bai
Indar, S.A.L. (Lazkao)	VII/3	VII/6	Ikusi, 30 egun	5.500	Bai
Look, S.A. (Gasteiz)	VI/30	VII/6	Ikusi, 90 egun	13.650	Ez

Baldintzak: deskontu-tasak eta komisioak aurreko ariketakoak dira.

Kalkula ezazu efektiboa, eta bete ezazu negoziaketa-faktura.

4. Arizkun Hnos. Enpresak honako 6 T/L negoziatu zituen KUTXAn martxoaren 15ean. Likidua 493460.3 zenbakidun kontu-korrontean abonatu behar da.

Igorpendua	I-d	O-d	Mugaeguna	Zenbatekoa	Helb.
Azkoien, S.A. (Iruñea)	I/29	II/5	Ikusi, 90 egun	28.750	Bai
Etxebeste y Errandonea (Don.)	II/25	II/28	Data, 30 egun	10.000	Ez
Hijos de Ortega (Andoain)	II/5	II/10	Data, 60 egun	18.025	Ez
Landaben, S.Coop. (Bergara)	I/30	II/3	Ikusi, 60 egun	20.050	Bai
Andueza y Cía. (Markina)	III/2		Data, 30 egun	8.500	Bai
Arregi eta Martínez (Peralta)	II/1		Data, 90 egun	32.500	Ez

Bete ezazu negoziazio-faktura egin beharreko kalkulu guztiak egin ondoren.



5 *Biltegia*

SARRERA

5.1. BILTEGIA ZER DEN

5.2. IZAKIN-MOTAK

5.3. IZAKINEN BALORAZIOA

5.4. BALORAZIO-METODOAK

- 5.4.1. Batez besteko Prezio Haztatuaren metodoa (BPH)
- 5.4.2. FIFO
- 5.4.3. LIFO

5.5. BILTEGIKO FITXAK

5.6. IZAKINEN KUDEAKETA

- 5.6.1. Stocka kudeatzearen helburuak
- 5.6.2. Izakinen kostuak
- 5.6.3. Stock-motak
- 5.6.4. Izakinen maila
- 5.6.5. Stockaren haustura
- 5.6.6. Stocken errotazioa
- 5.6.7. Birjarpen-mailak
- 5.6.8. Inbentarioa
- 5.6.9. ABC sailkapena

5.7. KOSTU-PREZIOAREN KALKULUA

5.8. SALMENTA-PREZIOAREN KALKULUA



SARRERA

Produktuak fabrikatu, ekoitzi edo erosi direnetik erabili, kontsumitu edo saldu arte denbora pixka bat pasatzen da. Denbora-epe horretan enpresan biltegitratuta egon behar dute produktuek.

Biltegian dauden objektuei izakinak deitzen zaie.


Enpresek izakinen balioa zehatz ezagutu nahi izaten dute, saldu nahi duten produktuaren kostua zenbatekoa den jakiteko. Hainbat irizpide badira izakin berdinen balioa kalkulatzeko: izakin berdinak erosi diren garaia arabera, edo une desberdinetan zuten prezioaren arabera. Zailtasun horiek gaiztatzeko zenbait balorazio-metodo erabiltzen dira.

Unitate didaktiko honetan izakinen balorazioa egiteko dauden metodoak eta erabiltzen diren dokumentuak eta fitxak ikusiko ditugu. Ondoren, biltegiaren sarrerek eta irteerek ematen diguten informazioa ikusi eta gero, **biltegiaren kudeaketa** aztertuko dugu.

Enpresa bakoitzak bere biltegi-politika izan ohi du: batzuek ez dute biltegirik; beste batzuek, berriz, oso biltegi handia dute...

Ez dezagun aiantzi zein den enpresa gehienek lehentasuna: produzitzea eta saltzea. Helburu horien atzetik etorri ohi da biltegia ahalik eta hobekien kudeatzea.

Inbentarioen edo stocken kudeaketa lagungarri izaten da zenbait erabaki hartzeko: zer produktu-kantitate eskatu behar den, nola murriztu biltegitratze-kostuak...



Ariketak

- 1) Zenbat izakin-mota biltegiara daitezke enpresa batean?
- 2) Ba al dakizu zergak produktu baten kostuaren zati bat diren ala ez? Eta garraio-gastuak?
- 3) Zure ustez, nola jakin daiteke saldutako produktu baten kostua, enpresak kostu desberdineko produktu berdinak baditu?
- 4) Enpresa batek lehengaiak atzerrian erosten baditu, dolarretan ordainduz..., uste duzu dolarren gora-beherek haien kostua aldarazi egingo dutela?



5.1. BILTEGIA ZER DEN

Salgaiak gordetzeko dugun leku fisikoa da biltegia. Hor dauden produktuen kudeaketa osoa egin behar da.

Biltegiaren helburuak:

Bezeroen eskakizunak azkar asetzeko, biltegian gutxieneko salgai-kantitate bat eduki beharra daukate enpresek. Produktuak enpresak berak fabrikatzen baditu, berriz, materialak (lehengaiak, piezak, ordezkioak, ontziak...) ere eduki behar ditu, produkzioari azkar ekiteko.

Helburu horiek betetzeko, beharrezkoa da:

- Biltegietako materialak erraz aurkitzeko moduan egotea, zuzenean identifikatu eta non dauden berehala jakiteko.
- Materialen harrera-sistema eta entrega-sistema egokiak edukitzea.

Bezeroaren eta produkzio- edo merkataritza-enpresaren arteko kate-maila da biltegia.



5.2. IZAKIN-MOTAK

Kontabilitatearen Plan Orokorreko kontu-koadroan –1643/1990, abenduaren 20ko Errege Dekretuaren bidez onartua (BOE, abenduaren 27koa)– izakinei buruzko atal berezi bat ageri da (3. taldea).

Kontabilitatearen Plan Orokorraren kontuen egileak saiatzen dira enpresaren ekonomia-jardueraren ondorioz sortutako eragiketen ahalik eta kontzeptu-kantitate handiena biltzen.

Hona hemen dauden izakin-motak: salgaiak, lehengaiak, bideango produktuak, produktu erdiburutuak, produktu burutuak, azpiproduktuak, hondarrak, berreskuratutakoak eta bestelako hornidurak.

Salgaiak: enpresak erositako produktuak, inongo transformaziorik gabe berriro ere saltzeko.

Lehengaiak: enpresak erositako produktuak edo materialak, landu edo transformatu ondoren fabrikatutako produktu bihurtuko direnak.

Bideango produktuak: ekitaldiaren bukaeran, fabrika, transformazio-fasean daudenak.

Produktu erdiburutuak: enpresak fabrikatzen dituenak baina salmentara bideratzeko lantze-prozesuren baten faltan daudenak.

Produktu burutuak: enpresak fabrikatzen dituenak eta azken kontsumorako (kontsumitzaileentzat) edo tarteko kontsumorako (beste enpresa batzuentzat) bideratuta daudenak.



Azpiproduktuak: enpresaren fabrikazio nagusitik sortzen diren bigarren mailako produktuak eta horien osagarri direnak.

Hondarrak: produktu burutuak eta azpiproduktuak fabrikatzean ezinbestean lortzen diren produktuak, baliorik badute gorde egin behar direnak.

Berreskuratuak: produkzio-prozesuan egon ondoren ere berrerabiltzeko berezko balioa duten materialak.

Bestelako hornidurak: produkzioan kontsumitzeko materialak, normalean enpresatik kanpo fabrikatuak (erregaiak, ontziak, bilgarriak, ordezeko piezak, bulego-materiala eta abar).

Izakin-mota bakoitzetik gehiago edo gutxiago behar izaten dituzte enpresek.

Produktu burutuen izakinez beterik egoten dira enpresa ekoizleen biltegiak; salgaiez, aldiz, merkataritza-enpresetakoak.

Bestelako hornidurak edozein eratako enpresen biltegietan egon ohi dira, ekoizleak merkataritza- edo zerbitzu-enpresak badira ere.

5.3. IZAKINEN BALORAZIOA

Kontabilitatearen Plan Orokorreko (KPO) balorazio-araudiaren 13. arauan daude izakinak balioztatzeko jarraitu beharreko irizpideak.

Izakinak erosketa-kostuaren arabera baloratu behar dira (erosiak izan badira), edo produkzio-kostuaren arabera (enpresan fabrikatuak izan badira).

a) Erosketa-kostua: fakturan ageri den prezioa gehi ondasunak gure biltegian ipini arte sortzen diren beste gastu guztiak (garraioak, aduanak, aseguruak eta abar) erosketa-kostuaren barruan daudela jo behar da.

Zeharkako zergen zenbatekoa (BEZa, adibidez) berreskuragarria ez bada erosketa-prezioan sartu behar da (ez da sartu behar BEZa kengarria bada).

$$\left. \begin{array}{l} \text{Fakturaren zenbatekoa} \\ + \\ \text{Gastuak (biltegraino)} \\ + \\ \text{Zeharkako zergak (berreskuraezinak)} \end{array} \right\} = \text{Erosketa-prezioa}$$

Zerga berreskuragarriak ez dira erosketa-kostuaren parte, erosleak (tramite batzuk betetzen baditu) zenbatekoa berriro jasotzen duelako. Horregatik, erosketa egiteko diru-kopuru bat ordaindu behar bada ere, Ogasunak itzuli egiten du gerora diru hori.

b) Produkzio-kostua: lehengaien eta beste material kontsumigarrien erosketa-kostuari gehitu egin behar zaizkio zuzenki produktuari dagozkion gainerako kostuak.

Zuzenki ez dagozkion kostuak ere gehitu behar zaizkio (adibidez: produktu baten kostuari dagozkion telefono-gastuaren ehunekoa).

$$\begin{array}{l}
 \text{Lehengaien eta gainerako materialen eroste-prezioa} \\
 + \\
 \text{Produktuari zuzenki dagozkion kostuak} \\
 + \\
 \text{Produktuari zeharka dagozkion kostuak}
 \end{array}
 \left. \vphantom{\begin{array}{l} \text{Lehengaien eta gainerako materialen eroste-prezioa} \\ + \\ \text{Produktuari zuzenki dagozkion kostuak} \\ + \\ \text{Produktuari zeharka dagozkion kostuak} \end{array}} \right\} = \text{Produkzio-kostua}$$

KPOko 14. arauak atzerriko monetan egindako erosketaren kostua edo produkzio-kostuaren balioespena erregulatzen du. Hona zer dioen: *“Atzerriko monetan erositakoa herrialdeko monetara bihurtzean, erosketa-egunean indarrean zegoen prezioa edo moneta-kanbio-tasa aplikatu behar da”*.

Ohikoa da enpresetako biltegietan hainbat eratako izakinak edukitzea, eta horietatik berdinak direnek ere erosketa-kostu edo produkzio-kostu desberdinak izatea. Biltegia hobeto kontrolatzeko, izakin bakoitzeko banakako fitxak erabili behar dira. Fitxa horietan jarri behar dira produktuaren ezaugarriak eta jatorrizko eragiketaren datuak.

Ariketa

Urtarrilaren 10ean BRASS modeloko 225 auto-jarleku erosi zitzaizkion IPINA S.A. enpresari; 200 € ordaindu zen unitateko. Faktura barruko deskontua egin zen (40 € unitateko). Erosketak, bestalde, honako gastuok zekartzan: aseguruak (1000 €) eta garraioak (4.000 €), biak fakturaren barruan.

Kalkula ezazu erosketa-kostua (erosketak eta garraio-kostuak % 16ko BEZa dute). Egin ezazu dagokion kostu-fitxa.

Azalpena:

- * Prezioa: **225 u x 200 €/u = 45.000 €.**
- * Deskontua fakturan: **225 u. x 40 €/u. = 9.000 €.**
- * Gastuak fakturan:
 - Aseguruak: **1.000 €.**
 - Garraioak: **4.000 €.**
- Zergak (% 16) = **(36.000 + 4.000) x % 16 = 6.400 €** (ez dira erosketa-kostuaren zati).
- * Erosketa-kostua: **45.000 – 9.000 + 5.000 = 41.000 €.**

KOSTUEN FITXA

Artikuluaren deskribapena	Auto-jarlekuak, BRASS modeloa
Unitate-kopurua	225
Faktura-zenbakia	
Hornitzailearen datuak	IPINA S.A.
Eroste-data	Urtarrilaren 10ean

FAKTURAREN BARRUAN

Unitate bakoitzeko eroste-prezioa	200 €
Merkataritza-deskontua	40 €
Berehala ordaintzeagatiko deskontuak	—
Bilgarriak	—



Garraioak (unitateko)	4,44 €
Aseguruak (unitateko)	17,66 €
Fakturaren zenbatekoa (unitateko)	182,1 €

FAKTURATIK KANPO

Garraioak	—
Aseguruak	—

UNITATE BAKOITZEKO KOSTUA	182,1 €
KOSTUA, GUZTIRA	41.000 €

Atriketa

Produktu bat fabrikatzeko honako elementuak erabiltzen dira:

- Lehengaiak: 4.000 €.
- Bestelako materialak: 1.000 €.

Zuzeneko kostuak:

- Lanorduak: 3.000 €.
- Erregaiak: 1.800 €.

Zeharkako kostuak:

- Elektrizitatea: 2.000 € (atal honi dagokion kostua % 30 dela jotzen da).

Kalkulatu produkzio-kostua.

Azalpena:

- Produkzio-kostua:
 - Lehengaiak: 4.000 €.
 - Bestelako materialak: 1.000 €.
- Zuzeneko kostuak: 4.800 €.
- Zeharkako kostuak: 600 €. (2.000 x % 30)

GUZTIRA.....10.400 €

5.4. BALORAZIO-METODOAK

Izakin bakoitzeko prezioa edota kostua banaka zehaztuta ez badago, baloratzeko hainbat metodoren artean aukeratzea badago. Normalean BPH metodoa erabiltzen da (Batez besteko Prezio Haztatuaren metodoa). Enpresak beste metodoren bat nahiago izanez gero, FIFO, LIFO edo antzekoren bat erabil daiteke.

Hona hemen salgaien salerosketa-adibide bat eragiketa hori hobeto ulertzeko. Biltegiek hainbat eroste-preziotako salgaiak izaten dituzte. Enpresak salgaiak merkaturatzen dituenean,



normalean ez du saldutako bakoitzaren eroste-prezioa jakiten, ezta biltegian geratzen direnen eroste-prezioa ere. Ez da harritzekoa ere, berdinak baitira, eta ez du merezi banan-banan identifikatzea, eroste-prezioak antzekoak izango baitira eta salmenta-prezioak ez du zerikusirik arazo horrekin. Baina enpresak irizpideren bat, metodoren bat, aukeratu behar du izakinak baloratzeko.

Hainbat eroste-prezio zeuden. Zein hartu? Batezbestekoa egin?

5.4.1. Batez besteko Prezio Haztatuaren metodoa (BPH)

Batez besteko Prezio Haztatuaren metodoa izakinen batez besteko aritmetikoa da, prezio bakoitzaren maiztasuna kontuan harturik (haztatua). Honako formula honen bidez ateratzen da:

$$BPH = \frac{(\text{Hasierako izakinak} \times \text{prezioa}) + \sum (\text{erositako unitateak} \times \text{prezioa})}{\text{Hasierako izakinen kantitatea} + \sum (\text{erositako kantitateak})}$$

Formula bera:

$$BPH = \frac{\sum (q_1 p_1 + q_2 p_2 + q_3 p_3 \dots)}{\sum (q_1 + q_2 + q_3 \dots)}$$

Biltegian izakinen sarrera bat (erosketa) izaten den bakoitzean BPHa aldatu egiten da; irteera (salmenta) bat egiten den bakoitzean, izakinen balioa murriztu egiten da, izakinen irteerak dagoen BPHan baloratzuz.

Adibidea: biltegi batean honakook daude:

- Hasierako izakinak: 200 unitate x 4 € = 800 €
- Erosketak: 300 unitate x 5 € = 1.500 €
- Izakinen balioa: 800 € + 1.500 € = 2.300 €

$$BPH = \frac{(200 \times 4) + (300 \times 5)}{200 + 300} = 4,6 \text{ €}$$

Orain 50 unitate salduko balira, balioa $50 \times 4,6 = 230 \text{ €}$ izango litzateke eta 450 unitate geratuko lirateke. Biltegian honako balioa legoke: $450 \times 4,6 \text{ €} = 2.070 \text{ €}$

5.4.2. F.I.F.O.

FIFO metodoak 'First in, first out' esan nahi du ingelesez: 'lehenengo sarrera, lehenengo irteera'.

Metodo honek preziorik zaharrenean baloratzten ditu biltegitik ateratzen diren izakinak, hau da, sartu ziren ordena berean atera behar dira.

Metodo hau aplikatzeko, izakinen sarrera-ordena jakin beharra dago, baita sarrera bakoitzeko izakin-kopurua eta prezioa ere.



Adibidea:

Izakinak: 40 unitate; prezioa: 1 €.
Erosketak: 60 unitate; prezioa: 1,2 €

Salmentak: 70 unitate ; $\left\{ \begin{array}{l} 40 \text{ prezioa: } 1 \text{ €} \\ 30 \text{ prezioa: } 1,2 \text{ €} \end{array} \right.$

Salmenta egiten bada, FIFO metodoak honakoa adierazten du: lehenbizi lehenengoak atera behar direla. Baina 40 izakin bakarrik daudenez, ez da nahikoa: gehiago hartu behar dira. Biltegian 30 unitate geratzen dira, 1,2 eurokoak.

5.4.3. L.I.F.O.

LIFO siglek 'Last in, first out' adierazten dute, hots, 'azkena sartzen, lehena irteten'.

Biltegitik ateratzen diren izakinak biltegitratuta denbora gutxien daramaten unitateen prezioan baloratzen ditu metodo honek. Sartzeko ordenaren alderantzizkoan ateratzen dira izakinak.

FIFO metodoaren antzera, izakinak biltegian sartzeko ordena eta sarrera bakoitzaren kopuruak eta prezioak jakin beharra dago.

Adibidea:

Izakinak: 40 unitate; prezioa: 1 €.
Erosketak: 60 unitate; prezioa: 1,2 €

Salmentak: 70 unitate ; $\left\{ \begin{array}{l} 60 \text{ prezioa: } 1,2 \text{ €} \\ 10 \text{ prezioa: } 1 \text{ €} \end{array} \right.$

Salmenta egiten denean LIFO metodoak zera adierazten du: lehenbizi azkenak atera behar direla. Baina 60 izakin bakarrik daudenez, ez da nahikoa: lehenengoak hartu behar dira. Biltegian 30 unitate geratzen dira, 1 eurokoak.

Bada metodo gehiagorik ere, baina Kontabilitatearen Plan Orokorrean ez dira aipatzen. Horregatik, enpresek ez dituzte erabili behar. Hona hemen metodo horietako batzuk:

- * HIFO: ingelesez, 'Highest in, first out', hau da, 'garestiena sartzen, lehena ateratzen'. Ez du biltegitiko sarrera-ordena kontuan hartzen
- * NIFO: ingelesez 'Next in, first out', hau da, 'hurrena sartzen dena, hura atera'. Irteeren balioa une horretako eroste-balioa da.
- * Batez besteko prezio sinplea: haztatu **gabeko** batezbesteko aritmetikoa litzateke, kantitateak kontuan hartu gabe.

5.5. BILTEGIKO FITXAK

Biltegitiko fitxak izakinen MUGIMENDUA (sarrerak eta irteerak) jakiteko enpresak erabiltzen dituen tresnak dira.

Biltegian dagoen izakin-mota bakoitzeko fitxa bat egin behar da. Mugimendu guztiak idatzi behar dira fitxa horretan, zein egunetan egin diren adieraziz. Bestalde, idazpen horrek enpresa



eta eragiketei buruzko informazioa jarri behar du. (Adibidez: erosketak, ehunak, TAVESA S. Koop.).

Garrantzizkoa izaten da biltegian behar diren produktu horien gutxieneko eta gehieneko kopuruak fitxan bertan jartzea. Muga horiek pasatzen badira dagokien sailei igorri behar zaie informazioa:

- Hornikuntza Sailari: izakinen kopurua gutxieneko halako kopuru batetik jaisten bada, horren berri eman egin behar zaio, erosketa gehiago egin dezan.
- Ekoizpen Sailari eta Salmenta Sailari: halako gehieneko kopuru batetik pasatzen bada, bi sail horiei jakinarazi behar zaie, behar diren aldaketak egin ditzaten.

Orain arte aipatutako metodoen arabera balioetsi behar dira izakinak. Aukeratzen den metodoa fitxaren idazpuruan jarri behar da.

Kalkuluaren metodoa edozein izanik ere, **izakinen sarrerak** erosketa-kostuan edo produkzio-kostuan baloratu behar dira. Sarrera bat itzulketa baten ondorio bada, produktu horiek ondorengo salmentarako egokiak badira, berriro sartu behar dira biltegian eta dagokion idazpena egin behar da. Kasu honetan, itzulitakoaren sarrerako balioak erosi zenekoa izan behar du.

Jarraian ageri dena biltegi-fitxaren eredua da. Honako osagai hauek ditu:

Idazpurua: izakin-motaren identifikazioa (artikulua, mota, kodea), biltegitratuta egon behar duten gutxieneko eta gehieneko kopuruak (gehienezko stocka, gutxienekoa, segurtasuneko stocka), erabili den balorazio-metodoa eta oharrak idazteko espazio txuri bat izan behar ditu.

Bost zutabe:

- Data: eragiketen datak jasotzeko.
- Izakinen jatorria eta norakoa (hornitzailearen edo bezeroaren datuak eta faktura-zenbakia).
- Sarrera, irteera eta izakinen zutabeak bereiziz:
 - * Kopurua: unitate-kopurua.
 - * Prezioa: unitate bakoitzeko balioa.
 - * Balioa: unitateen kopurua $\times$ prezioa.

Artikulua: Mota: Kodea: Metodoa:			Oharrak:			Izakinak: Gehienezko stocka: Gutxieneko stocka: Segurtasuneko stocka:				
Data	Jatorria edo norakoa	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa

-Biltegiko fitxaren eredua-



Ariketa

Ardo-salmentan diharduen Ardobask S.A. enpresak Haroko (Errioxa) biltegian 2.002ko urtarilaren hasieran 2.000 botila-ardo (litrokoak) ditu, 4.000 €-ko balioa dutenak. Urtarrileko mugimenduak honako hauek izan dira:

- Urtarrilaren 2an 1000 botila, litrokoak, erosi zituen, unitateko 3 € ordainduta.
- Urtarrilaren 5ean 800 botila saldu zituen, litrokoak, unitateko 6 €-tan.
- Urtarrilaren 8an 1.300 botila saldu zituen, litrokoak, unitateko 7 €-tan.
- Urtarrilaren 13an 1.500 botila saldu zituen, litrokoak, unitateko 2,5 €-tan.
- Urtarrilaren 17an 1.800 botila erosi zituen, litrokoak, unitateko 3,2 € ordainduta.
- Urtarrilaren 22an 2.200 botila saldu zituen, litrokoak, unitateko 8 €-tan.
- Urtarrilaren 23an aurreko salmentako 400 botila itzuli zizkieten, okerreko eskaera izan zela-eta.
- Urtarrilaren 25ean 700 botila erosi zituen, litrokoak, unitateko 4 € ordainduta.
- Urtarrilaren 27an 900 botila, litrokoak, saldu zituen, unitateko 6,5 €-tan.

Bete ezazu fitxa, hiru balorazio-metodoak erabiliz:

BATEZ BESTEKO PREZIO HAZTATUA (BPH)

Bi ohar:

Salmenta-prezioak ez dira ezertarako kontuan hartu behar.

Erosketa bakoitzaren ondoren batez besteko prezioa kalkulatu behar da.

Lehen idazpenak **urtarrilaren 1ean** dauden izakinei dagokiena izan behar du.

Kopurua	Prezioa	Balioa
2.000 unitate	$\frac{4.000}{2.000} = 2 \text{ €}$	4.000 €

Urtarrilaren 2an 1000 unitate erosi ziren, 3na €-tan; horregatik, egun hartan biltegian 3000 unitate zeuden = hasierako 2000 u. + erositako 1000 u.:

Kopurua	Prezioa	Balioa
2.000	$BPH_1 = \frac{7.000}{3.000} = 2,33 \text{ €}$	4.000 €
+ 1.000		+3.000 €
3.000		7.000 €

Urtarrilaren 5ean 800 unitate saldu ziren (irteerak) eta BPH metodoaz balioztatu, salmenta prezioa kontuan hartu gabe.

Kopurua	Prezioa	Balioa
800 unitate	2,33 €	1.866,66 €

Izakinen zutabearen kopurua (800) eta balioa (1.866,66) gutxitu egin behar dira.
Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 = 2.200)

Urtarrilaren 8an 1300 unitate saldu ziren (irteerak)

Kopurua	Prezioa	Balioa
1.300 unitate	2,33 €	3.029,9

Izakinen zutabearen kopurua (1300) eta balioa (3.029,9) gutxitu egin behar dira.
Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 – 1.300 = 900)



Urtarrilaren 13an 1.500 unitate erosi ziren (2,5na € -tan). Erosketa guztietan bezala, BPH kalkulatu beharra dago.

Kopurua	Prezioa	Balioa
900 unitate	$BPH_2 = \frac{5.850}{2.400} = 2,4375 \text{ €}$	2.100 €
+1.500 unitate		3.750 €

2.400 unitate **5.850 €**

Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 – 1.300 + 1.500 = 2.400)

Urtarrilaren 17an 1.800 unitate erosi ziren (3,2na € -tan). Erosketa guztietan bezala, BPH kalkulatu behar da.

Kantitatea	Prezioa	Balioa
2.400 unitate	$BPH_3 = \frac{11.610}{4.200} = 2,764 \text{ €}$	5.850 €
+ 1.800 unitate		5.760 €

4.200 unitate **11.610 €**

Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 – 1.300 + 1.500 + 1.800 = 4.200)

Urtarrilaren 22an 2.200 unitate saldu ziren (irteerak) eta BPH sistemaz balioztatu, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe.

Kopurua	Prezioa	Balioa
2.200 unitate	2,764 €	6.081,5 €

Izakinen zutabea gutxitu egin behar dira kopurua (2.200) eta balioa (6.081,5 €).
Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 – 1.300 + 1.500 + 1.800 – 2.200 = 2.000)

Urtarrilaren 23an aurreko salmentaren 400 unitate itzuli zituzten. Begiratu eta egoera onean zeudela frogatu zen. Eroske-prezio berean baloratu ziren.

Kantitatea	Prezioa	Balioa
400 unitate	2,764 €	1.105,6 €

Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 – 1.300 + 1.500 + 1.800 – 2.200 + 400 = 2.400)

Urtarrilaren 25ean 700 unitate erosi ziren (4na € -tan). Erosketa guztietan bezala, BPH kalkulatu behar da.

Kantitatea	Prezioa	Balioa
2.400 unitate	$BPH_4 = \frac{9.433,6}{3.100} = 3,043 \text{ €}$	6.633,6 €
+ 700 unitate		2.800 €
3.100 unitate		9.433,6 €

Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 – 1.300 + 1.500 + 1.800 – 2.200 + 400 + 700 = 3.100)

Urtarrilaren 27an 900 unitate saldu ziren (irteerak) eta BPH sistemaz balioztatu, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe.

Kantitatea	Prezioa	Balioa
900 unitate	3,043 €	2.738,8 €

Izakinen zutabea gutxitu egin behar dira kopurua (900) eta balioa (2.738,8 €).
Kontuan harturik biltegian zegoen kopurua:
(2.000 + 1.000 – 800 – 1.300 + 1.500 + 1.800 – 2.200 + 400 + 700 – 900 = 2.200)
Eta kopuru horrek balio duena egiaztatuz: **2.200 x 3,043 = 6694,6.**



Artikulua: Mota: Kodea: Metodoa:		Oharrak:			Izakinak: Gehienezko stocka: Gutxieneko stocka: Segurtasun-stocka:					
Data	Jatorria edo norakoa	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa
1-1	Hasierako izakinak							2.000	2 €	4.000
1-2	Erosketa	1.000	3 €	3.000				3.000	2,33 €	7.000
1-5	Salmenta				800	2,33 €		2.200	2,33 €	5.126
1-8	Salmenta				1.300	2,33 €		900	2,33 €	2.097
1-13	Erosketa	1.500	2,5 €	3.750				2.400	2,436 €	5.847
1-17	Erosketa	1.800	3,2 €	5.760				4.200	2,764	11.607
1-22	Salmenta				2.200	2,764	6.080	2.000	2,764	5.527
1-23	Aurrekoaren itzulketa	400	2,764	1.105				2.400	2,764	6.632
1-25	Erosketa	700	4 €	2.800				3.100	3,043	9.432
1-27	Salmenta	900	3,043	2.738				2.200	3,043	6.694
Izakinak										6.694 €

FIFO

Bi ohar:

- 1) Salmenta-prezioak ez dira ezertarako kontuan hartu behar.
- 2) Biltegiaren zeuden lehenak atera behar dira lehenbizi.

Lehen idazpenak urtarilaren 1ean dauden izakinenak izan behar du.

Kopurua	Prezioa	Balioa
2.000 unitate	$\frac{4.000}{2.000} = 2 \text{ €}$	4.000 €

Urtarrilaren 2an 1000 unitate erosi ziren (3na € -tan). Horregatik, egun horretan honako kopurua zegoen biltegiaren: 3000 unitate = hasierako 2000 + erositako 1000. Prezioen arabera idazpenak egin behar dira:

Kopurua	Prezioa	Balioa
2.000 unitate	2 €	4.000 €
1.000 unitate	3 €	3.000 €
3.000 unitate		7.000 €

Urtarrilaren 5ean 800 unitate saldu ziren (irteerak). FIFO metodoaz balioztatu behar dira, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe. Biltegiaren zeuden lehenak atera behar dira lehenbizi, FIFO metodoari jarraituz.



Kasu honetan hasierako 2.000koak atera behar dira, 800,2 €-tan, eta honakook geratu behar dute:

Kopurua	Prezioa	Balioa
1.200 unitate	2 €	2.400 €
1.000 unitate	3 €	3.000 €
2.200 unitate		5.400 €

Urtarrilaren 8an 1.300 unitate saldu ziren (irteerak) eta FIFO sistemaz balioztatu, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe. Biltegian zeuden lehenak atera behar dira lehenbizi, FIFO metodoari jarraituz.

Kasu honetan, ordea, ez dago nahikoa hasierako 1.200ekin (2na €-koak) eta beste 100 hartu behar dira (3na €-koak) 1300 osatzeko. Beraz, honako kopurua geratuko da:

Kopurua	Prezioa	Balioa
	2 €	
900 unitate	3 €	2.700 €
900 unitate		2.700 €

Kontuan izan ez dela geratzen 2 €-ko unitaterik, agortu egin baitziren.

Urtarrilaren 13an 1.500 unitate erosi ziren (2,5na €-tan). Prezioen arabera idazpenak egin behar dira:

Kopurua	Prezioa	Balioa
900 unitate	3 €	2.700 €
1.500 unitate	2,5 €	3.750 €
2.400 unitate		6.450 €

Urtarrilaren 17an 1.800 unitate erosi ziren (3,2na €-tan). Prezioen arabera idazpenak egin behar dira oraingoan ere:

Kopurua	Prezioa	Balioa
900 unitate	3 €	2.700 €
1.500 unitate	2,5 €	3.750 €
1.800 unitate	3,2 €	5.760 €
4.200 unitate		12.210 €

Urtarrilaren 22an 2.200 unitate saldu ziren (irteerak) . FIFO metodoaz balioztatu behar dira, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe. Biltegian zeuden lehenak atera behar dira lehenbizi, FIFO metodoari jarraituz.

Kasu honetan, ordea, ez dago nahikoa hasierako 900ekin (3na €-koak) eta beste 1.300 hartu behar dira (2,5na €-koak) 2.200 osatzeko. Beraz, honako kopurua geratuko da:

Kopurua	Prezioa	Balioa
	3 €	
200 unitate	2,5 €	500 €
1.800 unitate	3,2 €	5.760 €
2.000 unitate		6.260 €

Urtarrilaren 23an 400 unitate itzuli zituzten, akatsik gabekoak, eskakizuna betetzean hutsune bat egin zelako (gehiegi bidali). FIFO metodoaz gabiltzanez, lehenengo prezio berarekin (erosi zirenean biltegitatu ziren prezioa) itzuli behar dira.

Kopurua	Prezioa	Balioa
400 unitate	3 €	1.200 €
200 unitate	2,5 €	500 €
1.800 unitate	3,2 €	5.760 €
2.400 unitate		7.460 €

Urtarrilaren 25ean 700 unitate erosi ziren (4na €-tan). Prezioen arabera idazpenak egin behar dira.



Kopurua	Prezioa	Balioa
400 unitate	3 €	1.200 €
200 unitate	2,5 €	500 €
1.800 unitate	3,2 €	5.760 €
700 unitate	4 €	2.800 €
3.100 unitate		10.260 €

Urtarrilaren 27an 900 unitate saldu ziren.

Kopurua	Prezioa	Balioa
_____	3 €	_____
_____	2,5 €	_____
1.500 unitate	3,2 €	4.800 €
700 unitate	4 €	2.800 €
2.200 unitate		10.260 €

Artikulua: Mota: Kodea: Metodoa:			Oharrak:			Izakinak: Gehieneko stocka: Gutxieneko stocka: Segurtasun-stocka:				
Data	Jatorria edo norakoa	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa
1-1	Hasierako izakinak							2.000	2 €	4.000
1-2	Erosketa	1.000	3 €	3.000				2.000 1.000	2 € 3 €	4.000 3.000
1-5	Salmenta				800	2 €	1.600	1.200 1.000	2 € 3 €	2.400 3.000
1-8	Salmenta				1.200 100	2 € 3 €		— 900	— 2 €	— 1.800
1-13	Erosketa	1.500	2,5 €	3.750				900 1.500	2 € 2,5 €	1.800 3.750
1-17	Erosketa	1.800	3,2 €	5.760				900 1.500 1.800	2 € 2,5 € 3,2 €	1.800 3.750 5.760
1-22	Salmenta				900 1.300	2 € 2,5 €	1.800 2.750	— 200 1.800	2 € 2,5 € 3,2 €	— 500 5.760
1-23	Aurrekoaren itzulketa	400	2 €	800				400 200 1.800	2 € 2,5 € 3,2 €	800 500 5.760
1-25	Erosketa	700	4 €	2.800				400 200 1.800 700	2 € 2,5 € 3,2 € 4 €	800 500 5.760 2.800
1-27	Salmenta	400 200 300	2 € 2,5 € 3,2 €					— — 1.500 700	2 € 2,5 € 3,2 € 4 €	— — 4.800 2.800
Izakinak										9.600 €



LIFO*Bi ohar:*

- 1) *Salmenta-prezioak ez dira ezertarako erabili behar.*
- 2) *Azkena sartutakoak atera behar dira lehenbizi.*

Lehen idazpena, urtarrilaren 1ean zeuden izakinena.

Kopurua	Prezioa	Balioa
2.000 unitate	$\frac{4.000}{2.000} = 2 \text{ €}$	4.000 €

Urtarrilaren 2an 1000 unitate erosi ziren (3na €-koak). Horregatik, egun hartan biltegian 3.000 unitate zeuden = hasierako 2.000 + erositako 1.000. Prezio bakoitza aparte idatzi behar da, dagokion kopuruarekin. Oraingoan, ordea, azkenekoak aurrena idatzi behar dira.

Kopurua	Prezioa	Balioa
1.000 unitate	3 €	3.000 €
2.000 unitate	2 €	4.000 €
3.000 unitate		7.000 €

Urtarrilaren 5ean 800 unitate saldu ziren (irteerak) eta LIFO metodoaz balioztatu, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe. Azkena sartutakoak atera behar dira lehenbizi, LIFO metodoari jarraituz.

Kasu honetan, azkeneko 1.000 horietatik 800 atera behar dira, 3na €-koak. Beraz, honako kopuru hau geratuko da:

Kopurua	Prezioa	Balioa
200 unitate	3 €	600 €
2.000 unitate	2 €	2.000 €
2.200 unitate		2.600 €

Urtarrilaren 8an 1300 unitate saldu ziren (irteerak). LIFO metodoaz balioztatu behar dira, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe. Azkena sartutakoak atera behar dira lehenbizi, LIFO metodoari jarraituz.

Kasu honetan, ordea, ez dago nahikoa hasierako 200ekin (3na €-koak) eta beste 1.100 hartu behar dira (2na €-koak) 1300 osatzeko. Beraz, honako kopurua geratuko da:

Kopurua	Prezioa	Balioa
900 unitate	3 €	1.800 €
900 unitate	2 €	1.800 €

Kontuan izan ez dela geratzen 3 €-ko unitaterik, agortu egin baitziren.

Urtarrilaren 13an 1.500 unitate erosi ziren (2,5na €-koak). Prezioen arabera idazpenak egin behar dira:

Kopurua	Prezioa	Balioa
1.500 unitate	2,5 €	3.750 €
900 unitate	2 €	1.800 €
2.400 unitate		5.550 €

Urtarrilaren 17an 1.800 unitate erosi ziren (3,2na €-koak). Aparte idatzi behar da prezio bakoitza.

Kopurua	Prezioa	Balioa
1.800 unitate	3,2 €	5.760 €
1.500 unitate	2,5 €	3.750 €
900 unitate	2 €	1.800 €
4.200 unitate		11.310 €



Urtarrilaren 22an 2.200 unitate saldu ziren (irteerak). LIFO metodoaz balioztatu behar dira, salmenta-prezioa kontuan hartu gabe. Azkena sartutakoak atera behar dira lehenbizi, LIFO metodoari jarraituz.

Kasu honetan, ordea, ez dago nahikoa hasierako 1.800ekin (3,2na €-koak) eta beste 400 hartu behar dira (2,5na €-koak) 2.200 osatzeko. Beraz, honako kopurua geratuko da:

Kopurua	Prezioa	Balioa
—	3,2 €	—
1.100 unitate	2,5 €	2.750 €
900 unitate	2 €	1.800 €
2.000 unitate		4.550 €

Urtarrilaren 23an 400 unitate itzuli zituzten, akatsik gabekoak, eskakizuna betetzean hutsune bat egin zelako (gehiegi bidali). FIFO metodoaz gabiltzanez, lehenengo prezio berarekin (erosi zirenean biltegitatu ziren prezioa) itzuli behar dira.

Kopurua	Prezioa	Balioa
400 unitate	2,5 €	1.000 €
1.100 unitate	2,5 €	2.750 €
900 unitate	2 €	1.800 €
2.400 unitate		5.550 €

Urtarrilaren 25ean 700 unitate erosi ziren (4na €-koak). Prezioen arabera idazpenak egin behar dira:

Kopurua	Prezioa	Balioa
700 unitate	4 €	2.800 €
1.500 unitate	2,5 €	3.750 €
900 unitate	2 €	1.800 €
3.100 unitate		8.350 €

Urtarrilaren 27an 900 unitate saldu ziren.

Kopurua	Prezioa	Balioa
—	4 €	—
1.300 unitate	2,5 €	3.250 €
900 unitate	2 €	1.800 €
2.200 unitate		5.050 €

Artikulua: Mota: Kodea: Metodoa:			Oharrak:			Izakinak: Gehieneko stocka: Gutxieneko stocka: Segurtasun-stocka:				
Data	Jatorria edo norakoa	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa	Kop.	Prezioa	Balioa
1-1	Hasierako izakinak							2.000	2 €	4.000
1-2	Erosketa	1.000	3 €	3.000				1.000 2.000	3 € 2 €	3.000 4.000
1-5	Salmenta				800	3 €	2.400	200 2.000	3 € 2 €	400 4.000
1-8	Salmenta				200 1.100	3 € 2 €	600 2.200	— 900	— 2 €	— 1.800
1-13	Erosketa	1.500	2,5 €	3.750				1.500 900	2,5 € 2 €	3.750 1.800



1-17	Erosketa	1.800	3,2 €	5.760				1.800 1.500 900	3,2 € 2,5 € 2 €	5.760 3.750 1.800
1-22	Salmenta				1.800 400	3,2 € 2,5 €	5.760	— 1.100 900	3,2 € 2,5 € 2 €	— 2.750 1.800
1-23	Aurrekoaren itzulketa	400	2,5 €	1.000				1.500 900	2,5 € 2 €	3.750 1.800
1-25	Erosketa	700	4 €	2.800				700 1.500 900	4 € 2,5 € 2 €	2.800 3.750 1.800
1-27	Salmenta	700 200	4 € 2,5 €					— 1.300 900	4 € 2,5 € 2 €	— 3.750 1.800
Izakinak										5.550 €

Trakasteko eta ikasteko ariketak

- 1) Noiz erabiltzen da erosketa-prezioa eta noiz produkzio-kostua izakinak balioztatzeko?
- 2) Zergatik zerga berreskuragarriak ez dira erosketa-prezioaren parte?
- 3) Zergatik aplikatu behar dugu metodoren bat izakinen balioa jakiteko?
- 4) Enpresek nahi dutenean erabil al ditzakete FIFO eta LIFO metodoak?
- 5) Biltegi batean:
Nola balioztatu behar dira sarrerak?
Nola balioztatu behar dira irteerak?
Nola balioztatu behar dira itzulketak?
- 6) Zein balioztatze-metodo aipatzen ditu KPOk (Kontabilitate Plan Orokorra)? Azal itzazu.
- 7) Zertarako dira biltegi-fitxak?
- 8) Zenbat motatako biltegi-fitxak erabiltzen ditu enpresak?
- 9) Zein saili jakinarazi behar zaie biltegiko gehienezko eta gutxienezko izakinen mugak gainditu egin direla? Zergatik?
- 10) Biltegiko fitxetan, salmentaren prezioaren arabera baliozta al daitezke izakinak? Zergatik?



Ariketak

- 11) Apirilaren 27an 1.800 salgai-unitate erosi genizkion ALPER, S.A. enpresari 2na € -tan. Eskaeraren bolumena zela-eta (rappela), 200 € -ko deskontua egin ziguten fakturan. Salgaiak enpresaraino garraiatzea 100 € kostatu zen (gure kontura). Erosketari eta garraioari dagokien BEZa % 16koa da. Zerga bereziak (ez berreskuragarriak) 600 € dira. Egin ezazu erosketa honen kostu-fitxa.
- 12) POORROMP produktua fabrikatzen dugu. Hona hemen fabrikazio-kostuak, guztira (€-tan):
- | | |
|-----------------------|-----------|
| – Lehengaiak | 200.000 € |
| – Zuzeneko lanorduak | 90.000 € |
| – Erregaiak | 15.000 € |
| – Elektrizitatea | 10.000 €* |
| – Zeharkako lanorduak | 12.000 €* |
- * % 60ko parte-hartzea izan du POORROMP enpresako Fabrikazio Sailak kostu horietan.
- Bi mila unitate ekoitzi dira. Zein da unitate bakoitzaren kostua?
- 13) Gure enpresak beste enpresa bati bi produktu-mota erosi dizkio (X produktuaren 2.000 unitate eta Y produktuaren 1.200).
- X-ren prezioa, unitateko: 2,2 €
Y-ren prezioa, unitateko: 2,8 €
X-ren erosketa-bolumenagatik deskontua (fakturaren barruan) 0,2 €/u.
Garraio-gastuak, guztira: 1.000 €.
Berreskurazinezko zeharkako zergak:
- X produktuan: 100 €.
 - Y produktuan: 150 €.
- BEZ kengarria: %16 (X eta Y produktuak eta garraio-gastuak).
Garraio-gastuak X eta Y produktuen arteko banaketa produktu bakoitzaren guztizko zenbatekoaren arabera egin behar da, zergak kenduta.
Kalkulatu X eta Y produktuen unitateko kostua.
- 14) Biltegi batek honako izakinok ditu:
- Hasierako izakinak: 230 unitate, 1,5 €/u.
 - Urtarrileko erosketak: 300 unitate, 1,8 €/u.
 - Otsaileko erosketak: 210 unitate, 1,6 €/u.
- Kalkulatu batez besteko prezio haztatua erosketa bakoitzaren ondoren.
Apirilean 460 unitate saldu ziren, 3 €/u. prezioan. Zein da saldutako izakinen balioa, biltegiko kalkuluen arabera? Zenbat geratzen dira biltegian?
- 15) Aurreko ariketan izakinen balioa kalkulatzeko FIFO metodoa erabili balitz, zein izango litzateke saldutako izakinen balioa, biltegiko kalkuluen arabera? Zenbat geratzen dira biltegian?
- 16) Aurreko ariketan izakinen balioa kalkulatzeko LIFO metodoa erabili balitz, zein izango litzateke saldutako izakinen balioa, biltegiko kalkuluen arabera? Zenbat geratzen dira biltegian?
- 17) Anaiak E.M. enpresak (Altsasu - Nafarroa) Lumagorri deiturapeko oiloak bailarako baserritarrei erosi eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako dendei saltzen dizkie. 2002ko urtarrilaren 1ean 2.000 kilogramo ditu enpresa honen biltegiak, 6.000 € -ko balioarekin. Honako mugimenduak izan zituen biltegiak urtarrilean:
- Urtarrilaren 3an 1.000 kilogramo erosi zituen, 2,2na €/kg. prezioan.
 - Urtarrilaren 5ean 1.500 kg saldu zizkion Eroskiri, 4,2 €/kg prezioan.



- Urtarrilaren 8an 250 kg. itzuli zizkion Eroskik, eskakizuna gaizki jaso baitzuen enpresak (100 kg usteldu egin ziren, baina besteak saltzeko moduan daude, izoztuta baitzeuden).
 - Urtarrilaren 10ean Prycari 1.000 kg. saldu zizkion, 4,3 €/kg-tan.
 - Urtarrilaren 14an 1.600 kilogramo erosi zituen, 2,4 €/kg-tan.
 - Urtarrilaren 18an 1.300 kilogramo erosi zituen, 2,5 €/kg-tan.
 - Urtarrilaren 22an 1.400 kilogramo saldu zizkion El Corte Inglesi, 4,4 €/kg-tan.
 - Urtarrilaren 26an 700 kilogramo saldu zizkion DIA kateari, 3,9 €/kg-tan.
 - Urtarrilaren 28an 1.100 kilogramo erosi zituen, 3 €/kg-tan
 - Urtarrilaren 29an 900 kilogramo saldu zizkion SUPER BM kateari, 4 €/kg-tan.
- Biltegi-fitxak bete, KPOean ageri diren balioztatzeko hiru metodoak erabiliz.

5.6. IZAKINEN KUDEAKETA


Bi erantzukizun ditu biltegiaren arduradunak: bata, izakinen mugimenduak behatu eta horien erregistroa eta balioak biltegi-fitxetan idaztea; bestea, biltegian jasotzen duen informazioarekin erabakiak hartzea, enpresaren biltegi-politikaren arabera.

Izakinen edo stocken kudeaketak galdera hauen arabera izan behar du:

Zenbat produktu eskatu edo erosi behar dira?

Noiz eskatu?

Nola murriztu biltegitratze-kostuak?



fehenbiziko ariketa

- 1) Azaldu zer esan nahi duten honako termino hauek:
 - Stocka, inbentarioa eta izakinak.
 - Salgaiak, lehengaiak, produktu burutuak, erdiburutuak, hondarrak, bideango produktuak, ordezeko piezak, bilgarriak eta ontziak.
- 2) Erantzun galdera hauei:
 - Non gorde behar dira aurreko paragrafoan aipatutako artikulak?
 - Izakinen gutxieneko kopuru bat mantendu beharra al dauka beti, badaezpada, enpresak?
 - Zure ustez, nola murriz daitezke biltegi-kostuak?
- 3) Zein da *kudeatu eta zuzendu* terminoen arteko diferentzia?

5.6.1. Stocka kudeatzearen helburuak

Stocka edo izakinak hitzak erabiltzen ditugu biltegiko gaiez mintzatzeko. Horien guztizko kopuru zenbatuari, berriz, inbentarioa deitzen zaio.

Enpresako politika finkatzea, helburuak zehaztea eta aldaketak egiteko erabakiak hartzea **zuzentzea da**. Enpresaren goi-mailan bakarrik (zuzendariak) egiten da hori.

Helburuak finkatu eta gero, horiek gauzatzeko pausoak ematea, diseinatutako metodoak aplikatzea, oztopo teknikoak gainditzea eta errealitatean aplikatzea, berriz, **kudeatzea da**. Teknikariei dagokie zeregin hori.

Stocken kudeaketari honako zeregin hau dagokio: produktuak bere tokian, behar den unean eta kopuru edo kantitate egokian egon daitezen arduratzea.

Stocken kudeaketa teknika-multzo bat da, galdera hauen arabera:

- 1) Zein da artikulua bakoitzeko behar den izakin-maila?
- 2) Noiz egin behar da artikulua horren eskaera?
- 3) Zenbateko kantitatea eskatu behar da?

Galdera horiei erantzuteko stocka kudeatzen duen sailak –Erosketa Sailak, adibidez– honako erabakiok hartu behar ditu, enpresako politikaren arabera:

- * Eskaera-puntua finkatu.
- * Eskatu behar diren kantitateak finkatu.
- * Ahalik eta lote merkeenak bilatu eta erosi.

Stocken kudeaketa zuzena: produktuen eskaera asetzen duen izakin-maila. Horri loturik, izakinen mailak ez du handiegia izan behar, biltegiarzte-kostuak gehiegi igo ez daitezen.

5.6.2. Izakinen kostuak

Hornikuntza-kostua

- Eskaeraren kostua: artikulua bakoitzaren unitateko balioa bider artikuluen kopurua.



- Bidaltze-kostua: eskaera egiteko izandako gastuak (administrazioa, posta, telefonoa...)

Biltegiarzte-kostua

Artikulua biltegian edukitzeagatik sortzen diren gastuak: zaintza, energia, lokalaren mantenua, instalazioak, alokairuak...

5.6.3. Stock-motak

Honela sailka daitezke stockak:

- a) **Ohiko stockak**: biltegian era kontrolatuan mantentzen direnak.
- b) **Ezohiko stockak edo aldakorrak**: merkatuaren eskaintzak aprobetxatuz sortzen direnak.
- c) **Segurtasun-stockak**: izakinen babes-maila mantentzea helburu dutenak, urritasun-arriskua saihesteko. Urritasuna lanaren ziklo normalaren desbideraketa baten ondorioz gerta daiteke: grebak, istripuak...

5.6.4. Izakinen maila

Artikulu baten izakinen maila: enpresak une jakin batean biltegiarazia duen artikulu horren kopurua.

Inbentarioen kudeaketan hartu beharreko erabaki garrantzitsuenen artean dago izakinen maila, biltegia zuzkitu gabe gera ez dadin, edo stock handiegirik eduki ez dezan.

Egoera horiek aurreikusteko muga batzuk finkatzen dira: gutxieneko stocka eta gehieneko stocka.

5.6.4.1. Gutxieneko stocka

Gutxieneko stocka: biltegian artikulu batetik eduki dezakegun kopuru minimoa. Maila horretara iristen denean, produktu hori eskatu egin behar du enpresak.

5.6.4.2. Gehieneko stocka

Gehieneko stocka: biltegian artikulu batetik gorde behar den kantitate maximoa. Aipatu dugunez, kantitate hori ahalik eta txikiena izatea komeni, biltegiarzte-kostuak minimizatzeke.


5.6.4.3. Segurtasun-stocka

Artikulu baten falta saihesteko segurtasun-maila bat finkatu behar da, erreserba-gordailuaren funtzioa egiten duena; stock-maila horretatik behera ez du sekula jaitsi behar. Noski, ez dira beti artikulua berak gordetzen, ezen, benetan, ez da ezer gordetzen, maila mantentzen baizik.

Bestalde, eskaera heltzen den bitartean ez da askotan artikulu baten eskaera zehatz-mehatz ezagutzen, eta epe horretan aurreikusitakoa baino handiagoa izan daiteke. Kasu horretan segurtasun-stocka erabili behar da stocken etendura saihesteko.



Enpresa batzuetan, gauza bera dira segurtasun-stockak eta gutxieneko stockak. Nolanahi ere, segurtasun-stockak erabiliz gero birjarri egin behar da ahalik eta lasterren.




5.6.5. Stockaren haustura

Produktu jakin baten biltegiko izakinak nahikoak ez badira kontsumoa asetzeko, stockaren haustura gertatu dela esaten da, hau da, izakinen eskasia dela-eta ezin dira eskaerak ase.

Stockaren hausturak honako ondorioa dakar: ase gabeko eskaera, hots, eskaerak ez dira egiten diren unean betetzen. Horrelakoetan bi kasu gerta daitezke:

- Eskaera atzeratzea, inbentarioaren maila normalizatu arte.
- Eskaera betirako galtzea.

Lehengaien edo ekoizpenerako derrigorrezko osagaien haustura gertatuz gero produkzioa ere eten daiteke.



Jarduera

Zure ustez, zerk sor dezake stockaren haustura?

5.6.6. Stocken errotazioa

Produktu guztiak ez dira denbora-epe berean edukitzen biltegiari. Produktu batzuk beste batzuk baino azkarrago ateratzen eta sartzen dira.

Errotazio-indizeak neurtzen du biltegiari mugitzen diren produktuen aldizkakotasuna, hau da, zenbat aldiz agertzen den (irteerak) produktua epe jakin batean (urtebete, normalean).

- * Errotazio-indize altuak produktu hori asko, maiz, mugitzen dela adierazten du.
- * Errotazio-indize baxuak, aitzitik, produktua gutxi mugitzen dela adierazten du, maiztasun txikiarekin.

Errotazio-indizea kalkulatzeko formula honakoa da:

$$\text{Errotazioa} = \frac{\text{Urteko irteerak}}{\text{Urteko batez besteko izakinak}}$$



Errotazio-indizea adierazteko urtea erabili behar da erreferentziazat, kudeaketa-kostuek urtea hartzen baitute oinarritzko epeztat.

Ariketa

Kalkulatu ASTORE etxeko 'txandal gorria' produktuaren errotazio-indizea 2002 urtean honako informazioa kontuan hartuta:

URTEKO IRTEERAK		HAMABI HILABETEKO IZAKINAK	
Urtarrila	3.000 unitate	Urtarrila	4.000 unitate
Apirila	5.000 unitate	Otsaila	3.000 unitate
Ekaina	7.000 unitate	Martxoa	2.000 unitate
Urria	8.000 unitate	Apirila	3.000 unitate
Abendua	7.000 unitate	Maiatza	6.000 unitate
		Ekaina	4.000 unitate
		Uztaila	3.000 unitate
		Abuztua	5.000 unitate
		Iraila	7.000 unitate
		Urria	8.000 unitate
		Azaroa	7.000 unitate
		Abendua	8.000 unitate

Azalpena:

$$\text{Errotazio-indizea} = \frac{30.000}{\frac{60.000}{12}} = \frac{30.000}{5.000} = 6$$

5.6.7. Birjarpen-mailak

Noiz egin behar dira eskaerak?

Birjarpen-sistemen helburua stock-hausturarik ez gertatzea da, baita izakin gehiegi ez edukitzea ere.

5.6.7.1. Eskaera-puntua

Eskaera-agindu bat sortzen duen izakin-maila da.

Kontzeptu hau produktu burutuekin erabiltzen da batez ere, eskaera egonkor eta jarraitua duten enpreetan.

Metodoa aplikatzeko, kontuan eduki behar dugu honakoa:

- Eskaera: material-eskarien kopurua.
- Hornikuntza-epea: materiala eskatzen denetik biltegira iritsi arte itxaron beharreko epea.
- Segurtasun-stocka



Kalkulua:

$$\text{Eskaera-puntua} = \text{Hornikuntza-epeko kontsumoa} + \text{Segurtasun-stocka}$$


'Zerra-hortza' deritzon diagrama baten bidez adierazten da.

Atriketa

X produktuaren segurtasun-stocka 600 unitatekoa da; hornikuntza-epean espero den kontsumoa (materiala biltegira iritsi arte), berriz, 450 unitatekoa. Zer izakin maila behar dugu birjarpen-epean (edo eskaera-puntuan) eskaera egiteko?

Azalpena:

$$\text{Eskaera-puntua} = 450 + 600 = 1.050 \text{ unitate}$$



5.6.7.2. Eskaera Lote Ekonomikoa

Merkeen erosten den produktuaren kantitatea da Eskaera Lote Ekonomikoa (ELE), izakinen kostua murrizten duena.

Horregatik, eskaera-lote ekonomikoaren helburua hornikuntza- eta biltegiarzte-kostuak murriztea da, hots, eskaera handien eta eskaera txikien arteko oreka.



Honako ezaugarriok bete behar dituzte ELE sistema erabili nahi duten enpresek:

- * Erosketa-loteen bidez hornitu behar da.
- * Eskatutako kantitateak konstantea *izan* behar du.

5.6.8. Inbentarioa

Inbentarioaren definizioa honako hau da: biltegi batean dauden izakin fisikoen kontaketa zuzena. Horrela ateratzen denak eta biltegiko fitxetan agertzen denak bat egin behar dute; ez badute egiten, errealitatea da balio duena, hau da, kontaketa edo inbentarioa.

Arautua dago inbentarioa urtean behin egin behar dela, gutxienez. Bestalde, guztiz beharrezkoa da biltegia kontrolatzeko.

Normalean inbentario partzialak egiten dira, epeka, ekitaldi ekonomikoan (urte naturala) zehar. Urtekoak edo sei hilekoak izaten dira.

Izakinen kontrolak *jarraitua* eta *aldizkakoa* izan behar du:

- a) **Kontrol jarraitua:** biltegiko fitxen zuzeneko erregistratze-prozedura.
- b) **Aldizkako kontrola:** biltegiko kontrol fisikoa, fitxetan agertzen diren kantitateak eta izakinen errealitatea (inbentario fisikoa) bat datozen ikusteko.

Hona hemen inbentarioaren helburu nagusiak:

1. Materialen egoera zein den zehatz jakitea.
2. Egoera fisikoa eta kontabilitate-egoera aurrez aurre jartzea.
3. Espazioaren eta instalazioen beharrak definitzea.
4. Zaharturiko materialak kokatzea.

Inbentarioa egin aurretik egin beharrekoak:

- * Materialak erraz aurkitzeko eta inbentariatzeko moduan kokatu.
- * Artikulu bakoitza identifikatu, haien artean nahasterik gerta ez dadin.
- * Zein artikulu inbentariatu behar diren eta zein ez adierazi. Inbentariatzeko erabili behar den prozedura zehaztu.

Inbentarioaren fase nagusiak hauexek dira:

1. Artikulu bakoitzaren unitateen kontaketa eta kantitate horien erregistroa
2. Aurreko etapan zehaztutako kantitateen egiaztapena, bai artikulu guztiak berriro kontatuz, bai lagin adierazgarri baten bidez.
3. Erregistro-sisteman agertzen diren kantitateen zuzenketa kontaketa fisikoa egitean ateratzen diren datuekin konparatzea.

Agertzen diren desberdintasunen zergatiak honako hauek izan daitezke:

- * Fitxen erregistroaren hutsuneak (sarreraren edo irteeraren idazpen okerrak).
- * Erregistroan idatzi gabeko irteerak.
- * Lapurreak...

5.6.9. ABC sailkapena

Inbentarioan dauden artikuluen sailkapena balio monetarioaren arabera egiten da.

Sailkapen honekin, enpirikoki, hiru artikulu-mota daudela frogatzen da.



ABC sistemak adierazten duenez, errealitatean artikuluen hainbateko bat da eskaeraren parte handiena; gainerako artikuluen hainbateko bat ere badago, urteko eskaera osoarekiko garrantzirik ez duena.

Azterketa honetatik zera ondorioztatzen da: enpresak gama garestieneko artikuluen kudeaketari eman behar dio lehentasuna, eta bigarren mailan utzi unitateko balio txikiagoa dutenak.

Hona horren arrazoia: balio gutxiko materialen kontrol zorrotza egiten bada, garestiagoa gerta daiteke kontrol hori materialak eurak baino.

ABC azterketak taldeka sailkatzen ditu izakinak, balioaren eta urteko kontsumoaren arabera:

- A:** Garrantzitsuenak.
- B:** Garrantzi ertainekoak.
- C:** Garrantzi txikiena dutenak.

A ARTIKULUAK EDO KOSTU HANDIENekoAK:

Artikulu hauetan besteetan baino arreta handiagoa jarri behar da; zorrotzagoa izan behar du kontrolak. Biltegiko artikuluen kopuruaren % 3 eta % 20 bitarte izaten dira sail honetakoak, baina balioaren % 50-% 75 bitarte dute.

B ARTIKULUAK EDO KOSTU ERTAINEkoAK:


Biltegiko artikuluen kopuruaren % 20 eta % 40 bitarte izaten dira sail honetakoak. Balioaren % 20-% 40 bitarte izaten dute.

C ARTIKULUAK EDO KOSTU TXIKIENekoAK:

Izakin-talde handiena dira, biltegiko % 40-% 50 bitarte. Balio txikia dute, % 5-% 10 bitartekoa. Izakin horiek ez dute kontrol zorrotzik behar izaten.

IZAKIN MOTAK	BALIO OSOA (%)	IZAKINAK(%)
A	50-75	3-20
B	20-30	20-40
C	5-10	40-50





Ariketa

Honako elementuok ditugu biltegian:

- Mahaiak.
- Aulkiak.
- Ordenagailuak

Produktu bakoitzeko balioak eta izakinen ehunekoa, balioaren zenbateko osoarekiko, honakoak dira:

	% Balioa	% Izakinak
– Mahaiak.	20	40
– Aulkiak.	10	50
– Ordenagailuak	70	10


Sailkatu hiru produktuak ABC sailkapen-metodoaren arabera.

Ebazpena

IZAKIN-MOTAK	BALIO OSOA (%)	IZAKINAK(%)
A Ordenagailuak	70	10
B Mahaiak	20	40
C Aulkiak	10	50



Irteeren balioa ehunekotan



5.7. KOSTU-PREZIOAREN KALKULUA

Erosleari faktura aurkezten zaionean, egin duen erosketagatik ordaindu behar duena azaltzen zaio. Horrez gain, erositako produktu bakoitzari dagokion unitateko kostua jakitea ere interesatzen zaio. Fakturaren datuekin jakin dezake hori erraz asko.

Erositako salgai guztiak berdinak badira, erraza da guztizko kostua jakitea: erositako kantitatearen artean zatitzea besterik ez dago. Baina salgaiak desberdinak badira, korapilatsuagoa izaten da. Dena den, horrela ere erraz egin daiteke, honako erregela hauek erabiliz:

1. Salgai-mota bakoitzari dagozkion berezko gastuak artikulua bakoitzari egotzi behar zaizkio.
2. Gastu komunak, berriz, zenbatekoaren arabera banatu behar dira. Horretarako, merkantzia-mota bakoitzari dagokion zenbatekoa oinarritzat harturik, proportzionalki banatu behar dira.
3. Pisua dela-eta sortzen diren gastu komunak pisuaren arabera banatu behar dira –pisuak zenbatekoak diren jakinez gero, behintzat–; bestela, zenbatekoaren arabera.
4. Gastu finkoak bakoitzaren zenbatekoaren arabera banatu behar dira.



5.8. SALMENTA-PREZIOAREN KALKULUA

Merkataritzan salmenta-prezioa aurkitzea oso garrantzitsua dela esan beharrik ez dago, horren arabera izaten baita merkatarearen irabazia.

Bi faktorek hartzen dute parte salmenta-prezioaren kalkuluan: kostu-prezioak eta eskaintza-eskaeraren legeak.

Nahiz eta eskaintza-eskaeraren legeak garrantzi handia izan, salmenta-prezioa kostu-prezioari mozkin-marjina bat erantsiz lortzen da normalean.

Mozkin-marjina kostu-prezioaren nahiz salmenta-prezioaren gaineko portzentaia baten bidez adierazten da.

Salmenta batean lortzen den mozkin zenbatekoa den honela jakin daiteke: salmenta-prezioaren eta kostuaren arteko kenketaren bidez. Horrela aurkitzen den mozkin mozkin absolutua da. Mozkin horren adierazpen zehatzagoa eman nahi izanez gero, berriz, ehunekoa eman behar da.

Adibidea: merkataria batek 320 € -tan erositako salgaia 400 € -tan saldu du. Zenbateko mozkin lortu du? Zein ehuneko dakar kostu-prezioarekiko? Eta salmenta-prezioarekiko?

Mozkin absolutua = 400 – 320 = 80 €.

a) Mozkin erlatiboa kostu-prezioaren gainean kalkulatuta:

320 eurori..... 80 euro bagokie

100 eurori.....X euro legokieke

$$X = \frac{80 \times 100}{320} = \% 25$$

b) Mozkin erlatiboa salmenta-prezioaren gainean kalkulatuta :

400 eurori.....80 euro balegokie

100 eurori.....X euro legokieke

$$X = \frac{80 \times 100}{400} = \% 20$$

Hasieran, merkantzia saltzen hasi aurretik, merkataria kostu-prezioa badakienez, salmenta-prezioa aurkitzeko kostu-prezioaren gaineko ehunekoa erabili behar du; baina merkantzia saltzen hasten denean salmenta-prezioa zenbatekoa den jakin egingo du eta, beraz, mozkin lortzeko salmenta-prezioaren gaineko ehunekoa aplikatzea errazagoa izango zaio.

Hartara, merkataria merkantzia saltzen hasi aurretik jakin nahiko du zein den kostu-prezioaren gainean kalkulaturako mozkin-marjinari dagokion salmenta-prezioaren gainekoa . Nola aurki genezake hori?

Adibidea: demagun merkataria batek kostu-prezioaren gainean % 20 irabazi nahi duela. Jakin nahi duena zera da: salmenta-prezioaren gain zenbateko ehunekoa dakarren % 20 horrek.

Kostu-prezioa 100 eurokoa balitz, 20 euroko mozkin izango luke; beraz, salmenta prezioa 120 eurokoa litzateke. Orduan:



120 eurori.....20 euro balegokie
100 eurori.....X euro legokieke

$$X = \frac{20 \times 100}{120} = \% 16,66$$

Kostu-prezioaren gaineko % 20ko mozkinak eta salmenta-prezioaren gaineko % 16,66 mozkinak gauza bera adierazten dute. Horregatik esaten da bi ehuneko horiek korrelatiboak direla.

Adibidea: demagun merkatari batek, salmenta-prezioaren gainean irabazi nahi duen mozkinak % 25 dela. Zenbatekoa izan behar du mozkin hori lortzeko kostu-prezioari ezarri beharreko ehunekoak?

Merkantziaren salmenta-prezioa 100 balitz, mozkinak 25 eurokoa izango litzateke; kostu-prezioa, berriz, 75 eurokoa.

75 eurori.....25 euro balegokie
100 eurori.....X euro legokieke

$$X = \frac{25 \times 100}{75} = \% 33,33$$

Salmenta-prezioaren gaineko % 25eko eta kostu-prezioaren gaineko % 33,33ko mozkinak berdinak dira. Beraz, bi ehuneko horiek korrelatiboak dira.

Trakasteko eta ikasteko araketak

- 1) Azaldu eskaera-kostuaren eta bidaltze-kostuaren arteko desberdintasunak.
- 2) Zein da izakinen errotazio-indizea?
- 3) Definitu, labur, kontzeptu hauek: gutxieneko stocka, gehieneko stocka eta segurtasun-stocka.
- 4) Zein da segurtasun-stockaren helburua?
- 5) Zer adierazten digu errotazio-indize baxuak?
- 6) Zein dira inbentarioa egiteko fase nagusiak?
- 7) Zein da honako produktuon errotazio-indizea?:
A: ordenagailuak.
B: mahaia.
C: aulkiak.
Biltegian, produktu hauen mugimendua honako hau izan da:

Artikulua	Urteko irteerak	Batez besteko izakinak
A	140 unitate	400 unitate
B	510 unitate	1.500 unitate
C	1.260 unitate	3.600 unitate



8) Zein da eskaera-puntua honako artikuluetan:

Artikulua	Aurreikusitako kontsumoa	Segurtasun-stocka	Entrega-epea
A	200 u/eguneko	80 unitate	10 egun
B	160 u/hileko	20 unitate	18 egun
C	1.000 u/hilean	100 unitate	30 egun

9) Zer da stocken kudeaketa?

10) Zein dira stock-hausturaren ondorioak?

11) Zein aldagai hartu behar dira kontuan eskaera-puntua kalkulatzeko?

12) Zein arrazoiengatik egon daitezke desberdintasunak biltegiko kontaketa fisikoaren eta fitxetan agertzen denaren artean?

Ariketak

1. Enpresa batek bi produktu (X eta Y) fabrikatzen ditu. Fabrikazio Sailak honako datuok bidali dizkigu:

- Lehengaien kostua, guztira 50.000 €
- Lanorduen kostua, guztira 40.000 €
- Energiaren kostua, guztira 10.000 €

Produktuekiko kostuen esleipena:

- a) Lehengaien guztizko kontsumotik $\frac{2}{3}$ X produktuari dagozkio.
- b) Erabili diren 200 orduetatik 50 Y produktuari dagozkio.
- c) Erabilitako energia erdi bana zatitzen da bi produktuen artean.
- d) Produzitutako unitateen kopurua:
 - X produktua: 1.200 unitate.
 - Y produktua: 600 unitate

Zer produktuk du kostu handiena?

2. 2002ko urtarrilaren 1ean biltegian izakinen 150 unitate genituen. Horien balioa: 1.000 €. Hilabete horretan eragiketa hauek egin dira:

- Erosketak (2002-1-3): 50 unitate 350 €
- Salmentak (2002-1-8): 80 unitate 800 €
- Erosketak (2002-1-20): 180 unitate 450 €
- Salmentak (2002-1-28): 100 unitate 1.200 €

Kalkulatu hilabete bukaerako izakinen kopurua eta balioa, BPH (Batez besteko Prezio Haztatua), FIFO (First In First Out) eta LIFO (Last In First Out) metodoak erabiliz.

3. Salerosketa-kontratu baten bidez 200 salgai-unitate (50 \$/unitateko) erosi ditugu AEBetan. Garraio-kostuak 800 €-koak izan dira; muga-zergak (arantzelak), 40.000 €. Gainera, 100 €-ko aseguru-prima ordaindu dugu. Zein da merkantziaren balioa, erosketa egin zenean dolarren kotizazioa 1,2 €/ \$-ekoa zela jakinik? Zergatik?

4. Zein da errotazio-indizea honako artikuluetan?:

- A = Mahaia.
- B = Aulkiak.
- C = Lanparak



Biltegian dauden artikulu horien mugimendua honako hau izan da:

Artikulua	Irteerak	Batez besteko izakinak
A	120 unitate	280 unitate
B	300 unitate	420 unitate
C	250 unitate	1.100 unitate

5. Kalkulatu hurrengo artikulu hauen eskaera-puntua:

Artikulua	Aurreikusitako kontsumoa	Segurtasun-stocka	Entrega-epea
A	20 u/eguneko	80 unitate	12 egun
B	150 u/hileko	20 unitate	15 egun
C	1.200 u/hileko	100 unitate	25 egun
D	300 u/hileko	30 unitate	30 egun
E	50 u/eguneko	25 unitate	45 egun

Marraztu A eta B artikuluen grafikoa.

A = gehienezko stocka 1.200 unitate.

B = gutxieneko stocka 100 unitate.

6. Biltegian honako produktuok ditugu:

- Kableak (1 mm) 1.200 biribilki, 1 €/u.
- Bihurkinak 400 unitate, 4 €/u.
- Antena parabolikoak 80 unitate, 50 €/u.

Sailkatu artikuluak ABC metodoaz eta egin adierazpen grafikoa.

Adierazi artikulu bakoitzeko inbentarioaren kontrol-maila.

7. TAMAYO paper-dendak honako bolaluma-mugimendua izan zuen biltegian joan den urtean:

- 02/03/07: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (20. fak.); 100 u. x 0.5 €/u.
- 02/06/16: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (120. fak.); 150 u. x 0.6 €/u.
- 02/08/12: salmenta, 'Papelerias Perez'-i (321. fak.); 90 u. x 1 €/u.
- 02/10/18: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (1200. fak.); 80 u. x 0.7 €/u.
- 02/11/29: salmenta, 'El Escritorio'-ri (700. fak.); 180 u. x 1,2 €/u.
- 02/11/12: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (1500. fak.); 50 u. x 0.65 €/u.
- 02/12/23: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (1510. fak.); 100 u. x 0.75 €/u.
- 02/12/29: salmenta, 'El Estudiante'-ri (880. fak.); 180 u. x 1,3 €/u.

Egin honako ariketa hauek:

1. Biltegiko mugimenduaren kontrola eraman, hiru sistemez baliatuz: FIFO, LIFO eta BPH.
2. Kalkula ezazu zenbateko irabaziak lortu zituen salmentetan (hori ere FIFO, LIFO eta BPH sistemak erabiliz).

8. TAMAYO paper-dendak honako bolaluma-mugimendua izan zuen biltegian joan den urtean:

- 02/01/01: hasierako izakinak; 100 u. x 0,3 €/u.
- 02/03/06: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (100. fak.); 60 u. x 0.4 €/u.
- 02/05/02: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (500. fak.); 40 u. x 0.35 €/u.
- 02/07/18: salmenta 'Papelerias Perez'-i (700. fak.); 90 u. x 0,7 €/u.
- 02/08/09: salmenta 'El Escritorio'-ri (900. fak.); 90 u. x 0,8 €/u.
- 02/11/10: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (1.100. fak.); 100 u. x 0.25 €/u.
- 02/11/13: erosketa, 'Bulego-materiala'-ri (1.111. fak.); 80 u. x 0.3 €/u.
- 02/12/12: salmenta 'El Estudiante'-ri (1.200. fak.); 150 u. x 0,6 €/u.



Egin honako ariketa hauek:

1. Biltegiko mugimenduaren kontrola eraman, hiru sistemez baliatuz: FIFO, LIFO eta BPH.
2. Kalkula ezazu zenbateko irabaziak lortu zituen salmentetan (hori ere FIFO, LIFO eta BPH sistemak erabiliz).

9. 'Comercial Alimentaria S.A.' enpresak ardoa banatzen du. Honako mugimenduak izan ditu biltegian:

02/01/01: hasierako izakinak	300 u.	1 €/u
02/01/04: erosketa 'COVIMA'-ri (202. fak.)	700 u.	1,4 €/u.
02/01/12: salmenta 'COMERCIAL GOMEZ'-i (360. fak.)	200 u.	1,7 €/u.
02/01/15: salmenta 'CASER'-i (222. fak.)	500 u.	1,6 €/u.
02/01/20: erosketa 'COVIMA'-ri (260. fak.)	2.200 u.	1,1 €/u.
02/01/25: erosketa 'COVIMA'-ri (420. fak.)	1.000 u.	1,2 €/u.
02/01/26: salmenta 'COMERCIAL IMPERIAL'-i (490. fak.)	500 u.	1,8 €/u.
02/01/29: salmenta 'IZARRA'-ri (295. fak.)	1.500 u.	1,6 €/u.
02/01/30: erosketa 'COVIMA'-ri (272. fak.)	1.000 u.	1,3 €/u.

Egin honako ariketa hauek:

- a) 'Comercial Alimentaria' enpresaren biltegi-fitxa, ezagutzen dituzun irizpideak kontuan izanik:
 - BPH
 - FIFO
 - LIFO
 - b) Behar diren kalkuluak, jakiteko salmenta bakoitzean irabazi duena.
10. 'Aceitera Rumbasur S.A.'k oliba-olioa saltzen du. Hona hemen 2002ko abenduaren 1ean zeuzkan izakinak:
- | | | |
|------------|--------|-------|
| 72 unitate | 3 €/u. | 216 € |
|------------|--------|-------|

Abenduan, honako biltegi-mugimenduak izan zituen:

Data	Eragiketa	Kopurua	Prezioa
Abenduak 3	Erosketa	140 u.	3,1 €
Abenduak 5	Salmenta (Alimentaciones Sanz SL)	80 u.	4 €
Abenduak 7	Erosketa	175 u.	2,9 €
Abenduak 12	Salmenta (Alisana SA)	185 u.	4,2 €
Abenduak 13	Erosketa	60 u.	2,8 €
Abenduak 16	Salmenta (Degustaciones SA)	115 u.	4,3 €
Abenduak 18	Salmenta (Alisana SA)	40 u.	4,4 €
Abenduak 19	Alisanak itzuli egin zituen eskabidean oker bat izan zela eta	4 u.,	
Abenduak 22	Erosketa	50 u.	3 €

Egin honako ariketa hauek:

- a) 'Aceitera Rumbasur SA'ko biltegiko fitxa, ezagutzen dituzun irizpideak kontuan izanik:
 - BPH.
 - FIFO.
 - LIFO.
- b) Behar diren kalkuluak, salmenta bakoitzean irabazi duena jakiteko.



11. 'Olivetti' enpresak honako mugimenduok izan zituen biltegian martxoan:

02/03/01:	Lehen izakinak:		
	– Idazmakinak	14 ale	200 €/b. (BPH)
	– Kalkulagailuak	40 ale	55 €/b. (FIFO)
	– Ordenagailuak	15 ale	590 €/b. (LIFO)
02/03/03:	INATOR enpresari honakoak erosi zizkion: (350. fak.)		
	– Idazmakinak	20 ale	300 €/b.
	– Kalkulagailuak	2 ale	70 €/b.
	– Ordenagailuak	3 ale	690 €/b.
	(Gastuak: 3 € produktu bakoitzeko)		
02/03/05:	MAMUT hipermerkatuari honakoak saldu zizkion: (500. fak.)		
	– Idazmakinak	10 ale	400 €/b.
	– Kalkulagailuak	5 ale	80 €/b.
02/03/07:	INATOR enpresari honakoak erosi zizkion: (355. fak.)		
	– Idazmakinak	5 ale	280 €/b.
	(Gastuak: 3 € produktu bakoitzeko)		
02/03/07:	MAMUT hipermerkatuari honakoak saldu zizkion: (500. fak.)		
	– Ordenagailuak	5 ale	700 €/b.
	– Kalkulagailuak	25 ale	90 €/b.
02/03/10:	PRYCA hipermerkatuari honakoak saldu zizkion: (512. fak.)		
	– Idazmakinak	6 ale	410 €/b.
02/03/10:	INATOR enpresari honakoak erosi zizkion: (370. fak.)		
	– Ordenagailuak	1 ale	500 €/b.
	– Kalkulagailuak	2 ale	82 €/b.
	(Gastuak: 4 € kalkulagailu bakoitzeko)		
02/03/12:	PRYCA hipermerkatuari honakoak saldu zizkion: (520. fak.)		
	– Ordenagailuak	6 ale	720 €/b.
02/03/12:	EROSKI hipermerkatuari honakoak saldu zizkion: (521. fak.)		
	– Ordenagailuak	3 ale	720 €/b.
02/03/16:	INATOR enpresari honakoak erosi zizkion: (378. fak.)		
	– Idazmakina	3 ale	300 €/b.
	– Kalkulagailuak	6 ale	58 €/b.
	(Gastuak: 4 € kalkulagailu bakoitzeko)		
02/03/16:	EROSKI hipermerkatuari honakoak saldu zizkion: (526. fak.)		
	– Ordenagailuak	2 ale	750 €/b.
02/03/19:	INATOR enpresari honakoak erosi zizkion: (385. fak.)		
	– Ordenagailuak	10 ale	430 €/b.
	(Gastuak: 4 €)		
02/03/21:	PRYCA hipermerkatuari honakoak saldu zizkion: (524. fak.)		
	– Idazmakinak	5 ale	430 €/b.
	– Kalkulagailuak	3	92 €/b.

a) Bete ezazu biltegi-fitxa, produktu bakoitzerako aukeratutako irizpidea gogoan izanik.



b) Kalkula ezazu OLIVETTI enpresak salmenta bakoitzeko irabazi duena.

12. HIRI ZAHAR enpresak honako izakinak zituen abenduaren 31n (hiru produktu saltzen ditu):.

MAHAI-ZAPIAK	200 u.	20 € (FIFO)
EZPAIN-ZAPIAK	350 u.	8 € (LIFO)
MANTALAK	100 u.	15 € (BPH)

Honako eragiketak egin zituen urtarrilean:

02/01/ 3: 'CONFECCIONES ZAZPI'-ri salmenta (458. fak.)

– 75 mahai-zapi	30 €.
– 100 ezpain-zapi	12 €.
– 30 aurreko mantal	22 €.

02/01/ 5: erosketa egin zion 'TEXTILES UNIDAS S.A' enpresari (1000. fak.)

– 125 mahai-zapi	21 €
– 125 ezpain-zapi	9 €.
– 50 aurreko mantal	16 €.

02/ 01/10: salmenta egin zion 'ARGI S.L.'-ri (459. fak.)

– 175 mahai-zapi	32 €.
– 150 ezpain-zapi	14 €.
– 75 aurreko mantal	24 €.

02/01/14: erosketa egin zion 'ILUN,S.COOP' enpresari (960. fak.)

– 100 mahai-zapi	23 €
– 125 ezpain-zapi	10 €.
– 50 aurreko mantal	18 €.

(Gastuak: 3 € produktu-mota bakoitzeko)

02/01/ 18: salmenta egin zion 'ARGI S.L.'-ri (fak: 460)

– 90 mahai-zapi	34 €.
– 235 ezpain-zapi	15 €.
– 70 aurreko mantal	25 €.

02/urtarrilaren, 20an: salmenta egin zion 'CONFECCIONES ZAZPI'-ri (fak: 461)

– 6 mahai-zapi	31 €.
– 30 ezpain-zapi	13 €.
– 25 aurreko mantal	24 €.

02/01/ 23: erosketa egin zion 'ILUN, S.COOP' enpresari (1.000. fak.)

– 100 mahai-zapi	35 €
– 200 ezpain-zapi	17 €.
– 75 aurreko mantal	25 €.

(Gastuak: 3 € produktu-mota bakoitzeko)

Egin itzazu honako ariketa hauek:

- Biltegiko fitxen mugimenduak idatzi, produktu bakoitzari dagokion balioztatze-sistema kontuan izanik. EZ AHAZTU GASTU BATZUK DAUDELA!!!
- Produktu bakoitzarekin lortutako etekinak kalkulatu.



[illegible]

ELHUYAR edizioak

ESKOLA-LIBURUAK

HEZIKETA-ZIKLOAK

- **ZE HAR-LERROAK**
- **ADMINISTRATIOA**
- **ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA**
- **ELIKAGAIGINTZA**
- **FABRIKAZIO MEKANIKOA**
- **NEKAZARITZA ETA ABERE-HAZKUNTZA**
- **OSASUNGINTZA**
- **ZURGINTZA eta ALTZARIGINTZA**



ELHUYAR
edizioak